JAKIN

EUSKERA IDATZIAREN BATASUNA

Zenbait iritzi batasunari buruz. — Euskeraren batasuna. — Euskal-joskera. — Literatur-euskera batasun baten aldera. — Batasunaren bideak. — Batasun honen beharra eta egokitasuna. — Ermua'ko euskal-idazleen jardunaldien erabakiak.

SALBADOR GARMENDIA. AINGERU IRIGARAY. PIARRES LAFITTE. IMANOL LASPIUR. JUAN ANTONIO LETAMENDIA. TXILLARDEGI.

NOTA LABURRAK

Txekoslobakia. — Paulo VI Ego-Amerikan. — Chicago: hutsa! — Hiru mila katoliko errezatzen. — Euskal-musika ariñaren gaitza eta etorkizuna. — Kreditoaren menpekotasunik eza. — Idazleen Alkartea. — Biolentzia... behiñere ez? — Markuse'k diola-ta.

KRONIKAK

Huarte Garaztarra ... ... ISIDORO FAGOAGA
Parapsikologia: zientzi berri hori ... ... XABIER KINTANA
Paulo VI eta Camilo Torres ... ... JOAN MARI TORREALDAY

AGIRIAK

Katalan-hizkuntza
Berri-emailleeri Aita Santuak

urtekoa: 100 pezta **MAIATZA-URRIA** **alea: 25 p.**

31-32

ARKIBIDEA

EUSKERA IDATZIAREN BATASUNA

GEREDIAGA: **Deia** 15
LASUEN: **Agurra** 17
J. A. LETAMENDIA: **Zenbait iritzi batasunari buruz** 19
S. GARMENDIA: **Euskeraren batasuna** 28
I. LASPIUR: **Euskal-joskera** 39
A. IRIGARAY: **Literatur-euskera batasun baten aldera** 58
P. LAFITTE: **Batasunaren bideak** 62
TXILLARDEGI: **Biltzarkideei** 66
BILTZARKIDEAK: **Erabakiak** 73

NOTA LABURRAK

Txekoslobakia. — Paulo VI Ego-Amerikan. — Chicago: hutsa! — Hiru mila katoliko errezatzen. — Euskal-musika ariñaren gaitza eta etorkizuna. — Kreditoaren menpekotasunik eza. — Idazleen Alkartea. — Biolentzia... behiñere ez? — Markuse'k diola-ta

Rikardo ARREGI. Ramon IRIZAR. Mikel Mari OTERO. Manolo PAGOLA. Karlos SANTAMARIA. Ibon SARASOLA. Joan Mari TORREALDAY. Manolo URBIETA

KRONIKAK

ISIDORO FAGOAGA: **Huarte garaztarra** 84
XABIER KINTANA: **Parapsikologia: zientzia berri hori** 95
JOAN MARI TORREALDAY: **Paulo VI eta Camilo Torres** 105

AGIRIAK

Katalan-hizkuntza 109
Berri-emailleeri Aita Santuak 111

LIBURUAK

RIKARDO ARREGI: **Azalekoaren eskubideak** 113

OHARRAK

JAKIN

ZUZENDARIA: JOAN MARI TORREALDAY

ARANTZAZUKO FRANTZISKOTARREN ARDURAPEAN ARGITARATUA

12 URTEA — 31-32 ZENBAKIAK — ARANTZAZU. OÑATE — GIPUZKOA

COLEGIO SERAFICO ✝ ARANZAZU

BATASUNA BAI ALA EZ?

Baiezkoak dira gure iritzi-emaileengandik jaso ditugun erantzunak oro. Danek diote, euskerak iraun ahal dezan, "bide bakarra" *dala (Amundarain'ek) batasuna. Eta Andoni Lekuona'k* "batasunari ortzak sartzea bearrezkoa dugula" *dio.*

Hala ere, ba daude, erantzuleen artean, batasunari zenbait baldintza jartzen diotenak, eta batasun hori pixka bat gehixeago aztertu nahi luketenak, beren baietza eman baiño lehen.

Batasuna, izan ere, ezin diteke erabateko xede edo aburu egin, euskera indartzeko bide bat besterik ez baita.

"Eta batasun hori, euskera indartzeko ez-baiño itotzeko tresna gertatuko balitz?" *galdetzen diote bere buruari batzuk.*

Euskera sendotzeko amaika entsegu ta proba eginak dira gure aurretik. Beti asmorik onenekin. Eta saio batzuetako ondoreak ezagunak zaizkigu. Alperrikakoak ez-ezik, kaltegarriak izan dira, batzuetan.

Gaur ere bide baten billa gabiltza, lorfuko dugulakoan, eta, kondaira lekuko, arriskuak ezagutzen ditugularik. Zuhur jokatu beharra dago, gisa da.

Entzun ditzagun, orain, arretarik handienaz, zuhurren kontseilluak.

ZUHURKI JOKATU

Hona hemen Lafitte jakintsuak esana. Bere hitzak sakonak eta begiratuak iduritzen zaizkigu, gerora nahaspillan ez gaitezen eror berriro.

"Oro hitz bereko gisa: batasuna lort ahal dagineza, bizi berri bat eman lezokela eskuarari, idazlek irakurle gehiago izanez eta diru gutiagoren gostuz eskuarazko literatura hedatuz.

Ez jakin hargatik, eia, batasuna egin ustez, ez dugun eskuara undarra nahasiko eta hilen, eskualki bat gehiago asmatuz, bertzeen gainerat, erdara bazterretik zai dagolarik, gure kasailez balia, eskuararen alde bat itotzeko.

Beraz zuhurki jokatzeko dugu.

Aipatzen baituzue literatura eta kultura, ez ahantz, arren, goi-literaturaren eta goi-kulturaren auzo-auzoan bizi direla herri-literatura eta herri-kultura; bi literaturen arteko muga non den nork erabakiko du, eta berdin bi kulturen artekoa?

"Oro hitz bereko gisa: batasuna lort ahal bagineza, bizi berri teatro, herri-kantu eta mota hoietako idazlliak beharko ote dira literatura landuan murgildu? ni beldur, herriari, hurbil ez badaude, ez dutela iraupenik izanen, eskolak noizbait ez dueno gure eskuara bakar berri hura hedatzen.

Gure hemengo Eskualdun irakurle gehienek eskuarazko agerkariak ez dituzte hartzen, erdara baino errexagoko mintzaire bat eskaintzen zaiotelakoz baizik: indar handiago bat galda baginezate mixteriozko eskuara berri batekin, antza ferratzerat igor gintzazkete, erdararen onetan eta eskuararen kaltetan. Horra egia!

Berriz ere erranen dut: goazen ikusiz. Xede hoberenek ez dituzte bide okerrak xuxentzen".

Andoni Lekuona, soziologo argia dana, Lafitte jaunaren ikusmoldean berean jartzen da, alegia, gai hontan zazpi begiekin ibilli behar dugula dio. Errealistak geran aldetik, bere hitza ("mutillak, kontuz ibilli!") *guztiok entzun beharko genuke, eginkizun hau den-*

pora pasatzeko jokoa ez dalako, gure herriaren etorkizunerako garrantzarik handieneko arazoa baizik. Bestela nolako herrizaletasuna izanen litzake gurea? Geure buruak konprometitu behar ditugu arazo hontan.

"Batasuna bearrezkoa dugula, Euskeraren bizitzak eskatzen digula, ortzak estutu ta langintza orri ekin bear diogula ta abar. Dudarik ez. Baiña emen dator nere alper alderdia. Mutillak, kontuz ibilli. Alare, ez aztu. Kontuz ibiltzeak ez du iñolaz ere lotan egotea esan nai. Ez orixe.

Zergatik kontuz? Egia esan, nik bezela euskera gurasoengandik ikasi genduanok eta itzegitearen itzegitez ta idatziaren idatziaz landu dugunok; sekula santan arlo orretan ez maisurik ta ez eskolarik izan ez dugunok, naiko lan ematen digu itzegite ta idazte utsak. Baiña ez da ori bakarra. Ea beti, euskeraz bein ere landu ez diran soroetan gabiltz, eta lan onek, besterik gabe, naiko buruauste ematen digu: izkuntza arrotzez ikasi ta pentsatu ta euskerara itzuli. Ortarako, jakiña, gaia ondo menderatu bear, aogoxatu, itzak billatu, buruz euskaldun baten aurrean jarri ta ekin. Momentu onetan, egia diozuet, "h" ibilli bear dan edo ez dan, noiz ibilli bear dan, itz "orokorrak" zeintzuk diran t.a.; langintza oneri ekiteko gogorik ez dugu izaten ta ezagututako bideari eusten diogu. Dudarik gabe gaizki egiña dago, baiño orixe da gertatzen zaiguna. Idazle alperra naizenik ez aztu.

Zoritxarrez, ez dut uste bakarra naizenik bai idazleen artean eta, zer ezanik ez, —eta au ezin iñolaz aztu bear— irakurleen artean. Erri batean oitura bat ez da sartzen zaindariak ala erabaki dualako ta besterik gabe. Zaindariaren erabakiak lagundu dezake, baiña iñolaz ere ez erria kontra dagoanean".

BATASUN ASTRATORIK EZ

Azurmendi pentsalari argiak, batasun-ideia ta batasun-errealitatearen arteko desberdintasuna ere erakusten digu. Batasunak asmo ederra teorian badirudi ere, gertaera-saillean horren ederra ez da agertuko noski. Huts ta akats asko izango ditu, nahitanahiez. Gure aukera astratoan egitea eziña dugu, iñozokeria bat. Apriorismo ta aurre-iritzi guztiak alde batera utzi behar ditugu, arazo hontan.

"Egia esan, batasuna hipotesi bat dugun artean ezin esango nuke aparte interesatzen nauenik ere. Abstrakt begiraturik interesatzen nau (bategintzak): goiz ala berandu egin beharra dagoelako. Hori gabe iñora ez goazelako, anarkiaren bideetara ezik. Hori egin artean gure indarrak axalkeria gehiegitan alferrikaltzen gabiltzalako. Herri batek hizkuntza batasuna behar duela deritzaiodalako, kultura batasunik lortzekotan behintzat. Eta, beti abstrakt konsideraturik, milla suberte arrazoi edo arrazoi itxuragatik.

Egingo dugun batasuna, ordea, konkreto bat izango da. Eta horrek arduratzen nauen ala ez nekez esan nezake aurretik. Alegia, nolako ta nolako ohiñarrietan altxatuko dan jakin gabe, ezin aurretik eman nezake axola zaidanik. Beharbada batasun zentzungabe bat irudituko zait".

BATASUNAREN ZERGATIAK

Batasuna zergatik? Eta, zertarako? Moda igeskor bat ote da, besterik ez? Euskal konzientzia dutenek ba dakite garrantzi handiko arazoa dala. Baiña uste hau, uste hutsean geldi ez dedin, eta guztiak batasunaren behartasunez konbentzi ditezen, arrazoiak eman beharra dago, argi ta garbi.

Hortaz, gure erantzuleek gauza interesgurri asko jakin-arazi digute beren paperetan, eta hoien arteko iritzi sorta bat, soillik, azalduko diogu hemen irakurleari.

Batasunaren lehenbiziko zergatia hontarakoa da: "geure kultura desarrollatzeko". Erri lez bizi al izateko" *julen Kalzada jaunak, argi ta garbi, urrengo hitzetan erakusten duanez:*

"Erri bat garan kontzientzia, izkuntza bat daukagunean eukiko dogu; baiña geu euskaldunok, ulertzen ez bagara, mintzaira ezbardiña daukagula uste izango dogu; eta ondoren lez erri ezbardiñak garala. Izkuntzaren batasunagaz batera, Euskalerriko erdeldun guztiak euskaldundu bear dira; euskera ikasi bear dabe. Bestela, erdeldunak luzarora Euskalerriari uko egingo dautze eta beste erri bat biurtuko dira.

Erri txikia izan eta gaiñera bananduta bagagoz, alkar-aitzen ez bagara, ezer ez gara desarrollatuko, ta indar asko alperrik galduko doguz".

Eta, egia esan, nola herri-konizentzia eukí, baldin euskera, egiazko kultura-bidea izan beharrean, itxura gabeko euskalki mul-

tzo bat besterik ez bada? Gure Ibon Sarasola'k puntu hontan insistitzen du eta bere iritzia zorrotza ta baliosa iruditu zaigu.

"Ezin ditekelako pentsatu ere egin, euskera euskalkietan sakabanaturik diraueno, gure hizkuntza kultura-lan bat egiteko eta euskaldunak euskaldun bezala hezitzeko gai danik. Gero eta gehiago, euskalkiak elkarganik adaratzen eta urruntzen ari dira: honen ondorioz, esan dezakegu gaur egunean gure hizkuntza faktore disgregatzaille bat dala euskaldunentzat. Egun, ez da nehor euskeraz mintzatzen. Euskera ez da ezer, ez du existitzen. Bizkaiera ez da euskera, eta gauza berbera esan diteke gipuzkeraz, Laburdi'ko hizkeraz eta abar. Eta praktikari behatuz, errez konturatu diteke nor-nahi heriotzara doala zuzenean gurearen egoeran arkitzen dan hizkuntza bat".

Izan ere, ezin du euskerak kultura eremuan bizi bere batasuna lortu arte. Nolako aurpegiaz atera gindezke literatura ta zientzia munduan holako mintzaera nahastu ta zatikatuan idatzirik? Aita Vilasante jakintsua honela mintzatzen da:

"Batasuna lortu gabeko izkuntza, beti motx, lotsagarri eta prestigio gabe gelditzen da. Eta ala gelditzen da, gaiñera, ez kanpokoen aurrean bakarrik, erritarren artean ere bai. Bateratua ez dagoen izkuntza, nekez sar diteke eskolan eta nekez irakats diteke. Batasuna egindako izkuntzekin, izkuntza zatikatuak ezin burruka dezake, oien ondoan ezin du bururik ailtxatu".

Batasunaren aldeko argumentuak ugari baiño ugariagoak dira, noski. Benetako letani luze bat antola liteke gure erantzuleek emandako erantzunekin. Batasuna zergatik eta zertarako? Hona hemen Larzabal, Kapanaga, Mendiguren, Iraola ta Iztueta jaunen iritziak. Batasuna beharezkoa da...

"Eskuara ikas eta erakasteko. —Eskuara goimailerazteko erritar eta atzerritarren burutan—. Eskuara indartzeko". *(Larzabal).*

"...literatura bat izan ahal daiten, gaurko egoeran ez dudalako uste ezer arrigarririk sortu ahal ditekenik. —Gure izkuntzak indar geiago izan dezan inguruko beste izkuntzen zapalkadak garaitzeko. —Datorren garai batean euskal-errialde guztietako pentsalari ta gidariak lokarri sendo batek alkartu ditzan". *(Kapanaga).*

"Euskerak indar artu dezan beste bide egokirik ez dagolako. —Irakurleak ugal ditezen eta argitarapenetan dirua alperrik txautu ez dedin. —Euskalerri osoan iñolako konpleju ta nekerik gabe alkar

ulertu dezagun. —Gaur egunean euskera ikasten asi diranei mugatasun eta oztopo guztiak kenduaz, erreztasun aundienak emateko". *(Mendiguren).*

"Alkartuta indar geiago izango gendukelako. —liburu-erosle geiago izango lirakelako. —norbere sorterritik kanpo alkar obeto ulertuko gendukelako. —danon artean aldizkari nagusi bat argitaratu genezakelako. —Katalan'en antzera kultura mailla aundiagora eldu gintezkelako" *(Iraola).*

"...batez ere lortu bear dugun zerbait dalako, Euskal-idazleak gutxi gera, gutxiago oraindik irakurleak, eta, jakiña, batasunik ez lortzean zertarako euskeraz emandako literatura: errebistak, poesia, antzerkia, kantak etabar... Bizkaian gipuzkerak ez du balio, berdin Gipuzkoan Bizkaiko euskerak, eta zailtasun au mugaz aruntz eta napar alderaiño zabaltzen da. Beraz, derrigorrezko dugu BATASUNA alkar-konpreni gaitezen gure gutxitasunean. Orduan errikoituko da kultura" *(Iztueta).*

BATASUNA LORTZEKO ERA

Batasuna erdietsi behar dugula. Ajola handienarekin eta zuhurtasun guztiarekin jokatu behar dugula. Bai, baiña nola ta nun? Alegia, zer alorretan landu beharko dugu? Aditza bateratzean? Euskalki guztien arteko hitz orokarren billatzean? Gaurko bizitza modernurako hiztegia eratzean?

Paul Iztueta'k zera dio: "Itzeri gagozkiola angoak eta emengoak naasian erabilli, benetan errikoiak direnean beintzat. Asiera batean erabilli diteke sinonismoa. Itza *tekniikoak eta orokorrak,* besterik gabe, beste berriak asmatzen ibilli gabe ta euskal-lurrean ez-ezagunak izan badira eta orain badira, *oso-osorik onartu.* Gaiñera ez daukagu indarrik berriak asmatzeko ta jendeari erakusteko. Ontarako zabalkuntza-indarra bear genduke, orain palta zaiguna. Au guzia izkuntzaren eboluzioaren eskabide edo exijentzi bat da".

Joan Iraola'k: 'Iztegi orokar bat bakarrik oso motza dala zerizkiot. Izkel nagusiena eta aberatsena ardatz bezela arturik beste izkelkien artean au aberastuz egin bear litzakek izkel orokar bat. Eta au oiñarri bezela artuaz euskera ikasten asi diraneri erakutsi bear litzaiekek: txiki-txikieri eta nagusieri".

Aita Villasante'k: Aukeratutako molde bori sendotu, zabaldu. Liburu, aldizkari eta alakoetan erabilli. Euskal irakaskintzan berau

irakatsi. Euskaldun guztien artean lokarri bezela izateko autatu dugun ezkero, euskera izan soilla berari eman, gipuzkera, bizkaiera ta orrelakoak euskalkientzat utzirik".

Izan ere, zer jokabide erabilli behar da, biarko egunean, herriak horrelako lanaren ondoreak onar ditzan? Esan ditugunen arazoetan dago koxkarik handiena. Bestela, dana ezerezean geldituko da eta ez da deus eginen. Deslilluratze ta galera izugarria izango litzake, batasuna martxan jarri beharrean, gaurko kinka hau alperrik ondatzea.

EBOLUZIOA ALA ERREBOLUZIOA?

Esanai asko dute bi hitz hoiek, eta ez da harritzekoa iritziak erabat desberdiñak izatea hortaz. Honela izan arren, aburu guztiak mamitsuak dira. Erantzule bakoitzak bere arrazoi pitin bat ba duela ikusiko du irakurleak.

"Jakiña, batasuna irixteko ez dago arinkerietan ibiltzerik; emen zipriztin batzuk, an beste batzuk. Orrela ez giñoazke iñora ere. Hiztegi orokar bat bear dugu, aditza ere guztiantzat bat izango dana ere bear dugu, gramatika ere bai. Ori guzia ez da egun batean iritxiko, eta eboluzio bat onartu bearko dugu; baiñan asierako errebolu zio bat ere bai. Nik, liturgi soroan ondo ikusi dut ori. Batasuna nai zutenak, asieratik, asko ziran, baiñan lenengo urratsa eman nai zutenak oso gutxi; eta zerbait egin nairik asi giñanean... sail batean, utopikozaleen saillean mugatu giñuzten. Batasunari buruz, liturgiak zerikusi aundia duela, nola ukatu? Zerbait egin da; baiñan, ain gutxi! *(Amundarain'ek)*.

"Errebolu ziño guztien lenengo lana, lengo jauregiak erretzea izaten da ta atzenengoa jauregi ederragoak eraikitzea. Guk, euskera suntsitzen badugu, ez dugu berriz eraikiko. Eboluziño sutsu eta eragikor baiñan erakoi bat bear dugula uste dut. Indarkeriz ez dira adimenak bideratzen eta au pentsalari arteko lana da". *(Kapanaga'k)*.

"Hiztegi orokarra eta gaiñera aditza orokarra, denporakin euskera landua bat bakara izan dedin. Hau pausoka egin behar da, baiñan dana dala azkar: bosten bat urteren buruan. Pentsa-moldetan errebolu zioa behar da, egituran, eboluzioa". *(arasola'k)*.

"Eboluzioetan' sinisten dot eta ez 'erreboluzioetan'. Bigarrenak diktadura sortzen dabe ta ortik ez dator batasunik" *(Zubikaraï'k).*

Eboluzioa ta erreboluzioa hitz hutsak direlako, bata ala bestea aukeratzeak ez digu argi askorik emango, noski. Filosofo dan aldetik, Jose Azurmendi adiskideak holako aukeran ez du batere mamirik arkitzen:

"Eboluzioa, noski baiño noskiago! Estrukturak aldatzekotan, izan ere, zer demoniorenak aldatuko genituzke ba? Hizkuntzarenak? Ez dakit zer izango litzakean hori, hizkuntzaren jabetasun pribaturik ez baitut ezagutzen, ezta hizkuntzaren estrukturak aldatze posiblerik ere. Ortografiarenak? Ezin asiko gera ideogramatan idazten.

Ez dut ikusten erreboluzio batek arazo honetan zer signifika dezakean. Izatekotan ere, ta nire irudimen guztiari libre jareginda ere, ekintza erreboluziolariren bat litzake nik susma dezakedan guztia"..

GAURKO EUSKERAREN KINKA

Euskera, oraindik batasuna ezin egiñik edo bera egiten nekez saiaturik, ateka gorri batean badago ere, —eta hori ez du iñork ukatuko— beste hizkuntzak ere horrenbesteko neke-lanak izan dituzte, eta orain bizi-bizirik daude, benetako kulturbideetan abiaturik. Euskeraren batasuna egiteko asmotan dabiltzanak Historiaren ikasgaiak ikasi behar dituzte eta ez nolanaiko bide artifizialetara, naikeriz ta besterik gabe, makurtu. Nork bere saillean batere konplejurik gabe jokatu ezkero, batasuna pixkanaka egingo da.

Hori da Lafitte eta Villasante jaunek esaten digutena:

"Ez ditake mintzaire bat bin-branka bertzelaka, diktadura baten bidez baizik, eta orduan ere ez aise.

Neure iritziz, oraino gure eskuarak iduri du XVI'garren mendeko frantsesa. Frantzes hori batasunik gabekoa zen. Hizkera hainitz bazauzkan: picard, mansois, limousin, gascon, perigourdin, poiterin, bordelais, lyonnais, normand, bourguignon, auvergnat, languedocien, eta bertze. Frantzesek elgar aditzen zuten halere guti edo aski, nahiz nahas-mahats hainitz bazuten bai hiztegiari bai gramatikari buruz. Hitz berek ez zuten bethi ez soinu bera, ez ikur bera: gauza batzuek bortzpasei izen izanki; joskera ere franko

desberdin eskualde batetik bertzera. Alde batetik beraz ugaritasun gehiegi. Bertzetik aldiz hitz eta eranbide asko eskas, latiñetik eta grekotik besataraka mailegatzen baitzituzten, guti edo aski aireburuak, nork bere asmuaren arabera, azkenerat alde hortarik ere soberakinean erortzen baitziren. XVII'garren mendean idazlariek zetabetu ta bakandu zuten ausarki mintzaire xaharra, behar gabeko zer nahi hitz eta itzuli baztertuz, eta atxikiz bakarrik gehienek erabiltzen edo bederen ulertzen zituztenak.

Kinka berean girela daukat: ikus Aita Mugica'ren hiztegia. Itoak gaude hitz eta hizkuntza desberdinez: behar ginuzke bakandu, autatuz orotsutakoak. Eskas ditugun gauza edo ideia berrien izenekin ere ez gira lanik gabe: batzuek españoletik hartzen ditugu, bertzek frantzesetik eta zenbaitek beren burutik. Gisa hortan oraino ere itoak baigaude!".

"Batasuna lortzeko ez da bear auxe besterik: literatur zeregiñetarako (idazteko baitipat), izkera-molde bakoitz bat autatu eta erabilli. Ez da bear erreboluziorik. Literatur izkera tradiz oz eta oituraz egiten dira. Orrelakoak guk ere izan ditugu eta oraiñ ere ba ditugu. Bat baiño geiago, ordea: or dago errula. Oietarik bat artzea aski da. Izkera artifizial bat asmatzen ibiltzetik gorde gaitezen. Bestela ez dugu gauza onik egingo".

COLEGIO SERAFICO DE LA SANTA CRUZ DE ORANZA

LEHENBIZIKO LANA, LAFITTE JAUNAREN IRITZIZ

Hona hemen jakintsu honen zentzuzko konseillua:

"Lehenbiziko lana, ene ustez, bilatzea herri-aldez herri-alde zer dugun orokarrik, eta gero idazlek hitz eta itzuli orokar hoitarik ahal bezain guti baztertzea".

Baiña, euskalkietako hitzen artean, batzuk hartzen baditugu, eta beste batzuk baztartu, euskera ez ote da xuhurtuko eta murriztuko? Hori da askoren kezkarik handiena, euskeraren joritasun guztia gorde nahi luketelako.

"Euskerak daukazen aberastasun guztiak zaindu bear litzakez. Batasuna danok aberastuteko izan bear da. Izkuntza pobretu egiten badogu, ez leuke mereziduko, nik uste", *dio Julen Kalzada adiskideak.*

Objezio honi erantzun argi ta garbi bat ematen dio Lafitte euskaltzaiñak.

"Iduriz xuhurtuko ta murriztuko dugu gure mintzairea, bainan haitza ez da hiltzen adar alferrak kentzen diozkatelarik. Ez da uste izan behar, hitz gehienik duen mintzaiera dela baitezpada hoberena. Española frantzesa baiño joriago izanik ere, ez dut uste Frantziako literatura Kastillakoa baino biziki txarragoa den. Eta Pascal, bere mintzaire hertsiarekin, munduko itlazle handiren artean ez da naski makalena".

HITZ BERRIAK... MAIONESA EGITEAN OLIOA BEZELA

Batasunaren lanean beste arazo bat ere agertzen da. Gaurreguneko gizonaren bizitzan konzetu berri asko sortu da ta erderatik hartutako hitzak darabilzkigu pentsaera horiek azaldu behar ditugularik. Bai frantzesetik, bai gazteleratik jasotzen ditugu beharrezko hitzak. Jokabide hau oso kaltegarri da batasunerako. "Estazioa" ta "gara", "negozioa" ta "afera", eta holako milla hitz batean erabiltzea, euskeraren batasuna austea ta zatitzea da. Euskera, prolema hau ez bada aurrez-aurre ikusi naiz, gero ta zatikatuago egingo da. Nahitanahiezkoa dugu hitz berrien hiztegi bat eratzea. Baiña, hontan ere, mintzaira artifizial bat ez dezagun, polliki polliki ibilli beharra dugu, Lafitte jaunaren bigarren kontseilluak esaten digunez:

"Beharrezko hitz berriak ez dira burrustan aurdiki beharko, bainan tantoka, neurriz, maionesa egitean olioa malkoka ixurtzen den bezala".

BATASUNA TA GIZARTEA

Batasuna ez da literatura egikizuna, soillik, gizonak gizonarentzako egitekoa ere bai. Gizarte-lana da, eta dagozkion jokabideak ez bazaizkio ezartzen, poto egingo du berealaxe. Alde hontatik, zer bide erabilli behar dugu idazle ta irakasle gehienak batasunaren aldeko lanean, lehenbailehen, jar ditezen? Mendiguren adiskideak emandako erantzuna honako hau duzute:

"Euskera batu au zabaltzeko aurren-aurrena kanpaña gogor baten bidez giroa sortarazi bear litzake. Neronek ikusi al izan dudanez, asko dira aurre-iritzi, sukaldekeri ta bildur zozoen mende daudenak. Euskera batu onen premia gorria jande guztiari argi ta garbi adierazi bear litzaioke.

Ikasi batzuek euskera batu orren asi-masiak eskeiñi bear lituzkete. Gero, alde guztietatiko oar eta zuzenketak jaso ahal izateko epe bat iriki bear litzake. Eginkizun ontarako aldizkariren bat sortzeak kalterik ez lekarke. Epea itxi bezin laister, jasotako oarrak landuaz, euskera batua mamituko litzake, baita nun eta nola erabilliko dan adierazi ere. Arau oiek onartzen dituztenen firmak eta izenak jaso ta argitaratzeak indar aundia eman lezaioke agerpenari. Nere ustez, euskera batu orri ez litzaizkioke muga estuestuak jarri bear, aditzaz landara barruti zabal xamarra izentatu bear litzaioke iztegi ta gramatikari dagokionean.

Batasuna iristeko X. Gereño'k ANAITASUNA'ko 157'gn. zenbakian eskeintzen dituan bideak erabilliko nituzke. Eboluzioz artu bearreko sailletakoai, euskera batu orretaruntz gerturatzen alegintzeko eskatuko nieke: programa ta artikulu batzuk euskera osotuz emanaz, euskalkiaren barruan aukeraketa egiñaz, liturji tekstoai oiñarri berdiña ezarriaz eta betiko zatiak batuaz".

Egia da, batasuna berez egin beharko litzake, batere indarrik gabe. Baiña gauzak, oraiñarte bezela, bere gisara jarraitzen badute, ez da deus lortuko agian, gaurko gizarte-egituran erakunde ta organizaziorik gabe ezpaita zer egiñik. Eta nolanaiko organizazioak bere indarra behar du izan. Euskaltzaindiak, beharko diran erabakiak hortarako harturik, bere agiriak euskaltzale guztieri jakin araziko dizkie. "Eta erabaki hoiek onartu nahi ez dituztenak? Zer esan pontu hontan euskaltzaindiaren lanari erasoko dioten pertsona ta taldeetaz?" —*galde egingo du norbaitek.*

"Borondate oneko traidoretzat' hartuko nituzke. Kontrakoa demostratu arteino, borondate onez ari dirala euskaltzale guztiak pentsatu nahi dut. Bainan dana dala, objetiboki, holako anitzek gaitz izugarria egiten dutela agirian dago". *(Sarasola)*

"Anarkista, antisozial, Euskalerriaren arerio ta ondatzaille, —*dio Julen Kalzada'k.* Euskalerriak daukon utsik nagusiena ta arrik txarrenaren jabe dira pertsona orreik".

Joan Iraola'k: "Asesinoak. Neretzat etzeok beste itz aproposik".

Hala ere, indarkeria ta legekeria ez du iñork erabilli nahi, arazo hontan. Diktadura ez du iñork onartzen, ez zaharren artean, ez gazteen artean.

"Nik danen gaiñetik, gizonaren nortasuna maite dot eta borondate onez eta kriterio zintzoz jokatzen daben artean, gizonari, aldeko nai aurkako, norberari aiña lotsa zor dautsat. "Eboluzioz" jokatzen bada, ez da iñorentzako anatema bearrik sortuko" *dio Augustin Zubikarai'k.*

"Nire ustez, yokabide au (batasunerakoa) zentzunez artzekoa da ta ez indarrez. Erasotzaillerik izaten baldin bada, bi mota izango dira: alde batetik, beren ustekizunez edo, yokera bat elburutzat dutenak eta bestetik (parkatu beste lau lerro) beren euskalkietan "yainkoturik" dagozanak. Lenengoak sortzen badira ere, laster aulduko dira; olako burruka giroak amaitu ziran. Gaur "txukun" izan edo "arlote" izan ez dugu buru-austerik. Gaur egokitasuna ta eragikortasuna ditugu bultzaille. Bigarren motakoak bildurgarriago dira, baiñan ala ere, oba izango litzake "orioz bigundu, makillaz jo baiño". Edonola ere, auek euskalki barnetarako geldituko lirake ta ontan ez dago kalterik. Eta zaharrak, beste begiramen bat bear dute, ezpait-da errez zartzaroan oituraz aldatzea", *dio bere aldetik Bitor Kapanaga'k.*

"Kritikarako posibilidadeak zabalik gelditu beharko luke, aldaketarakoak ere, beraz. Nire ustean, jakiña! Jeneralki esanda: bakoitzak nahi duena egite hori euskalduron espezialidadea iruditzen zait. Espezialidade gehienetan txar bat, orain arteko jokabideak aztertu ezkero. Erabakiok zearo arbuiatzen dituztenak merezko didaten epaia: bakoitzak bere konzientzia! Baiñan denok herri bat: lastima berriz ere jeinu gehiegi dauzkagula", *Azurmendi adixkidearen iritzia da.*

Egia, erdian izan ohi da. Gaurko egunean beharrezko aginduak eman behar dira. Euskaltziandiaren erabakieri soegiñaz gaude guztiok, Larzabal jaunak dion bezela:

"Nere iritziz, Euskaltzaindiak du, gaur, itzalik andiena, eskuararen batasuna bultzatzeko. Bere babesean dauzkan ikastetxetan, ematen dituen sari eta diplometan eskuar-batasunari buruz artu erabaiak, nai-ta-naiezkotzat ipiñiz.

Erran gabe doa, erabaki horiek beharko dutela izan pixkanaka betetzekoak. Zergatik ez egin, bost edo amar urteren plan bat? Norat eta noizko jo, erakutsi deneri... Nola jo, utzi bakotxa berari".

BATASUNAREN KORAPILLOA, IKASTOLA

"Bide guztiak dira onak noski; onak bakarrik ez, artu bearrekoak. Baiñan denetan garrantzitsuena, ikastola" —*dio Aita Markos Amundarain'ek.*

Eta egia izan. Ikastolarik gabe, alperrikako lana izango da egin genezakean guzia.

Ikastoletan erabiltzen dan hizkuntzak batasuna deadarka eskatzen du, nola ez. Oraingo eskandaluak (ikastoletan bakoitzak bere modura mintzatu ta idazteak, alegia) ezin dezake jarraitu, ez du jarraitu behar. Hauxe bera adierazten digu garbi asko Garate Goyarzun jaunak, Suisse'tik bidalitako erantzunean:

"Alemani'ko laterrietan egon ondoren iritzi ontakoa naiz: aleman-dialektoen eta euskalkien egoerak alkar antz aundia dute: Hemburgo'ko aleman batek ez lioke ia tutik ulertuko dialektoz ari dan (eta dialektoz egiten dute erabat) suizatar bati. Viena'n, Berlin'en, Basilea'n mintzatzen diran dialektoak ia alkar ulertu eziñak dira.

Alare auek danak alkar ongi ulertzen diete. Zergatik? *Eskolan "Hochdeutsch edo Schriftdeutsch" ikasi dutelako. Eskolan* danak, bai Suiza'koak bai austriarrak, bai berlindarrak, *aleman bat eta bera ikasi dutelako.*

Gero periodikoak, aldizkari ta liburuak *eskolan ikasitako* izkuntza ortan idazten dira.

Emen dator auzia: *ezin al diteke gauza berdiña Euskalerrian egin?* Ikastola guzietan euskera berdiña erakutsi?

Jakiña, emen dator korapilloa. Eskoletan *ze euskera?* Izan ere guk ez dugu (emen datza alemanen diferentzia) euskera ofizial bat.

Puntu ontan Euskaltzaindiak zer esan aundia du. Euskaltzaindiak aurten bertan erabaki bear du zein euskalkian alkartu bear dugun.

Ori erabaki ondoren ara zer etapa igaro bearko ditugun euskeraren batasunerako:

1.—Ikastoletako irakasleak (maixu-andereñoak) euskera ori ikasi.
Idazleak euskera ori ikasi.
2.—Euskera ori ikastoletan erakutsi.
3.—Euskalerriko publikazio guziak euskera ortan idatzi".

JAKIN

Garagarrillaren 28-29-30'ean zenbait idazle bildu giñan Ermua'n. Iru ponentzi entzun genituen: J. A. Letamendia'rena, S. Garmendia'rena, Aingeru Irigaray jaunarena eta, azken orduan, Piarres Lafitte jaunarena. Gutunez, beste batzuen artean, Txillardegi'k egin zuen.

Gaia, literatur-hizkuntzaren batasuna izan da.

JAKIN beti azaldu da batasunaren alde, eta, Ermua'n ere, hitzeman zuen, idazle guzien aurrean, Euskaltzaindiaren batasun-erabakizunak aurretiaz onartzen dituela.

Izan ere, batasuna beharrezkoa dugu: Bateko, euskeraren heriotzaren aurrean egiten dugun aukerapena dalako batasunaren hau. Eta besteko, baldin jakintza landu bat euskeraz nahi badugu, batasunik gabe ezin dalako lortu holakorik. Hau da batasunarekiko gure planteamentua.

Oraintxe ere, batasun horri lagunduko diolakoan ematen diogu ba, irakurleari Ermua'ko jardunaldien berri.

DEIA

ZERGATIK, ZELAN ETA ZERTARAKO LITERATURA EUSKERAREN BATASUNA?

Erri bezela iraun izateko, erri-alkarte baten bizi-bidea aurrera eramateko, izakera jatorreri gogoz eusteko, erri batek, bearrezkoa du literatura orokor batekin jabetzea.

Gure izkuntzak, gaurko munduan, eskolarik gabe, Unibersidaderik gabe, agintarien jabetasunik gabe, Estadurik gabe, ez radio, ez egunkari, ez zinema, ez telebista..., ta beste izkuntza indartsuagoak azpijanean ari dirala, ez du bizitza luzerik.

Ta orrek beartzen gaitu bere bizitzaren alde artu genezazkean jokabideak aztertzera.

Eskola ofizialik ez dugu, ezta artzen diran erabagiak euskaldun guzien artean zabaltzeko biderik ere. Baiña idazleok alkartu eziñik ez dugu, literaturako euskeraren batasunaren alde jokatu al izateko. Euskalkiak oiñarri dirala, euskalki guzien gaiñetik eta guzien lokarriz. Batasun guzia lortzen ez bada ere, alkarrengana urreratzeak biderik erdi egingo digu.

Beste izkuntzak aspaldi egin zuten ori (erri aurreratuen izkuntzak). Geienak estaduak beartuta, goitik beera aginduaz. Eta ez zuten olako jokabiderik artuko izkuntzaren kalterako izan balitz. Estadurik ez duen erriak, zibilizazioz aurreratuak diran erriak, beren kabuz artu zituzten erabakiak. Adibidez, katalanak. Eta literatura aberatsago bat izatera lagundu diote, ta izkuntzari berari ere, kultura mallan, bestelako goitasun bat ematen diote.

Literatura izkuntzaren batasunerako oñarriak, erri guztiak, tradiziozko literaturatik eta errien izkuntza biziaren tartetik aurrera joaz egin dute. Izkelkien gañetik indarberritu, izkelki beraien muña izan dedin.

Erri baten lokarriak gordetzeko bear da izkuntza literario bat. Euskalkien indar guzia ere batasun orren bidez eman bearra degu. Ta, batasuna izan dedilla euskalki guzien iturburu bezela.

Euskera, edozein izkuntza bere egoera naturalan bezela, denborarekin aldatuaz, euskalkiak alkarregandik urrunduaz, zatituaz, pikortuaz dijoa, desegin arte. Leenago alkarrengandik urrago zeuden euskalkiak, izkuntza desberdiñak bezela azaltzen zaizkigu gaur.

Euskeraren enborretikako adarrak dira euskalkiak, ta adarrak sano izango baditu, enbor sendoa eta osasuntsua bear du. Euskera batuaren sendotasunak obeto gordeko ditu euskalkiak ere. Alkarri begira jarriaz.

Erri-izkuntzak duten indar berezia gorde bearrezkoa zaigu, noski, Aal dala euskalki-adar bakoitzak bere literatura apur bat bear du, batasuneko literaturaren leen mallak erakutsiko dituana, gorago jo nai duanarentzat bideak irikiko dituana. Baña kulturadun euskaldun batek, euskeran zerbait kulturadun izango bada, bearrezkoa izango du literarioa ezagutu bearra. Baita ere, euskera literario ori izango da beste edozein euskalki obeto ezagutzera eltzen lagunduko duan zubia, ta bide batez erriak alkarregandik geiago sakabanatzen utziko ez duan lokarria.

Erri baten egintzarik nagusienetariko bat da literatura indartsu batekin jabetzea. Izkuntzarendako aberastasunezko bizi-bide berri bat da, kemena ta indarra emango dizkiona. Gure txikitasunean orren bearra degu.

Batasunak, euskaldunok, anaiagoak egingo gaitu. Liburu, idazki, aldizkari ta abarren zabalkunde aundiagoa izango genuke.

Euskaltzaindiak, aurten, bere urre-eztaiak dirala ta, literatura euskeraren batasuna artu du elburu, gaurkoz premiazkoena iduritu zaiolako. Baña Euskaltzaindiak berak bakarrik eraman eziñezkoa da, alperrik izan alkarte orretan euskal idazlerik geienak. Beraz, gure naia da, Euskaltzainditik aparte (naiz ta Euskaltzaindiari bere lan onetan laguntzeko izan) euskal idazle guzien billerak egin, estudiozko billerak, batasunari buruz orain arte egin diran lanak estudiatuaz idazle bakoitzaren iritziak jasotzeko eta aal dala alkartasunera eraman aal izateko. Bertako erabagien berri, "Gerediaga" alkarteak, Euskaltzaindiari emango dio, bere erabakietan aintzat izan dedin idazleen iritzia. Gero ere, idazleak izango bai dute azken itza literatura euskeraren batasunari buruz.

Orain da ordua bakoitzak bere iritzia emateko, orain ordua alkarren iritzien berri jakiteko, "Gerediaga"-k ematen diote idazle guzieri aukera au.

Gerediaga Alkartea

AGURRA

LASUEN'ek

Jaun-andreok:

GEREDIAGA Durango Merindade-aldeko Adiskideen Alkartea, bere eskualdeko komarka-bizitzan ta kultura-baloreen alde lan egiteko sortua da. Orretara alegindua da. Beste aldetik alegindu bear dau Merindadeko erri danak, eskubide bardiñekoak diranez, bere ekintzak erri oneetan egitera. Orretarako, bere Gabonetako Batzar Nagusian erri bakoitxeko ekintzeen planifikaziñoan, emen, Ermuan, Gipuzkoaren muga erri onetan, jardunaldi oneek egitea erabagi eban.

Aurten, orain 50 urte, lau Diputazioen babesean, Oñatin, Euskaltzaindia, gure izkuntzaren Akademia sortu zan. Guk be, gure eskualdea, Euskalerriaren zati bat danetik, urre-eztegu orreetan parte-artzea gura izan dogu. Era bitara, idazleeri, zuori, dei bat egiñaz, berak, Euskaltzaindiak, artu daben asmo berezia, euskera literarioaren batasuna, aztertzeko, iru egun oneetan. Bigarren, era izango da, Domu santuetan, III'gn. Euskal Liburu ta Diskoen Azokan, Durangon, Euskaltzaindiari berari Azoka eskeiñiaz.

Igaz, Zaldibarren antolatu genduzen antzerki-ikastaroak. Bertan erabilli ziran, askatasun guztiagaz, era askotako gaiak, ta uste dogu balio andiko erabagiak artu izan zirala. Bide barri bat izendatu zan nundik eta zelan joan bear eban euskal antzerkiak. Ikastaro orretan gai bakoitza ondo aztertua ta sakondua izan zan.

Gaur asiko dozuen jardunaldi oneek orrela eroateko asmo sendo bat artu daigun. GEREDIAGA Alkartearen izenean eskabide

ori egiten deutsuet idazle danori. Alegindu zaitezte, iru egun oneetan, batasunaren alde lan egiten. Esango genduke euskerazale guztiak, gaur, Ermura begira egongo dirala. Bu dauke itxaropena zuen lanak batasun osora eltzen ez balira be, urreratuko zareela beintzat. Ausartzen naiz, euren izenean, oraindixik txalo beroak eskeintzen.

Eskerrak, ba, danori, etorri zareen guztiori, ba dakizue GEREDIAGA zuen serbiziorako dagoala. Eskerrak Erriko Alkate Onaindia jaunari, batzar-lekurako emon dabezan erreztasunakaitik.

Eta jardunaldiak diranetik, lanean jardun daigun.

Lasuen mahiburukoa

Zenbait iritzi batasunari buruz

J. A. LETAMENDIA'k

Euskalzaindiak bere sorreratik bertatik barne-barnean izan du batasunaren ardura larria. Gaia ez da erreza, batasunaren bideak beti baitira zaillak, dala politikan, dala erlijioan, hizkuntza edo beste edozein giza-probleman.

Euskalzaindia sortu baiño lehen ere saiatu ziran hontan frutu handirik bildu ez bazan ere. 1901'gn urtean Hendaia'ko billera batean batzorde bat sortu zan, Adema kalonjerra buru zala, euskal-ortografia bat egiteko asmoz, eta bertan hurrengo urtean batzar bat Hondarrabia'n egitea erabaki zan. Dena ankaz gora joan bide zan, frakaso lotsagarria izan, sabindarren buru-gogorkeriaz diotenez. Mugaz bestaldekoak arras minduta joan omen ziran hemengoen postura kaxkarra ikusita. Eta hortan gaur arte. "Zalduby"-ren jokabide biguñegia ere Broussain'en gutunetan agertzen da. Joanak joan, bai, baiñan experientziaren erakutsi honek berriro zulo berdiñean erortzetik libra gaitzala.

Lanean hasi baiño lehen oraindaño iragan bidea gogoan behar dugulakoan, nolako iritzi ta jokabideak izan diran azaltzen aleginduko naiz ponentzi hontan. Laburra behar baita, ezin gehiegi esan. Aburu jakingarri asko aipatzeke geldituko da, ta ba liteke behin baiño gehiagotan oker esatea ere. Sakondu nahi duzutenok hortxe duzute "Gerediaga"-k argitaratutako bibliografia. Nik-neuk hortik xurgatu dut ondoren telegrama gisa emango dudan hau.

Eta ekin baiño lehen ohar bat: Iritzi hauek bere garaian emandakoak dira. Ez dut honekin esan nahi gerokoan ere berdin-berdin jarraitu dutenik, sarri askotan bestela gertatu baita.

* * *

1920, 1921. EUSKALZAINDIAREN LEHEN URRATSAK

Garai hartan zenbait billera izan zan Bilbao'n, Donostia'n, Lekaroz eta Ahazparne'n. Mota guzietako aburuak entzun ziran: batzuek bizkaiera behar zala, beste batzuek gipuzkera edo lapurtera, eta ez gutxik batasunera bortxatzea guziz galgarria izango zala zioten. Hona hemen batzu.

NIKOLAS ORMAETXEA

Honek lan bat argitaratu zuen RIEV aldizkarian eta bertan arrixku batzu salatzen zituen legeak ematen hasi ezkero edo euskalki bakar bat hautatzekotan: hizkuntza gramatikaz pobretu, idazleek gatza ta hezetasuna galdu, artifizial gelditu ta besteen euskalkien rekursoak galtzeko arrixkua. Nola jo, orduan, batasunera? Ez dezagula oraingoz legerik eman eta bai askatasuna idazlei, nork bere aldian zein bide hauta erabaki dezan. Hori bai, lokalismuak eta hitz ez-ezagunenak ahalik eta gutxien erabilzeko entseatuz. "Orixe" klasikuen kulturaz ondo jantzita dagoela greziatarren ejenplua aipatzen digu bere iritziaren oinharri bezela. Hauxe egin bide zuten haiek gurea baiño korapillo latzagoa zutela.

CAMPION ETA BROUSSAIN'EN AGIRIA

Mugaz bi aldetako euskal-zale hauek agiri bat osatu zuten 1920'gn urtean batasunari buruz Euskalzaindiaren erreguz. Bilbao'ko batzarrean irakurri zan.

Bi bide ikusten dituzte posible bezela. Bat, lau eta zelaia, literatura-euskalkietatik bat hautatzea. Bigarrena, zailla ta bihurria, bostgarren literarioa sortzea, bat oinharri hartuta besteen aberasgarriekin hornituta.

Ikus dezagun lehenbizikoa:

Mintzairaren bikaindasunagatik zalantzarik ez dago: lapurtera zaharra da gallen. Hau, ordea, bide itxia omen da. Zergatik? Egungo lapurtarrek ere, ez-ikasiek bederen, nekez aditzen dutelako, eta bestaldetik lehen-lehenik euskalzaiñek berek ere ikasi behar lutekelako. Hortaz, egun bizi diran euskalkien artean egin behar da aukera hori.

Hauetan bi dira hautetsiak: gipuzkera (hau batez ere, errezena dalakoan zabaltzeko), eta lapurtera. Bizkaiera ta Xuberotarra urrunegi gelditzen dira.

Baiñan aukera-molde hau teorian zuzena bada ere, bidezko ez da. Anai txikiak hil-zorian uztea bailitzake inbiri ta sumiñen iturburu izanik. Bestalde, edozein aukeratuta ere beiñere elitzake osoena izango. Esate baterako, gipuzkera hauta bageneza pluraleko *-ek* galduko genuke deklinabidean, edo xuberotarren *düke* aditz-jokuan eta asko holako.

Soluzioa, beraz, bigarrena izango da bi euskal-zale hauen aburuz, hots, bostgarren literatura-euskalkia sortzea, eragozpen asko egon arren.

Beste hizkuntza batzutan lan hau "jenio" batek egin izan du bere oldez, bere kabuz, mintzaira deus ere bortxatu gabe. Hemen horlakorik ez dugula, batzarturik, parlamentu gisa egin beharra daukagu.

ARTIFIZIALKERIA

Arrixku hau aitortzen dute, baiñan baita erantzuna eman ere.

Literatura-hizkuntza oro da artifiziala hein batez. Aragoitar batentzat Cervantes'en erdera artifiziala izango da beti oso ederra izanagatik ere. Baiñan gipuzkera hutsa har baledi ere, beiñere elitzake bizkaitar edo napar baten jatorrizko mintzoa izango. Gaiñera, egun arte euskera nekazari ta arrantzale tresna izan dugularik, jakintzarako egokituko bada millaka prestamu ta neolojismu (?) beharko du.

Horregatik, gaitz hau ahalik eta txikiena izan dedin euskalki baten estruktura hautatu beharra dago eta hildo hortan bertan besteen bereiztasunak ezarri. Esaterako: Demagun gipuzkeraren estruktura ta egitura hautatzen dugula oinharri bezela, eta bizkaierako *eroan* txertatzen diogula. Hortara, *daroaz* idatzi beharrean *daroazki* ipiñiko dugu, eta *daroakoz* ordez *daroazkio*.

Dana-dala, holako mintzabidea artifiziala izatekotan —erantzuten dute Campión eta Broussain'ek— eskoletan, liburuetan eta seaskan irakats dedin arte izango da.

MENENDEZ PIDAL

Honek ezagutzen du Campión eta Broussain'en agiria ta ez du onesten. Hizkuntza —dio— gizartearen frutua da. Aise nahas ditezke gipuzkera ta laputera laboratorioan eta besteetatik erantsi, hau ordea sekulan ez herri baten hizkuntza izango.

Eman dezagun, halarik ere, gizaldi berriak ikasi egiten duela euskera artifizial hau. Orduan hizkuntzak bere historia balio ta autoridadea galduko luke, arkeolojia interesa kenduko litzaioke.

Noski, jakintsu honek ez du euskera maite euskaldun dalako, edo-ta herri bat izaten jarraitu nahi duelako; linguista izaki historia ta arkeolojia gauza bezela maite du, hizkuntza dato aztergarri bezela, ta hortarako zenbat eta eboluzio gutxiago izan, zenbat eta zaharrago "konserbatu" hainbat hobe. Ta dudarik gabe bere ikus-moldetik azaldutako arrazoiak oso sakonak eta gogoragarriak ditugu:

"Pues la Academia, en vez de haber continuado, depurado e impulsado el vasco histórico, como es su misión, habría roto bruscamente la tradición en el desarrollo del idioma, para lanzar a éste en una vía nueva; habría quitado a la lengua la mayor parte de su valor y de su autoridad histórica; habría matado a los venerables dialectos tradicionales, consagrados por la adhesión fervorosa de las generaciones vascas de hace muchos siglos, y los habría sacrificado en aras de un producto nuevo, desprovisto de interés arqueológico y sin autoridad alguna para la cultura humana, hecho solo por el pueril interés de poder decir en una lengua exótica lo que muy bien puede decirse en cualquiera de las dos grandiosas lenguas culturales del extremo occidental de Europa".

Gogoan izan gañera, batasunari buruz ari geranean literatura-batasunaz bakar-bakarrik diardugula. Hauxe dalakoan ere euskalkien iraupenerako gerizarik hoberena.

R. M. AZKUE

1921'gn urtean esaten digu berak ere ba dauzkala lan batzu gipuzkeraz: *Urtzuri, Urlo, Aitaren bildur, Ardi galdua* t. a. Baita ere asmo berdiñakin sakel-hiztegi bat. Hala ere "nik nere kabuz egin nuana —jarraitzen du— Euskalzaindiari egun beintzat egiteari

enioke zur ta egoki eritziko. Emeki ta astiro orretara yo, bai; muturrez eta datorrena betorka, ez. Nerea baiño aburu argitsuagoak entzunak dituzue. Izkera banatu bat ez omen da indarka bat izatera iristen". Eta ondoren: "Izkelki-gudu andi bat erakoriko genuke euskaldunen artean. Abertzale-alderdia bera puskatua geldituko litzake; eta au ez euskerari ez Euskalerriari eztagokio... Goazen bai batasunera, baiñan emeki, astiro ziurki".

Gero Azkue'k bere lana argitaratu zuen: "Gipuzkera Osotua" (Euskera, XV-1934). Euskalki hau oinharri harturik, besteen eraskiñekin borobilduta literatura-batasunerako bidea.

Ta honekin amaitzen dugu lehen puntua: Euskalzaindian 1920-1921 urteetan agertu ziran iritzien berri ematea.

* * *

SEBERO ALTUBE

Honek hitzaldi bat irakurri zuen 1946'gn urtean "Congreso de Estudios Vascos" dalakoak Baiona'n egindako batzarrean: "La unificación del euskera literario". Hiru puntutan azaldu zuen arazoa: —Komeni al da batasuna? —Zer ote litzake batasuna —Nola iritxi batasuna.

Ponentzi hontan lehen puntua, arras jakingarri bada ere, alde batera uzten dugu. Garbi asko duzute hau "Gerediaga"-k zabaldutako agirian.

Bigarren zatian gipuzkeraren gaitasuna frogatzeko politika ta jeografia arrazoiak erabiltzen ditu Europa'ko kondairan hizkuntzen batasun-bideak arakatuaz. Material hau J. Vendrys' en *Le langage* izeneko liburutik jasotzen du. Halaxen, herri askok politika batasuna bide dala hizkuntzaren batasuna lortu dutela erakusten du. Euskal-Herria'k ez dauka halako politika-batasunik, beraz, ejenplu hauek ez dute balio guretzat. Ba dira, ordea, bestelako gertaerak ere. Alemania'k eta Italia'k, adibidez, hizkuntzaren batasuna erresumarena baiño lehenago iritxi zuten.

Italia'k —bat bederen aipatzeagatik— XIV mendean batu bide zuen berea, toskanua literatura-hizkuntza bezela hartzen zuela.

Nola hau? Alde batetik idazle bikaiñak sortu ziran Florenzia'n (Dante, Petrarca, Boccaccio...), ta hauek prestutasuna eman zioten bertako mintzoari. Bestetik, jeografiaz Florenzia'ren situazioa oso aproposa zan Roma ta Bolonia artean zegoela. Altube'n iritziz Gipuzkoa'ren erdian egote honek eragin zien giputz etziran beste euskal-zale batzuei ere euskera-mota hau hautatzera (Azkue Bizkaia'n, Naparroa'n Campión, eta Olabide Araba'n).

Ondoren Altube'k gipuzkeraren barne-estruktura ikertzen du. Euskalki hau ez da ez gehiago ez gutxiago besteak baiño, baiñan erdian dagolako antza gehiago du besteekin bai morfologiaz bai hiztegiaz. Onesten du Azkue'ren asmoa "Gipuzkera osotua" teoria bezela, baiñan korapiltsu ikusten du fonetika, lexiko eta batez ere morfolojiaren aldaketa ta sustituzioen atala, hauek hautatutako hizkelgian sakon errotuta daudelarik. Hizkuntza batuan nahi-ta-ez beti galtzen dira beste dialektuen ondasun batzu. Hala ere garbi dago zenbait gauza hartu beharreko dala beste euskalkietatik, esate baterako: pluraleko *-ek, bait-* (kausal honi oso egokia derizkio "zeiñenismuaren" gaitza kentzeko), *-ren* (haurraren garbitzea eta haurra garbitzea ez baitira berdiñak), eta beste...

Iparraldekoak ez dute maite gure garbizalekeria, ta Altube'k dionez gaitzespen hau ez da aberzaletasun eskasiaz, hizkuntzalaritzan gu baiño askoz ere aurreratuagoak daudelako baizik. Mugaz hunaindiko hizkuntza-zaleek autore espaiñolak erabiltzen omen dituzte beren ikasgoetan, ta hauek Europa'koak baiño atzeratuagoak omen daude. Bestela ere —esaten du— langintza guzietan integrismu oro txarra da beti.

Hirugarren atalean batasun hori nora iritxi diteken (pratikan) galdegiten du. Instituziorik ez dugula zailla dala erantzun bat ematea aitortzen du.

Zenbait puntu konkretu ere ematen du euskalkien hurbiltzeko. Adibidez: Bizkaia'n *ditu* ta *dauz* biak erabiltzen dituztelarik, besteekin bat etortzeko hobe dala lehengoa hautatzea dio, berdin ere Lapurdi'n *deraukot, deraukok, derauko* formakin batera *diot, diok, dio* erabiltzen bide dute. Bigarren hauek egokiagotzat jotzen ditu Altube'k batasunaren bidean. Beste horrenbeste egiten du ortografiaz ari dala.

Pratikan batasunerako bideak beti berdiñak izan omen dira. Lehenik era bat aukeratu izan da, eskualde batekoa, maiz hiri

nagusian erabilli ohi zana. Gero irakaskintzan, instituzioetan, predikuetan, agirietan eta beste literatura moldetan zabaldu da. Ta azkenik eta pixkanaka herrian sartu da, ahozko mintzairan. Lehendabizi talde ikasiek ta ondoren, eta beiñere ez erabat (hizkelgiak gordetzen baiditu), herri xeheak.

PIERRE LAFITTE

Bere grameraren aitzin-solasean hukitzen du batasunaren gai hau. Batzuek batasuna reboluzio-bidez iritxi nahi dute, horri ordea, laisterregi ta arriñegi jokatzea dala derizkio. Han lan egiñaz eta pixkanaka lapurtar berria lortu dute (baxenabar-lapurtarra). Hango batasuna urrats bat da batasun osorako. Eskatzen du ere elkarhizketan euskalkien bizitzak zindo jarrai dezala, beren eboluzioaren kutsu jatorra literaturan ixuriaz.

Altube'k esaten zuen orain berrogei urte dirala, erlijioso batek (izenaz etzan oroitzen) *Euzkadi'ko* separata batean hiztegi bat argitaratu zuela euskalki guzietarako balio zuten hitzek osatuta. Entzun dugunez Lafitte jauna 1.500 bat sustraiko hiztegi bat tajutzen ari zaigu batasunerako laguntza bezela. Dudarik ez dugu egiten, lexikografia lanetan bere balioa ezaguturik, aukerako tresna izango dala.

KRUTWIG

Honen "Proposiciones a la Academia" izeneko lana etzan argitaratu. Multikopiaz zabaldu zan zenbait ale.

Bere iritzian euskerak ba du bere literatura-hizkuntza: lapurtar zaharra.

Tradiziorik ez balego, bai, hutsetik hasi behar genuke literatura-hizkuntza hori sortzen. Egon ordea, ba dago, eta beti hizkuntza honen oinharria literatura idatzia izan da. Egiña dago, beraz, batasuna! Hauxe ikasi ta kito.

Krutwig'ek lehengoekin duen alderik handiena hauxe da: batasunaren iturburua egun bizi diran euskalkiak ez izatea, lapurtar klasikua baizik.

Bere influentzia ez da txikia izan Bizkaia'ko eskualdean batikpat.

LUIS VILLASANTE

1.952'gn urtean "Boletin de la Real Sociedad Vascongada de amigos del País" deritzaion aldizkarian argitatutako iritzien berri emango dut. Lan honek "Literatur-euskera lapurrtarr klassikoaren gain eratua" du izena.

Berak dionez —Krutwig'en hildoari jarraituaz —literatura-hizkuntzak tradiziotik edoski ohi ditu bere legeak. Beraz egun mintzo diran dialektu biziei baiño gehiago euskera idatziaren tradizioari begiratu behar diogu.

Tradizio hortan bertan ere batasunik ez dago, lau euskaldi baitaude. Zein hautatu, bada? Zaharrena dalako, idazleen lumeroagatik, bere bikaindasun eta batasunagatik dudarik ez dago: lapurtar klasikua, ta hontan bi autore, hain zuzen ere: Axular eta Joannes Etxeberri Sara'koa.

Hau dena frogatzeko ejenplu ta ohar ugari eskeintzen du kondairatik bakanduta.

Ortografia dala-ta bere aburu konkretuak ematen ditu. Milla modutan idatzi ahal ditekelarik —esaten du—, bat hauta dezagun orontzat berdiña, eta gaiñontzekoak baztertu. Morfolojiaz ari dala, aditza bera ere lapurtar klasikuarena behar genukeala derizkio (Leizarraga ta Detxepare'na ez, oso bestelakoak diralako. Axular'en moldekoak). Sintasis eta joskeraren puntua hukitzen duenean, hontan zaharrak ez dira guziz imitagarriak argitzen du. Joskera makurrak arbuiatzea eskatzen du ta delako *elemento inquiridoa* zuzenki erabiltzea.

Biziki interesgarri da Villasante'k lexikuari buruz diona. Hauxe dugu hizkuntzaren zatirik aldakorrena. Hizkuntzak, ondoen adierazteko datozkion hitzak hautatzen ditu, indar gehien dutenak, eta besteak zokoratu. Eguneroko erabiltzeaz indarra galtzen dutenak baztertu egiten ditu berriak billatzeko. Lau puntu ematen ditu korapillo honen askatzeko:

1.—Euskalki guzietako hitzak hartu, kidekoak lapurteraz ere egon arren: erori-jausi, igorri-bidali, jagon-zaindu... Denak! Alemania'n ere literatura batasuna egon arren idazlea nungoa dan igarri omen diteke sarri.

2.—Bestela da hitz hauek bariante besterik ez diranean; holakoetan lapurterakoa har eta besteak utz: erran-esan, bertze-beste, zaindu-zaitu t. a.

3.—Erabaki beharra dago ere hitzen esan-nahia hauek ezberdiñak diranean, e. b.: Bizkaia'ko *lepo* hitzak Gipuzkoa'ko *bizkarra* esan nahi du, ta giputzen *lepo* esateko *sama* esaten dute. Antzeko zerbait gertatzen da ere *gaur* eta *egun* hitzekin ta beste askorekin... Hau erabakitzeko lapurtar klasikoa har dezagun nehurri bezela.

4.—Kanpoko hitzak diranean eta aspaldikoak dirala herrian ondo erroturik daudenean (e.b.: aingeru, eliza, zeru t.a.) batere zalantzarik ez dago. Berdin ere, kultura hitzak diranean bildurrik gabe erabil ditzakegu, mundu guzian egiten dan bezela, greko ta latiñeko sustraia ahalik eta gutxienik aldatuz.

"Euskal hitza atzerrikoa bezain egoki etxean dugularik —esaten du—, kanpokoa erabiltzen euskerari bidegabe egitea eztenik eztut erranen; baina, bertze aldetik, nere gogoa zeatz expressatzeko, hizkuntzan tajuzko eta erarako hitzik bilhatzen ez ba dut, atzerrikoa zergatik hartu ez?

Esaten du ere nun eta noiz ari geran ikusi behar dala. Garbi ikusten dala, adibidez, Bizkaia'ko baserritarrei hitzegiterakoan bizkaieraz egin behar zaiela.

BAIONA'KO BILTZARRA

1964'gn urteko agorrillaren 29 ta 30'n Euskal-idazkaritzak eratu zuen batzar hau. Lafitte jauna, Monzon, Txillardegi, Aita Altuna, Gabriel Aresti, Xalbador Garmendia, Joseba Intxausti, Rikardo Arregi ta momento hontan gogoan ez daukadan (mugaz bestaldekoak!) beste zenbait euskal-zale ikusi genuen han. Beste batzuek ere —Mitxelena'k adibidez— idaztiz bialia zeukaten bere iritzia.

Hukitu ziran puntuak hauetxek izan ziran: ortografia, deklinazioa, eta aditzaren oinharriko zera batzu. Enoa gehiago konkretatzera, erabakiak 'Jakin''-en eta aparteko horri batzuetan zabaldu baiziran eta egun hauetan ere Xalbador Garmendia'k azalduko du zerbait deklinazioa ta indeterminazioari buruz.

* * *

Baiona'ko Biltzarra oso urrats inportante izan zan. Askok, gazteek batez ere, jarraitu dute bide hori. Gaztediak beste bultzada bat espero du Oñati'ko batzarretik. Oso bide konkretuak eskatzen ditu batasunerako.

J. A. Letamendia

Euskeraren batasuna

SALBADOR GARMENDIA'k

Euskeraren batasuna behar litzakeala egin, batasuna behar beharrezkoa dugula eta holakorik, ez dut aipatuko. Ene ustez, hemen bildu geran guztiok, puntu hontaz bederen, berdin pentsatzen baitugu: euskerak indarrik hartuko badu, batasunik gabe, ez duela hartuko alegia. Beharrezkoa dan ala ez probatzea baiño hobe dala uste dut, gutxi bada gutxi, euskeraren delako batasun hori nola iritxi genezakean, hemen esatea.

Ez dut esan nahi, batasun osoa, hori nekez lortuko baitugu, oraingoz bederen. Baiñan bai, nola eman ditzakegun lehen pausoak, nola egin ditzakegun lehen urratsak. Esan dudana esan, eta badirudi, batasunaren alde orain arte ez duguna ezer egin. Egia esan, larogeiren bat urte daramagu batasunaren alde hitzegiten, baiñan nago, egin diran aldrebeskeriak egin eta gero, batasunaz besterik egin ote dugun; zenbait euskalkiren nahaste bat egin ote dugun. Are gehiago: aspaldi hontan hartu dugun bide asko, batasunaren kontrakoa da arras. Halaz guztiz ere, hamar urte hontan, azken hamar urte hauetan, batasunaren alde zerbait baiño gehiago egin da: Txillardegi eta Gabriel Aresti hor daude lekuko bezala.

Ez dakit denek duketen nik dudan ikusmoldea, baiñan, zenbait urratsen egitea, zenbait pausoren ematea, erreza dala dirudi. Batasunaz pentsatzen egondu naizen guztietan, ber-gauza bururatu zait beti: euskeraz eskribitu dan euskalkietan zer dago bat egiñik, edo hobeto esateko, lehen zertan ziran eta orain zertan dira berdin! Ene ustez, bai baitu garrantzirik, haundirik gañera. Nahiz eta gipuzkerak Zuberoa-ko euskalkiarekin diferentziarik ukan, eta Lapurdi-koak bizkaierarekin, beste alde ere egia baita,

denak dirana euskera, eta beraz, badukete anitz gauza bat eta bera eta berdiñ berdiñak diranak.

Orain-arteko literatura zaharraz ari naiz. Euskal autore zaharrak azter baditzagu, lehen begi kolpean hauxe ikusiko dugu: bai euskalki bataren eta bestearen gramatika legeak eta mugak, oso zeatz fijaturik eta mugaturik daudela. Eta euskalkietan ondo mugaturik dauden lege horietako asko eta asko, denetan berdin berdiñak dirala. Oraindik ere, halaxen gertatzen baita! Oraindik ere honela bada, are gehiago duela berrehun urte. Izan ere, euskeraren batasunaz ari geranean, aurrean ez baiñan atzean, ondo atzean behar genituke gure begiok ondo tinkatu. Aldi igaroetan batasuna egiñago baitzuen euskerak, ezen ez eta azken garaiotan. Urteak pasatu ala, edozein hizkuntzatan gertatzen dan bezala, euskeraren euskalki guztiak alkarrengandik bereixtez joan dira, apartatzez.

Euskerak, nork du ukatuko? eboluzio bat izandu du, eta batez ere, bizkaieraz eta gipuzkeraz izandu du. Euskera literarioaz ari naiz. Eboluzio hori, bataz beste, eboluzio txarra izan da, ondotxo mugaturik zegoen lege asko, ez gipuzkoarrek ez bizkaitarrek, ez baidute errespetatzen. Zuberoa-ko euskalkiak, eboluziorik izan badu ere, eta izan du, zuberotarrek hobeto betetzen dituzte aldi iraganetan mugatu eta fijatu ziran legeak. Lapurtarrek- eta ere, berdin. Nago, ez ote lukean oraingo lapurtar batek Kardaberaz-en eta Prai Bartolome-ren euskera hobeto konprenditzen, ezen ez eta presenteon Zeruko Argia-n bizkaieraz eta gipuzkeraz agertzen dan artikulu asko eta asko.

Hamazazpi, hemezortzi eta hemeretzigarren gizaldietako euskal idazleak irakur baditzagu, garbi ikusiko dugu, orduko eskribitzailleen artean oraingoetan baiño bereizkuntza gutxiago zegoela, eta Mogel-ena eta Duhalde-rena berdiñagoak zirala, oraingo zenbait gipuzkoar eta lapurtarrena baiño.

Ez dezagun esan, herria honela edo harrela mintzatzen dala. Herriaren euskerak egin du kanbiamendurik, ez da dudarik. Halaz guztiz ere, Gipuzkoa-n herriak egiten duana duela berrehun urte Maixterre-k egin zuenagandik urbillago dago, oraingo zenbait euskal idazleen euskera baiño. Zer da gertatzen? Asko eta asko hitzen ederrari edo itsusiari gehiago gaude, hizkuntzaren mamiari eta gramatikari baiño.

Zenbait etxenplu emango dut. Honatx bat txiki txikia.

Har zagun 'artikulu" hitza. Euskal eskribitzaille denek ez bada ere gehienek, (Larramendi-k artikulo idatzi zuela uste dut) beti eskribitu dute "artikulu" eta ez 'artikulo". Ez da aspaldi oraindik, "artikulu fedekoak" ikasi genituela. Puntu horretan, euskeraz batasuna eginik zukean; zukean, diot, egungo egunotan, 'artikulo" irakurtzen hasiak baigera.

Euskalerri-ko idazle guztiek ez bada ere gehienek idatzi dute: zuan, duan, duala, genuan, neskarik, aitarik, birjiña, makilla, txapela, anaia, gauza, gauza asko ikusi dut, astakeria eta abar eta abar... Orain gera hasi, zun, dun, dula, genun, neskik, aitik, birjiñ, makil, txapel, anai, gauz, gauz asko ikusi ditut, astakeri, eta honelako astakeria asko eta asko idazten. Euskeraren batasuna nahi ahal dugu?Egiñik zegoena ez zagun beraz apur, apurtu! Ez dezala iñork aipa, herria horrela mintzatzen dala eta ez dagoela beste erremediorik; herriarekin batera jo behar dugula; eboluzioa ezin bestekoa izandu dala. Horrelakorik esaten duenak, beste honekin bukatzen du gehienetan: "euskera ez da absolutu bat", baiñan momentu horretan, bere iñozukeriaz eta ez jakiñaz besterik, ez du agertzen.

Egia esan, puntu askotan gaiñera, herriak ez baitu horrelakorik esaten: herriak makilla bat, makillaka esan ohi du guk uste baiño maizago, eta ez makil eta makilka; artikulu esaten du eta ez artikulo; eta Euskalerri-ko euskaldun askok, oraindik ere, astakeria bat, bost egia, hamar ohia, aitarik, amarik, birjiña, neskatxa bat eta esaten du. Zein da gure herri hori? Bizkikoa eta Gipuzkoa-ko bakarrik, ala ez dira berdin euskaldun Nafarroa-n, Zuberoa-n, Baxenabarre-n eta Lapurdi-n bizi diranak?

Uztagun orain herria. Literatura-batasuna nahi badugu, orain arteko literatura aztertu behar da. Herriaren hizkuntzan nekezago aurkituko dugu batasunerako biderik. Baiñan literaturan bai! Hizkuntzaren legeak ondotxo finkaturik daude orain arte egin dan literaturan. Euskalki bakoitzaren legeak, mugak eta zeaztasunak ondo ezagut ditzakegu. Lege guzti hoiek har eta euskalki guztiek zer duten bat, euskalki guztiak zertan diran bat ikas badezagu, eta leke hoiek betetzen baditugu, euskeraren batasuna ardiesteko lehen pausoa emanik, lehen urratsa eginik dukegula, uste izatekoa da.

Nik, zenbait puntu proposatuko dizuet. Puntu hoiek onartu behar diran ala ez zeurok erabakiko duzue. Proposatu baiño lehen

gauza bat esan behar dizuet: esango dudan asko eta asko Txillardegi-ri ikasi diot, hots, harek argitaratu zuen liburuxka batetik hartu dut. Orain arte eman dudan zenbait ideia ere eta gero emango ditudanak, zenbait bederen, L. Mitxelena-ri zor dizkiot. Ideiak bakarrik ez, zenbait aldiz hitzak ere bai!

HITZAK

Zein hitz erabil? Erantzun egoki bat ematea, ez da errez. Nere iritzia emango dut. Ba dakit, puntu hontan, adiskide bezainbat etsai izango dudana. Halere, ez dezaket bazterrean utz, puntu hau.

Oroit gaitezen, euskeraren batasunaz ari gerala.

Mintza nadin lehenik, euskal literaturan erabili diran hitzez. Jakiña da, ez ditugula hitz guztiak berdin maiz erabiltzen. Ba dira egunero erabiltzen ditugunak, iñoiz behin bakarrik erabiltzen ditugunak, ba dira "hapax legomena" diranak, ba dira zaharraren zaharrez fosilizatuak diranak, sekula gehiago ez herriak ez eskribitzaileek erabiltzen ez dituztenak, azken larhogei urte hauetan idatzi duten zenbait eskribitzaillek salbu.

Lehenik: Zaharraren zaharrez fosilizaturik dauden hitzak.

Zaharraren zaharrez usteldurik dauden hitzak, hoien ordaiñik balego eta ordain hoiek euskaldun autoreek noiz-nani eta maiz erabili badituzte, zaharraren zaharrez erdi lizundurik dauden horiek, baztertu egin behar dira. Ejenplu bat: asketsi. Ez dakit zuzen, neolojismo bat dan ala ez, ala hor nunbaiteko zokoren batetan esaten zan hitzen bat dan. Demagun hitz zahar bat dala; baiñan, euskal literaturan gaurregun arte sekula sartu ez dan hitza. Beste alde, "asketsi" esateko, euskal idazle guztiek, beti "barkatu" erabili dute. "Barkatu" hau, latiñetik dator zuzen zuzenik. Nahiz eta latiñetikakoa izan, menderen mendetan erabili dan "parkatu" hitz honek ez ote du sekula idatzi ez dan "asketsik" hainbat eskubide presenteon ere erabil dezagun? Eta batez ere, batasunaren izenean, orain arte euskalki guztietan erabilli dan "barkatu, parkatu" ez ote genuke hartu behar eta beste hori baztertu?

Bigarrenik: "Hapax legomena" diran hitzak.

Ba da horrelakorik euskeraz. Behin bakarrik erabili diran hitzak, dakigunez bederen. Zenbait aldiz ez dakigu zuzen zer esan

nahi duten. Nere ustez, hapax hoiek ordaiñik badute, nahiz eta ordain hauek latiñetikakoak izan, erabili egin behar dira eta beste hoiek baztertu.

Ikustagun zenbait adibide: 1596-ko "refranes y sentencias-etan", ba dator halako bat. 302-garren errefaua da: "Azaga onic estau mandazaic". "Postrimería buena no la tiene mulatero" itzuli zuen orduko itzaltzailleak; Azkue-k, honela itzuli zuen bere hiztegi ederrean: "ningún arriero tiene buen fin". Demagun orain, "azagak", azkena, bukaera, esan nai duela. Demagun, oso hitz zaharra dala eta beste hok, bukatu batez ere, askozaz ere berriagoak eta latiñetikakoak. Gauza bat badute beren alde: autore gehienek erabilli dute "azken" hori, "bukatu" ere ez gutxik, "azaga" berriz, nik dakidanez, iñork ez. Euskal literatura guzti guztian sarturik dago "azken" hitza; puntu hontan bederen, batasuna eginik dugu; zer dala eta hasi behar dugu orain, batasunaren izenean, sekula idatzi ez dan hitz bat berritzen? Berdin gertatzen baita beste hitz batzurekin!

Hirugarrenik: Hitz berriak, neolojismoak alegia.

Leku ederrean sartu naiz. Labur: behartik gabe eta batasunaren izenean, ez dezagun hitz berririk sor eta sar. Etzagun gure hiztegia *murrizt*!

Norbaitek galdegin dezake: beharrik badanez, nola jakin liteke? Ideia bat azaltzeko, euskal hiztegiak hitzik ez balu, orduan, konposizioaren bidez, edo, hitz berriren bat edo beste sor(tu) diteke noski. Baiñan, kontuz! Nehurri bat behar dugu. Izan ere, Fisica, Quimica, Aritmetika eta Filosofia eta Teolojia eta abar euskeraz ipiñi nahi bagenitu, eta jakintza sail horietan diran hitz guztiak euskera "garbian" ematen has bagintez, gaixo euskera, eta gaixo euskaldun matematikoak eta fisikoak eta kimikoak eta filosofoak! Filosofia ederrik ikasiko dute! Aragizko eta hezurrezko euskaldunez ari naiz, ez gure hasmamenean sor genitzakean ametsezko euskaldun iratxo horietaz! Oraingo euskaldunez ari naiz, hogei eta bost urteren buruan sortuko diran euskaldunez.

Bai baita besterik ere. Gauza agiria da, euskal hiztegian aurkitzen dan hitzetatik asko eta asko, millaka beharbada, latiñetik eta erromantzetatik eldu zaigula. Hitz horiek, nahiz eta latiñetik edo edonundik datozela, euskal hitz dira, euskal literaturan maiz maiz

erabili diralako, euskaldun guztiek erabili dituztelako, menderen mendetan erabiliaz gozoz eta urriñez bete zaizkigulako. "Hitz hau latiñetik eldu da; ken dezadan eta kito!" Gure zozokeriak ez bide du nehurririk! Hola has bagintez, egia esan, hitz gutxi geldituko da gure Hiztegian!

Batasunaz ari gera, eta hain zuzen, puntu honetan batasunaren kontra egin diranak, ez dute izenik merezi ere.

Gauza agiria da, 'santo" esateko, euskaldunok, euskaldun guztiok, eta euskal idazle guztiek, 'santu" eta "saindu" idatzi dutela beti. Puntu horretan batasuna eginik zegoen. Ez zan nere harridura txikia izandu, euskeraz meza emateko, berriki euskaldundu duten "Confiteor-ean", "Pedro donea, Pablo donea" eta abar ikusi nituanean! Beharezkoa ote zan? Lehenik, nere ustez bederen, izen Nagusiei loturik bakarrik erabili da "done" hori. "Dome Saintu, Dome Santore, Jondoni Matiu, Jondoni Jakue eta hola. Baita Dona Maria ere. Beste alde, hitz hori latiñetik dator: dominus, domine, domne". Zer dala behar zan "done" idatzi eta ez, beti eta beti euskaldun guztiok esan eta eskribitu dugun "santu, saindu"?

Berriz esan: Latiñetikako eta erromantzetikako hitz guztiak kentzen has bagintez, ondotxo murrizturik geldituko da gure Hiztegia!

Begira zer gertatu zitzaion Olabide-ri.

"Inguru" hitza. Euskalki guztietan erabili eta erabiltzen dan hitza. "Inguru, ingürü". Latiñetikakoa da, ez erromantzetik datorrena. Bere "Idazti Deune-an" ez zitekean sar litiñetikakorik ezer. Zer egingo eta, ustez eta noizpait Zuberoa-n edo ez dakit nun "inguru" esateko "baranoan" esan zalako, 'barano" hitza erabili zuen. Gaurregun badakigu, L. Mitxelena-k esanik, "inguru" hitza beste hori baiño askozaz zaharragoa dala. Izan ere, "inguru" latiñetik bai datorkigu, "barano" berriz, erromantzetik, bearnesetik, kaskoiñetik!

Zenbat horrelako! Kanta, kantuz, kantari, kantore, ez dira ezer askorentzat. "Abesti" esan behar da, ustez eta euskaldunagoa baita. 'Mutil" latiñetik dator, putillum; "izara eta atorra" mozarabearen ondakiñak dira, "atondu" atuendo-tik dator, "akullu" latiñetik, gorputza ere latiñetik, soiña griegotik, aita gotikotik, ama etruskotik eta lepoaren gaiñean daramagun buru hau, orain dala millaka eta hamar millaka urte Groenlandia-ko ugartean hil zan

dialetutxo xarmant eta zoragarri batetik. Erauz ditzagun euskal liburuetatik ehunkada euskal idazleek idatzi dituzten latiñetikako hitzak, bazter ditzagun erabiliaren erabiliaz gozoz eta urriñez beterikako erromantzetikako hitzak, eta bete ditzagun gure liburuak eta errebistak askotan ez aitarik ez amarik, ez okhilasorik ez tokabilasorik, ez kolorerik eta ez gozorik duten euskaldun hitz garbiez, horrela egingo baitugu euskeraren batasuna. Zer nahi dugu: euskeraren garbikeria, ala euskeraren ona, euskera pizt dedin, euskera bizi dedin?

"Eliza" hitza ez da ezer eta "txandona" sortu da; "abade, apaiz, apez" deus ez da, eta "jaupa" sortu zuten; "aingeru" euskaldun idazleen hitza ere ez da ezer eta bere lekua beste batek bete behar zuen, eta "gotzon" asmatu zuen baterен batek. "Gogo"-tik aterea omen da, eta gogo honek, "espiritu, mente, pensamiento, deseo, memoria, gusto, intención, voluntad" eta nik dakita zer gehiago, esan nahi omen du. 'Gotzon" horrek pekatu txiki bat badu halaz guztiz ere: lehenik, oraintsu arte ez duela iñork erabili, eta "gotzon"-ek "ángel" adierazten badu, berdin adieraz dezakela Jaungoikoa, hori dena baita Jaungoikoa; gogo onekorik iñor ba da eta, Jainkoa baita. Ez ote zan askozaz ere zeatzagoa eta hobeto mugatutakoa, "aingeru" euskal hitza?

Hitzez ari baigera orain, berri horiekin sartu gabe ere, badugu aski lanik orain arte erabili diranak eta hilzorian dauden asko ta asko, berriz pizten. Hori bai, hori da egin behar dana: euskal literaturan millaka aldiz erabilli diran eta orain galduxe daudenak, berriz pizt ditzagun.

Ba da euskeraren batasunaren kontrako beste izurrite bat ere. Teoriak dira. Honela behar omen luke, horrela hobe ote litzakean, ote eta omen, hemen gabiltz oteka eta emenka arraiokeria asper eziñean. Orain arte honela idatzi omen da eta esan ere esan omen da, baiñan, datoak datoen gaiñezka pillatuz, —behaiek sortu dituzten datoak pillatuz jakiña— berebiziko teoriak sortu dizkigute.

Horietako bat kontatuko dizutet. Pazko-kari Donostia-ko Diputazioa-n bildu giñanean, Luis Mitxelena-k zigun. Negargarri ez balitz, parragarri litzake egiazki. Teoriak eta nik ez dakit zein lojikak eskatzen duelako, bizkaieraz eta indikatibo presentean, orainaldian, "dautso eta daust" idatzi behar omen dira. Teoriko horrentzat betidaniko "deutso eta deust" hutsaren urrena dira.

Belar txarrak balira bezela atera eta sutara bota! Jainkoa-ri eskerrak, hizkuntza bat jakintza enpirikoa da eta ez teorikoa.

Beste bat. Garibay-ren errefrauetan ageri da honoko esaera zahar hau: "Açean diagonac, usean diago". Los que hieren detrás hieren en vacío. Tras en dize el que, vazío en dice". Entzun ezazue zer dion J. Urkijo-k: "Las formas diagonac y diago ofrecen dificultad, pues no conozco ningún verbo que signifique "herir", ni "decir", al que puedan corresponder.

Ez dakigu beraz zuzen,, zer esan nahi duenik ere. Hauxe dakigu: ustez behintzat, behin bakarrik ageri dala euskal literatura guztian, eta "decir" esateko, "diot" erabali dugula. Ba ote da arrazoinik aski, "diot" hori baztarreratu eta "diago" idazten hasteko? Baiñan, baiñan... "diot" horren ama eta aita, gurasoak alegia, 'diago" hori dalakoan, "diago" idatzi du duela gutxi euskaldun idazle on eta sonatu batek.

Hitzei buruz beste zerbait ere esan nahiko nuke. Azkenaldi hontan, gipuzkoar idazle askok, lapurtar edo xuberotar hitzak erabiltzen dituzte beren artikuluetan. Berebat bizkaitarrek. Ez da gaizki! Halaz guztiz ere, nahasterik sor ez dedin eta beste euskalki batetako hitzak zuzenez beste erabil ez ditzagun, lehenik: behar genituke ondo baiño hobeto ezagutu, norberaren euskalkian erabiltzen ditugun hitzak, hots, norberaren euskalkia. Bigarrenik: behar dira beste euskalkiak ere ahal dan hobetoenik ezagutu. Batasuna egiten ari geran arabera, gauza segurua da, zenbait euskalkiren zenbait hitz, hartuko dala eta beste zenbait berriz, utziko. "Despertar" esateko, seguru asko, "itxartu iratzarri" hartuko edo da, eta "esnatu" alde batera utziko. Berdin "helecho' esateko: idea iratzea hartuko edo da eta garoa bazterrean utziko. Ez dut esaten horrela gertatuko danik, baiñan horrela gertatu behar litzakeala edo bai, hori baita "lojikoena". Beste hitz asko eta asko ere erabiliko dugu, nahiz eta norberaren euskalkian ez erabil. Baiñan, kasu! Ikas ditzagun hitz horiek zuzen erabiltzen. Nola ikas? Hiztegi batetan ikus eta kito, esango du norbaitek. Ez da gauza segurua Euskal-Herri guztia alderik alde pasa eta euskalki guztiak ikas, baiñan, oso gutxik egin lezateke hori. Ba da beste biderik!

Nere ustez bada hemen gauza bat, sikolojikoa dala edo esango nukeana. Neri behintzat horrela gertatzen zait. Nik, hitz bat, ehundaka aldiz ez badut irakurri, ez badut entzun, nere barnean

hitz hori ez bada erabat itsatsi, ez dut erabiliko. Ezin nezake erabili! Norberaren estiloaren guztiz kontrakoa dala erabiltzen, iduritzen zait. Ez onenean, gaizki erabiliko nukealako, hitz hori nerea egin ez dalako baizik! Horregatik, esate baterako, lapurdi-ko hitz bat erabili nahi dalarik, Iztegi batez baliatzea eta Iztegiaz bakarrik baliatzea, aldrebeskeria bat dala iruditzen zait. Baiñan, bada beste bide bat: liburuak. Euskalki guztietan da, euskalki horiek ikasteko libururik, onik gaiñera. Irakur ditzagun liburu hoiek. Nik bizkaieraz irakurri nahi dudanean, eta euskeragatik bakarrik irakurtzen dut bizkaieraz, Prai Bartolome irakurtzen dut, eta Mogel, eta Iturzaeta, eta Pedro Astarloa, eta Añibarro. Gipuzkeraz ere ba da onik: nik besteak beste, Kardaberaz eta Asteasuko erretore Agirre ditut maiteenik. Naparrek hor dituzte Mendiburu eta Elkano-ko Lizarraga. Mugaz bestaldekoek, anitz autore dute, anitz eta anitz, gaiñera, biziki onak. Ez dut oraingorik aipatu: ez da dudarik, hoiek ere irakurri behar dirala, horien artean ere bai baita zenbait, oso ona danik. Besteen euskalkietako hitzak eta espresioak ikasten baditugu, batasunaren bideak asko erreztuko dira.

Baiñan, hitz kontu hontaz aski dut, eta Deklinazioaz hitzegingo dizuet orain.

Eta hitzaldiaren ondoren, S. Garmendiak proposaturiko 8 puntuok banan banan aztertu dira, boto-bidez erabakiaz zein onartu ta zein baztertu.

Literatura batasuna egin nahi genuke. Euskeraren gramatika legeak ondo mugaturik arkitzen dira euskalki bakoitzean. Lege asko eta asko, euskalki guztietan berdin berdiñak dira. Berdiñak diran lege horiek onartuaz, euskeraren batasunari indar haundi bat emango genioke.

Lehenik.—1964'ko udan Baiona'n onartu zan "Deklinabidea" berriz onar dedin eskatzen dugu.

BAI.

Bakar-bakarrik *-kin* eta *-gaz* atzizkietan sortu da eztabaida, alegia, eta biak erabilli beharko ditugun ala *-kin* bakarrik. Bizkaitarren arteko prolema danez, aukerakera hori bertako euskalkikoen-

tzat utzi da. Eta azken erabakia hau izan da: 10'ek *-kin* autatu dute, eta 1'ek bi erak.

2'garrenik.—Deklinabidea ondo eramateko "a-e" organikak duen garrantzia ikusirik, lehen euskalki guztietan eta oraindik ere zenbaitetan bizi bizirik dirauten hitz organika guztiak onartu behar lirakeala, uste dugu.

BAI.

3'garrenik.—Nahiz eta herriak, zenbait aldiz, hitz anitzen lehen bi "aa, ee, ii, oo"-ak baztertu, euskal literaturan orain arte beti erabili diralako eta oraindik ere askok eta askok darabilzkitelako, denak onartuko dira.

BAI.

4'garrenik.—Aditzaren indeterminazioa. Ahal dalarik, hemendik aurrera, indikatiboan ez, beste modu guztietan, "etor zitekean, arrapa zak, ikus diteke, sar adi" eta abar, orain arte ohitura izandu dan bezala, idatziko da.

BAI.

5'garrenik.—"a-e" eufonikaz idatziko dira, orain arte horrela idatzi diran berbo forma guztiak. Honela: "nu*e*n' zitek*e*an, zekiokean" eta abar, eta "nun, non, niin, nendun, ziteken, zerkioken" baztertu egingo dira.

BAI.

6'garrenik.—Literaturan erabili diran hitz edo berbo formei, ezer berririk erasten ez dien lokalismoak, baztertu egingo dira. "Hauek, gauean, hamarrean, ganadua, premia" eta abar idatziko dira, eta "habek, gabean, gaban, hamarrian, ganaduna, premiya" eta besteak baztertu egingo dira.

BAI.

7'garrenik.—Indeterminazioari datxezkon aditzak, singularrean idaziko dira. Honela: "gizon horrek asko daki; zenbat

kanika dago?; edozein gauza jaten du; Perian gizon gutxi zan, orain dala urte asko".

EZ.

Numeraletan hala egitea gomendatzen da.

8'garrenik.—Indeterminazioan, "hau, hori, hura" demostratiboak, singularrean idatziko dira. "Hamabost egun *hontan* ez du ebirik egin". Bainan: "*Azken* hamabost egun *hauetan* ez du ebirik egin".

AUKERAN utzi da, bakoitzak nahi duen erara.

Salbador Garmendia

Euskal-joskera

IMANOL LASPIUR'ek

GEREDIAGA ALKARTEA'k antolatutako Ermua'ko batzar ontarako ponentzia bat gertatzeko esan didate, baiña berandu esan ere, arraioa. Oso berandu izanik eta ogibide-lanak danborarik ematen ez didalako, ez zait errex izan ganorazko gauzarik antolatzea. Ala ere zerbait egin nai eta zer egin jakin ez.

Euskal aditzari buruz zeozer moldatzeko esana zait, baiña, euskerak duenik enborrik gogorrena aizkoratzeko eman nai didate ta ez naiz ortarako gai, ez almanez ez denbora aldetik. Zerbait egin bear ala ere, baietza eman bai dut eta, orra or, euskal-joskera dala-ta ekin diot. Ortaz, ona emen nire zera:

Aspaldi ontan euskal-joskerari garrantzi gutxi ematen zaiolakoan nago. Asko mintzatu da ori dala-ta; bai, egin da. Batak eta besteak bere uste-izateak eman edo idatzi ditu. Ala ere ez du oraindik Euskaltzaindia'k orri buruz erabakirik artu edo, nolabait ere araurik eman eta, jakiña, euskal-joskera ere idazleen batasun paltan arkitzen zaigu.

Emen alde batera omen darabilgu; Auñamendi'z bestalde ez ei du emengoari ematen diogun zorrozkeririk. An eta emen bai bide dira ezberdintasunak; idazle gazte berri batzuen ustez, ordea, ori ez da gaur, euskera barruan, ia aintzakotzat artzeko ere prolema eta bakoitzak nai bezela idatzi omen dezake... Gauza asko esan da, baiña batasun baten ezean gauden ezkero, zerbait anarki ba dugu gure artean eta erabaki barren batzuk artzeko premietan gera.

Joskera edozein eratan erabiltzeak eta, batez ere euskal jenio gabe, ez digu, iñolaz ere, pizkortasun eta flexibilitasun bat ematen, ez orixe! txirotasuna baizik.

Ondo dakizutenez, izkuntza bakoitzak bere joskera du eta ausartenak ere ondo zaintzen du gaiñera: Erderazko "tiene una mala pata" eta "tiene una pata mala" gauza ezberdiñak dira. Ingelesak "fat man" esango du ta ez "man fat", au da, bere jenioz "gizen gizona" ta ez gizon gizena (guk diogunez).

"This is my father" ingelesez, "este es mi padre" españeraz eta "celui-ci est mon père" prantzeraz joskera berdin-berdiña dute, baiña ez ordea euskeraz:

Euskerak *"Au nire aita da"* esaten du, beste iru oiek "au da nire aita" diñoten bitartean.

Guzti au elementala da, esango didazute. Egia benetan, elementala baita. Ala ere "au da nire aita"-lako joskerak erruz ditugu euskal idazleen artean eta, zoritxarrez, geizki, "au nire aita da" ta "au da *nire aita"* ez bai dira berdiñak, zentzun ezberdiñak dituztelako. Geroago aztertuko ditugu.

Idazle zaarretan edan bearra omen dugu ta, egitan dugu. Idazle zaarrok, euskaldun idazleek alegia, erderaz egin zituzten beren karrerak eta euskeraz idazteari eman ziotenean erdal kutsuz egin zutelakoan nago, sarritan, joskera ori dala-ta. Ezin ulertu dut bestela, esate baterako, Mogel'en bere PERU ABARKA'ko erdal-kutsu au:

Maisu Juan'en galdera:—Zeinbat opiziale dira?
Peru'ren erantzuna :—*"DIRA lau biargiñ"*

Edo AB'k galdetzen dionean: "Zer esan gura dau sugiak?
Peru'ren erantzuna:—*Sugia DA* subagia..."

Erantzun auen joskera erdalkeriz egiñak dira, nire ustez, eta Mogel'ek ao-itzez egoki ta ondo erabilliko bide zuen arren joskera ori, idaztean laban egin zuen, nolabait ere. Erantzun oiek jator izateko, izan ere, onela bear lirake izan "lau biargiñ dira" eta "Sugia subagia da", baiña ez Mogel'ek Peru'ren aoz esanak bezela.

Frase oietan gauza berdiñak esan nai dirala? Ori besterik da! Baiña ez dira, ordea, erantzun-nai igualak. Eta ori ez diñot erdal kutsuz egiñak diralako, ez, erderaren kutsu bearrik ez dugulako joskera aberatsa erabiltzeko eta, euskaldun petoentzat, batera edo bestera erabiltzeak, bi erantzun-gura ezberdiñak diralako.

Orixe bera neroni ere gertatu zait eta oartu nintzanean arriturik gelditu nintzan.

Nire ama baserrikoa da eta gerra ondoren zerbait españera ikasi antzean-edo egin du. Aita, baserritarren semea eta orduko eskoletan ziran zigorrez erderaz moldatua. Ni aurtzaroan denbora aldi aundia baserrian egiña naiz eta gure etxean ez da iñoiz euskera ez besterik itzegin. Nire kaskarrak ba du, ortaz, zerbait euskal jenio.

Ala ere, eta emezortzi bat urtez euskeraz idazteko egarria sortu zitzaidanean, ura nekegarritasuna, ura idatzi eziña! Ba zirudien erdal-metroz euskal jantzia egin bear nuela. Geroxeago, Bilbo'ko neskatxa batekin kartaz izan nituen artuemanetan izan zan, ain zuzen ere, nere okerraren azaleraztea. Alkarri utsak artzea zan gure erabakia eta bai benetan arritu nintzala berarekin. Nire utsik geienak joskerarenak ziran! Bera euskaldun berria zan ordea; ni seaskan ikasten asia, bizitza osoan euskalduna. Ala ere, ondo aztertu eta beti berak zuen arrazoia, eta aoz erabiltzen ez nuen bezela nerabillen, idazketan, dalako joskera au. Arritzekoa!

Oker ori, beti erderaz idatzi izatearena, noski. Erdal-metroz ezin euskal jantzia egin. Orixe bera gerta zitzaion, nolabait ere, Kredoa eta Aita Gurea'ren asiera euskeratu zuanari. Zergaitik ez "Zeruetan zauden Aita Gurea..."? Kredoa'ri buruz, ordea, zer esanik ez. Erdal kutsua, noski.

Ez dizutet ezer erakutsiko, ezin dut-eta. Ala ere zerbait agertu nai dizutet eta, guztion iritziz, batasun bide batera abiatu gaitezen, Sebero Altube jaunak esanak esanarren ez bai gera oraindik bat etorri.

* * *

1.—Lenengo, demostratibuak aipatuko ditut: AU, ORI, URA (A), AUEK, OIEK, AIEK.

—Etxe ORI..... Etxe OIEK
—Etxe aundi ORI..... Etxe aundi OIEK
—Etxe berri aundi ORI.... Etxe berri aundi OIEK
—Gizon petral AU ..... Emakume berritsu oiek.

Demostratibua beti atzean joatea da, dirudienez, euskeraren zera. Ala ere Eibar ta inguruetan onela esaten da beti:

ORI etxe ORI (etxiori); *AURA* gizon*A; ÓNEK mútillOK ORRÈK gizon ORRÈK; AU* andri*AU* eta abar.

PASIBUAN	*AKTIBUAN*
AU gizon-AU	ONÈK gizón-ONEK
ORI gizon-ORI	ORRÈK gizón-ORREK
A (AURA) gizon-A	ARÈK gizon-AK
ÓNEK gizonOK	ÓNEK gizon-OK
ÓRREK gizon-OK	ÓRREK gizon-OK
ÁREK gizon-AK	ÁREK gizon-AK

Au, nola-nai ere, lokalismo utsa da, eta Gipuzkoa'ko zenbait idazleek begiak bere gaiñean jarririk indartsua dala ere esana dute eta zerbait idatzita ikusi dut. Ez dira, orden, erabilgarriak. Forma auen zentzuna indartu edo egiten dute eta aspaldi batean, seguraski, "intensibu" antzera ziralarik, gaur ez beintzat, beti-beti eta edozer esan erazteko era berean darabilzkigu-ta. Geiago indartu naiean, adibidez, onela diñogu Eibar'en: *ORIXE gizonORI.* Atzekaldean dijoazten demostratibuak izenari lotuak daude ta bat egiten dute. Ala ere, zer erabaki, ontaz?

2.—Esakun edo frase barrena ikusi dezagun:

—AU ZALDIA DA	*PARIS AUNDIA DA*
1 2 3	1 2 3

1.—Adi-jabe edo sujetoa
2.—Atributua
3.—Aditz edo berbua.

Orixe, bada, gure erregla barren, frase uts eta laburrenetan.

OARRA: Baiezko fraseetan eta ezezkorik ez dan guztietan, aditza atzean jartzeko moldaketa du euskerak. Ala ere, batzuetan, zentzun bereizi bat ematearren edo arritasuna agertzeko edo alako indar bat izatearren, onela esango genituke:

—Ori DA zaldi izugarria, ori!
—Ori DA nik esaten nizun mutilla. (*Orixe* bera)
—Ura ZAN izatekoa!
—Biar NATORKIZU etxera.

Baiña esakunak zentzun edo indar berezi bat eskatzen ez digun bitartean onela izango lirake goiko fraseok:

—Ori zaldi izugarria DA.
—Ori nik esaten nizun mutilla DA.
—Biar etxera NATORKIZU.
—*Gizona DATOR* ta ez *DATOR gizona.*
—*Polita DA* ta ez *DA polita.*
—*Biar goizean ETORRIKO DALA* ta ez *ETORRIKO DALA biar goizean.*

Datorren frase au EUSKERA aldizkaritik jasoa dut (IV-1959-179'garren orrialdean):

"*Dio* nola Azkue-rekin ere aztuak bizi geran. *Dio,* gañera... Dio eztakiala eskatu dan..."

Erderazko "dice" da au, garbi-garbi; erderazko aditzak aurrenik joateko duen zerak eragindako kutsua.

Ez esan neri joskera auek erderatikakoak diralako burrukatzen ditudala, ez! Erderatik arturik gure joskera ezer jazten ez dutelako baizik. Nire ustez ez da ori aberastasuna, txirotasuna baiño. Esakun labur auetan bertan, era bi auetara alegia, au da, aditza aurrean edo atzekaldean erabiltzeak bi esangura ditu, baiña bakar ortara lotzeak euskeraren gogoa mozten eta txirotzen digu. Ortan nago.

Euskaldun jator batek ez du iñoiz "ni naiz Joxe" esango, Joxe nor dan galdetzen ez dan bitartean beintzat. "Ni Joxe naiz" esango du beti. Ta bost ajola nola darabilten erderaz.

3.—Oraiñarteko onek "elemento inquirido" dalako ontara garama, zuzenki.

Fraseetan baditugu, galdetu gabe ere, galdera zentzunezko oiartzuna duten zatiak.

Leen aipatu dugun esakun barrena artu dezagun:

a)—*AU NIRE AITA DA.* Baiña "*au da nire aita*" ba-diñogu, -NOR DA zure aita? galdekizun zentzunari erantzungo bide lioke, ain zuzen ere. Nire aita nor dan galdetua balizko zera izango genuke-ta.

—Ortaz, AU NIRE AITA DA frasea barren artuko dugu.
—NOR DA zure aita?... AU DA nire aita.
—Zure ZER DA au?..... Nire AITA DA au.

b)—NIRE AITA GAUR DONOSTIA'RA DIJOA. Joko batzuk egin ditzagun onekin:

—NOR DIJOA gaur Donostia'ra?... *NIRE AITA DIJOA* gaur Donostia'ra.
—NORA DIJOA gaur zure aita?... *DONOSTIA'RA DIJOA* gaur nire aita.
—NOIZ DIJOA zure aita Donistia'ra?... *GAUR DIJOA* nire aita Donostia'ra.
—Zure aita ZER Donostia'ra?... Nire aita *JOAN DIJOA* gaur Donistia'ra.

d)—"GIZON GAIZTOEK GU OARTU ORDUKO GURE MUTILLA IL NAI IZAN DIGUTE".

—NORTZUEK il nai izan digute...? —*GIZON GAIZTOEK* il nai izan digute.
—NOIZ il nai izan digute...? —*Gu OARTU ORDUKO* il nai izan digute...
—ZER egin nai izan digute...? —*IL EGIN* NAI IZAN DIGUTE...
—NOR il nai izan digute...? —*GURE MUTILLA* il nai izan digute...
—NOR DA il nai izan digutena? —*GURE MUTILLA DA* il nai izan digutena.

Auxe da benetan, euskal joskerak duen aldagarritasuna eta flexibilitasuna. Aditzak bereala erantzuten dio galdekizunari, baiña zuzenki erantzun ere.

—Galdekizuna aditzarengana —berari buruz— zuzen dijoakionean, EGIN aditz-laguntzallea artzen du. Ikusi gorago "ZER egin nai..." galdetu dugunean.
—*GU OARTU ORDUKO* "konplementu indirektoa" aldakor edo dantzaria da eta, nire ustez, bere toki bat baiño geiago du frase berean:

1.—Gizon gaiztoek GU OARTU ORDUKO gure mutilla il nai izan digute.
2.—GU OARTU ORDUKO, gizon gaiztoek gure mutilla il nai izan digute.
3.—Gizon gaiztoek gure mutilla il nai izan digute GU OARTU ORDUKO.

Aurreko joko oietan diran galderak sortzen ez diran bitartean aldakaitza da zati au: ...*gure mutilla il nai izan digute*.

Aldagarritasun joko auek ontzat artuko dituzutelakoan naiz.

4.—Frase edo esakun auek luzatuaz oraziño borobil edo bete batera eldu gaitezke eta onela antolatua izango genuke bera:

1.—Sujeto (adi-jabea)
2.—Complemento circunstancial (osagarria)
3.—Complemento indirecto de objeto "
4.—Complemento directo de objeto "
5.—Atributo
6.—Verbo significativo
7.—Verbo auxiliar.

Zatiketa ontan Lafitte jaunarekin bat nator

a)—*NIRE AITAK GAUR JOXE OSABA'RI PURU EDER BAT*
sujeto Co.Cir. Comp.Indirec. Comp.Direc.

BERE IZENEAN ERRE DEZAN EMAN DIO
Atributo Ver.sig. Ver.aux.

Baita ere, esan dezakegu:

—Nire aitak gaur Joxe osabari bere izenean erre dezan puru bat eman dio.
—Nire aitak gaur Joxe osabari puru eder bat eman dio erregalutzat.

Atributuak baditu emen bere arpegikaldeak: "erregalutzat", "bere izenean", "bezuza bezela" eta abar. Ikusi, nire ustez nola tokiz aldatua izan ditekean.

—Nire aitak gaur, ERREGALUTZAT, Joxe osabari puru eder bat eman dio.
—Nire aitak gaur Joxe osabari, ERREGALUTZAT, puru eder bat eman dio.
—Nire aitak gaur Joxe osabari puru eder bat eman dio ERREGALUTZAT.

GAUR konplementua ere, aurrerago ikusi dugunez, aldakorra da eta, nire ustez, ez du esakunaren zentzun jatorra aldatzen. Ez dut uste bere aldagarritasuna ikusteko frasejoku berririk egin bearrik dugunik.

Onartu ditzagun agertutako frase oiek, baiña ezin ditzakegu adibidez dijoazten beste auek:

—Nire aitak *GAUR EMAN DIO*... Joxe osabari... edo
—Nire *AITAK EMAN DIO gaur*... Joxe osabari... edo
—Nire aitak gaur Joxe *osabari EMAN DIO*... edo
—*EMAN DIO* nire aitak gaur Joxe osabari...

Lau frase auek geizki leudeke, esate baterako, dagozkien galdekizunen erantzun lirake-ta. Onela:

NORK eman dio?
NOIZ eman dio?
NORI eman dio?

Galdekizun auek ez diran bitartean, ortaz, geizki leudeke aurreko lau frase oiek. Laugarrenak, ordea, emango ote zion edo ezaren zai geundela agertzen digu garbi-garbi; orregaitik diñogu, asieran: EMAN DIO...

Jaun ta adiskideok, ontzat eman bearrak ote ditugu agerketa auek? Zuek duzute azterketa, eta guztiok erabakia.

b)—*Fraseak luzatu-ala, gaur beintzat, zatitu bezela egiten ditugu eta koma bitartez, esangura galdu baiño len, agertu nai genuken asmoa osatzen dugu.* Ona emen oraintxe bertan esandako frasea bera. Ala ere aditza atzean dijoakio. Adibidetzat balio du.

Esakun luzeetan eta, batez ere, erderazko QUE errelatibuaren kutsua dugunetan, oker darabilgu joskera. Ea frase au:

—JOXE ETORRI ZAIT ETA *ESAN DIT, neri emateko* atzo eskatu zizkizun liburu berri bi oiek.

Ala ere ontzat artzekoa da, luze xamarra baita, naiz eta erderazko joskera onek eragiña izan:

—"Ha venido Jasé y me ha dicho que..."

Erderazko joskeraz baliatua dago, jakiña, euskeraz pentsatzen motelduak geranez, aditza aurreratzen dugu eta ondorengoa antolatzeko bidea eman edo egiten digu. Baiña zergaitik ez genuke, jatorki, beste era ontara erabiltzen saiatu bearra izan?:

JOXE ETORRI ZAIT ETA ATZO ESKEIÑI ZENIZKION LIBURU BERRI BI OIEK NERI EMATEKO *ESAN DIT.*

Orixe litzake joskera jator-jatorra, frase ortan.

5.—Erderazko QUE errelatibua aztertu dezagun, bada.

a)—Ese es el hombre QUE ví (a quien ví) ayer en la plaza.

—ORI ATZO ENPARANTZAN *IKUSI NUEN GIZONA* DA
—ATZO PLAZAN *IKUSI NUEN GIZONA* DA ORI
—ORI DA ATZO ENPARANTZAN *IKUSI NUEN GIZONA.*

IKUSI NUEN GIZONA ausikaitza da; Ezin dira aldatuak izan ordena ortatiko zatiak. Zergaitik, ortaz, ainbeste aldiz idatzita ikusten ditugun auetariko joskera traketsak?:

"Ori da gizona atzo plazan ikusi nuena".

Geizki baiño geizkiago dago joskera au eta benetan baztertu bearra dugu; baztertu ta bazterrerazi. Frase ori aztertu bezate orrela idazteko oitura dutenek.

b)—"Au da ume bat kanpoan lo egiten ez dakiena" (Este es el niño que no sabe dormir fuera).

Oso geizki frase ori ere. Beste era ontara izan bear bai luke:

—KANPOAN LO EGITEN *EZ DAKIEN UMEA* DA AU. (ume petrala)
—AU KANPOAN LO EGITEN *EZ DAKIEN UMEA* DA. Iñoiz ez *AU DA UMEA* edo UME BAT...

6.—Ona emen berriz ere "elemento inquirido" orrekin, baiña gertaera oso bereizi batean; frasearen alde garrantzidunenari indar ematearren. Leen egin ditugun jokoetarik at, onelako joskera jatorra darabilte, esate baterako, Lapurdi'n eta Xuberoa'n.

a)—"Asier'ek Lore'txo maite du", frasea artu dezagun.

—NORK maite du Lore'txo? galdetzean, emendikaldekoek onela erantzungo genuke: *ASIER'ek MAITE DU* Lore'txo.

Ara baiña, erantzun ori, badirudi, beste galdekizun onena dala:

—*Asier'ek, ZER DU Lore'txo?,* ta bere erantzuna *Asier'ek, MAITE DU Lore'txo.* (enfasis bidez)

Baiña lengo galdekizuna egin dezagun:

—*NORK MAITE DU* LORE'TXO? ta ikusi dezagun nola erantzuten duten Auñamendi'z aruzko gure erriok:

—*ASIER'ek DU* maite Lore'txo.

Benetan jatorra bera, bikaiña. Guk, emendikaldekook, onela erantzuten dugu, joko antzeko bat egiñaz, baiña -N aditz-errelatibua erabiliaz: ASIER DA Lore'txo maite duENA.

Ipar-aldekoen esakera, ordea, gurea baiño jator, aberats eta esankorragoa dan ezkero guztiok onartu dezagun. Onartu bakarrik ez, gerok ere idatzi, erabilli eta zabaldu baizik. Zuek dezute itza.

7.—Esakuna ezezkoa danean, errexago zaigu joskera ondo erabiltzea, erderazkoaren antz aundia bai du. Dakizutenez, aditza aurreratu egiten da eta atributuaren aurrenik dijoa.

—*ORI*	*EZ*	*DA*	*ZURE*	*AITA*
1	2	3	4	5

ESE	*NO*	*ES*	*TU*	*PADRE*
1	2	3	4	5

Ara baiña, ezezko frase batean aditz laguntzalle edo auxiliar bat sortzen danean, orduan, eztasun oni auxiliarra lotzen zaio eta atzekaldean aditz barren edo nagusia dijoakio. Onela:

EZ DAKI etorriko dan.
EZ DUT esango.
EZ DIZKIO ematen; EZ DAKI egiten; EZ DU ekarri.

Esakun oietan osagarriak (konplementuak) sartzen diranean, orduan, bein batek esaten zidan zera (bokadilloa) sortzen da; au da, ez zaizkiela konplementu oiek atzean jartzen, aditz laguntzallearen eta aditz nagusiaren bitartean baizik.

Onela: *EZ DAKIT* biar goizean *ETORRIKO DAN.*
EZ DUT orrelako astakeririk *ESANGO.*
EZ DIZKIO, eskatuarren ere, bere liburuak *EMATEN.*
EZ DU zure txapelik *EKARRI.*

Egokitura au oso jatorra da. Baiña ontzat artu bear al genituke ondoren datozen beste auek ere?:

—EZ DAKIT ETORRIKO dan biar goizean.
—EZ DUT ESANGO orrelako astakeririk.
—EZ DIZKIO EMATEN, eskatuarren ere, bere libururik
—EZ DU EKARRI zure txapelik.

Biak ontzat artzekoak al dira ala lenbizikoak soilki?

* * *

8.—a) Ukatzeak ez du joskera aldatzen orain agertuko ditudan atzizki edo sufijoak diranean:

-N
-LAKO
-LARIK
-ARREN
-EZKERO
-Z

} Aditz-atzizkiak.

Onela genituke:

—Etorri da-N gizona .... Etorri EZ DAN gizona (ezezkoa)
—Etorri da-LAKO ..... Etorri EZ da-LAKO "
—Etorri ARREN ..... Etorri EZ ARREN.
—Etorri da-N ARREN .. Etorri EZ DAN ARREN.
—Etorri da-LARIK ..... Etorri EZ DALARIK.

—Etorri dan-eZ ..... Etorri EZ DANEZ.
—Artu du-eLAKO ..... Artu EZ DUELAKO.

Au da: lenengo, aditz-izena edo infinitibua bera; gero ezezko itza ta ondoren aditz laguntzaillea baldin ba-dago, ta atzenez atzizkiok.

Ala ere ontzat artzekoak al dira beste auek?:
Ez dan etorri gizona; EZ DALAKO ETORRI; EZ DAN ARREN ETORRI; EZ DALARIK ETORRI; EZ DANEZ ETORRI; EZ DUELAKO ARTU t.a.

Nire ustez baztertu bearrekoak dira atzen frase auek eta aurrekoak onartu. Ala ere zuek duzute itza.

8.—b) Baldintzak ere, ikusi ditugun atzizkion antzera, ez du ezezko esakunetan bere joskera aldatzen.

"BA" aurrizkia duten baldintza batzuek ikusi ditzagun: BALITZ, BAGENU, BALDIN BALU, BAZUKEAN ERE, BALIRA...

Joskera jatorrean	*Joskera ez orren jatorrean*
—Joango EZ BALITZ	EZ BALITZ joango
—Jetxiko EZ BALIRA	EZ BALIRA jetxiko
—Esan EZ BAGENU	EZ BAGENU esan
—Eman EZ BALDIN BALU Eman BALDIN EZ BALU BALDIN eman EZ BALU	EZ BALDIN BALU eman
—Ekarri EZ BAZUKEAN ere	EZ BAZUKEAN ere ekarri

BALDIN itza maiz darabilgu aurrenik asita ere; esate baterako:
BALDIN joango ez BALITZ; BALDIN esan ez BAGENU;...

d)—EZIN: Ezintasunak berdin eragiten du. Fenomenu bera da. Ea:

—Etorri EZIN BALITZ	EZIN BALITZ etorri
—Jan EZIN izango BAGENU	EZIN izango BAGENU jan
—Ekarri EZIN BALDIN balu	EZIN BALDIN BALU ekarri
—Egin EZIN bazukean ere	EZIN BAZUKEAN egin ere

EZIN etorri BALITZ
EZIN jan izango BAGENU
EZIN ekarri BALDIN BALU
EZIN egin BAZUKEAN ere

—Etorri EZIN geranak ala EZIN genaraNak etorri
—Etorri EZIN naizeLAKO ala EZIN naizeLAKO etorri
—Etorri EZIN danARREN ala EZIN danARREN etorri
—Etorri EZIN diraneZ ala EZIN diraneZ etorri

ala: EZIN etorri { NaizeLAKO / geraNAK / danARREN / diraLARIK / diranEZ

9.—Izen nagusi bat izen-lagun edo adjetibu batekin danean:

(geizki)	*(ongi)*
—Gure anai Joxe.....	Joxe gure anaia
—Usurbil'go osaba Mikel.....	Usurbil'go Mikel osaba
—Abade Don Jose'k.....	D. Jose abadeak
—Jaun Zipriano'k esan du.....	Zipriano jaunak esan du
—Andereño Yone'k irakatsi digu	Yone andereñoak irakatsi...
—Kardenal Montini.....	Montini Kardenala

Ejenpluak:—Joxe nere anaia etorri da
—Montini Kardenala zana, orain Aita Santua da
—Mikel gure osabak etxe berria erosi du
—Kennedy lendakaria il egin zuten

Emen bai erabaki bearra dagoela. Erderatikako kalkoz itzegiten da eta askok ez dute okerra ikusten. Gaurko euskal ikastoletatik ere onela datorzkigu umeak: "Amatxo, Andereño Yone'k esan digu..."

Gure gaztaroan ez genuen, zoritxarrez, euskal ikastolarik ezagutu eta gure ikasketa guztiak erderaz izan ziran; areago: erdaldun irakaslez eragiña. Orregaitik, etxeratzean, onela edo esango genukean lengo frase ori: "Amatxo, Señorita Karmen'ek esan du..."

Gure frasea ongi esana da, naiz eta "señorita" erdal itza erabili. Jakiña, erderaz esaten genuen bezela osorik artzen ge-

nuen titulu ori, baiña euskerara itzulpena egitean, orrela dagitenek, ez dakite zelako okerra egiten duten. Izkuntza batetik besterako itzulpena ez bai da kalko uts bat izan bear. Orregaitik, geizki dago Andereño Yone'k eta onelako joskera traketsak erabiltzea eta, zenbaitzuk uste izan ez arren, obeto legoke oso-osorik erderaz esan zati ori, guk, gerok, aurtzaroan esaten genuenez: Señorita Karmen'ek jai eman digu. Baiña ez Andereño Karmen'ek, Karmen Andereñoak baizik.

Au ontzat artuarren, gure maistra ta andereñook egoki erabiltzen ikasiko ote dute? Dana dala, erabaki dezagun gerok, aurrenik.

OARRA: Erdel tituloak diranean, badirudi, diran lez jaso bearrak dirala; erderaz edo erdal joskeraz. Baiña itzultzean kontuz.

10.—a) ZERGAITIK edo ZEGATIK *galdekizuna*. Erderazko POR QUE.

ZERGAITIK galdera utsa danean ez dago errurik eta okerrik, baiña erantzunean ez dezakegu iñolaz ere galdekizun ber-bera artu. Ala ere, zenbat eta zenbat entzuten dan eta zenbat idatzita ikusten dugun, batez ere gaztetxoengan!

Adibidez:—ZERGAITIK ez duzute oraindik bazkaldu?

—Aita etorri *ez dalako.*
—Aita ez da *etorri-ta.*
—Ez da aita etorri-*ta.*
—Ez *bai* da aita etorri.

} jatorki erantzunak

Geizki leudeke auek:—"Zergaitik aita ez da etorri".
Edo:—Donostia'ra noa ZERGAITIK (ZE) anaia geixotu zait.

Onela bear dute izan:
—Donostia'ra noa anaia geixotu { ZAIT-ETA / ZAIDALAKO / BAI ZAIT

Ez al duzute beste onelako astakeria iñoiz entzun? Baietzean nago, nik millaka aldiz entzuten aspertua bai naiz. Galdetu dezagun:

Galdera: Orai zer egin bear duzu?

Erantz.: Donostia'ra noa PORQUE anaia geixotu zait.

Erderazko PORQUE orren indarrez ta oituraz kutsutua da erabili bear ez genuken ZERGAITIK. Nota artu dezagun.

Proposiziño kausal au, mugez-andikoek ZEREN itzaren bidez agertzen dute, baiña au bera bakarki aztertzekoa da.

b)—*ZE* itza. Au ere *ZERGAITIK* bezela portatzen da. Ikusi:

—Donostia'ra noa ZE anaia geixotu zait.

Ez al da au erderazko PUES, PUES QUE? Ori dirudi, noski, ZE ta ZERGAITIK auek erantzunetan iru-lau modutan jator-jator erabiltzeko bidea bai du euskerak; leen ikusi dugu nola ta zela.

ZE, ZEREN, itzak taju berdiñekoak dira.

Emendikaldeko euskaldun jator bat erderaz mintzatzen jarri dezagun eta ikusi nola, bere euskel jenioak eragiña, agertzen zaigun:

Galdera:—Por qué vas a San Sebastián?

Erantzuna:—Tengo enfermo un *hermano-Y.* (Ez al da orrela?)

Auek dira, ortaz, gure forma jatorrak:

- Anaia geixo dutaLAKO
- Anaia geixo BAI dut
- Anaia geixo dut-ETA

11.—*BAIZIK, BAIZIK ETA...* Erderazko SINO, SINO QUE...

Gure BAIZIK itz au ere frasearen atzekaldean joatekoa dala uste dut. Ala ere, eta erderaren oiturak eragiñik, aurrekaldean maiz erabiltzen da, Gipuzkoa'n batez ere.

Onela bear luke izan:

—Txapela ori ez da niretakoa, *beste ura BAIZIK.*
—Mutiko ori ez da nire anaia, *txiki au BAIZIK.*

Geizki onelako auek:

"BAIZIK beste ura" eta "BAIZIK txiki au".

Ejenpluak:

No sólo dice que vendría SINO QUE viene, en efecto. EZ BAKARRIK LETORKELA DIÑO, ETORRI BAI DATOR AIN ZUZEN.

Orrelako egituraz egindako erantzuna litzake, nire ustez, jatorra; euskerak naikoa indar ta bide bai du zentzun ori emateko.

Zergaitik, ortaz, ezbearreko kalku au?:
No sólo dice que vendría, *SINO QUE* viene, en efecto.
Ez bakarrik letorkela diño *BAIZIK ETA* dator, ain zuzen.

Erdal-kutsu orrek bere toki ber-bera artu erazi dio gure BAIZIK itzari.

—*BAIÑO:* Bizkai'ko BAIÑO itz onek zerbait argi ematen digu Gipuzkoa'ko ZERGAITIK beste onek nola bere "etxea" galdu duen azalduaz. Bizkai'an ez dute, iñoiz, BAIÑO au aurrekaldean erabiltzen, bear bezela atzekaldean baizik.

Bizkai'an onela jator-jator:—Mutiko ori ez da nere anaia, beste *txiki ori BAIÑO.*
—Txapela ori ez da neretakoa, *beste a BAIÑO.*

Bizkaitarrengandik ere zerbait ikasi dezagun, baiña agertu dutana agertu ondoren erabakia artu dezagun.

12.—ZEREN..., ZEREN ETA..., ZEIN DA..., ZEIÑA... ZEIÑETAN..., ZEIÑEN..., ZELAN..., NOLAN...

Itz auetariko batzuk ipar-aldeko euskaldunek darabilzkite, beste batzuek Bizkaia'n ta ondorengook Gipuzkoa'n. Ezer erabakirik artuta ba-aldu orretaz Euskaltzaindia'k? Argi eman dizaigula ta guztiok jatorki idatzi dezagun batasun batean.

Ponentzia ontarako denbora neurtua emana zaigu eta geiegi luzatu ez nadin aurrera jo dezagun. Amabigarren puntu au batez ere lan bereizi baterako naikoa gai dala uste dut. Ala ere puntu bat edo beste ikutu ditzagun.

Adibidez:—"Gernikako Arbolak, ZEÑEN ganean berba ugari egin da, ez dau gaur leen eban frutu ederrik".

Frase orrek Quijote'aren zera gogoratzen dit: "En un lugar de la Mancha de CUYO nombre no quiero acordarme..."

Ez nazazute Quijote'a itzultzera beartu. Ala ere, onelatsu egin genezake:

—Bere izena gogoratu nai ez dutan Mancha'ko toki batean... edo—Bere izenez gogoratu nai ez dutan Mancha'ko toki batean...

Gernika'ko Arbola artu dezagun berriz; baiña euskeratuta.

1.—Berari buruz ainbeste berba egin dan (egiñiko) Gernikako Arbolak ez dau gaur leen eban (zuen) frutu ederrik.
2.—Gernika'ko Arbola'k, berari buruz berba asko egin da, ez dau gaur leen eban frutu ederrik.

Egitura bi auek edo antzekoak lirake bakarrik jatorrak, euskeraz. ZEÑEN itz orren bitartez egiña baztertu bearrekoa dan edo ez Euskaltzaindia'k du itza.

ZELAN ta OLAN: Erantzunetan, erderazko COMO kausala esateko ZELAN eta NOLAN erabiltzeak desegoki diran fraseak emango dizkigu, ZELAN eta NOLAN galdekizun utsak bai dira eta ez dugu, erantzunetarako, beren bearrik.

—COMO el hambriento no tiene (de) qué comer, roba donde sea.
—"NOLA gosetiak zer janik ez duen, nun-nai lapurretan egiten du".

Ez dugu erdalkeri ori egin bearrik. Euskeraz, indartsu, onela esan dezagun:

—Gosetiak zer janik *ez DU BA TA* nun-nai lapurtzen du.
—Gosetiak zer janik *ez DUANEZ* nun-nai lapurtzen du.
—Gosetiak zer janik *ez DUEN EZKERO* nun-nai lapurtzen du.
(jatorrak)

Azken forma auek eta antzekoak dira jatorrak. Baztertu ditzagun ZELA, ZELAN, NOLA ta NOLÁ-z egiñak.

AXULAR'en: "*Zeren nola* orduan *baitute* perilik aundiena, *zeren* orduan *baitaude* geldieneik urera beha..."

Euskera batasunean forma ori ere onartua izan ezkero, Gipuzkoa ta Bizkai'ko beste jator oien artean bat geiago

izan bedi eta guztiok onartu dezagun, baiña ezetzean deudenek beren arrazoiak eman bitzate. Badirudi, "baitute" eta baitdaude" erabiliaz geiegiz daudela "zeren" oiek, baiña bestalde, agian, indartu egiten dute, nolabait ere, esan-naia.

13.—"BAKARRIK" itza. Onako frase au kopiatu dut:

"Ez eban meriturik ikusi, *bakarrik gauza bat.*

Gure etxean ez du iñoiz iñork orrela erabili. Ez ote da bera erdalkeri utsa? Zergaitik ez beste era ontara josi?:

—Ez eban meriturik ikusi, *gauza bat BAKARRIK.*

Erderazko "sólo (sólamente) una cosa" da ori. Euskerak duen berezko "pospositibotasuna" (parkatu itza) (ez dut bere zentzuna neolojismuz emateko astirik) da gure jenioan neurriz itzak josten dituen erregla. Orregaitik, nik etxe ta auzoan ezagutu ditudan zaarrek egoki zerabilten beti pospositibotasun ori (parkatu berriz itz ori). Erderatikako itzak ez naute ainbeste beldurtzen; bai, ordea, joskera traketsak eta, gure jatorrenak baztertuz, bear ez genituken erderatikoak artzeak. Onek bai beldurtzen nauala.

Zer diñozute?

Joskerak garrantzi aundia du izkuntza batean; areago euskeran, bere literatura ondo finkatu baiño len, eta batasun bat ez dugularik, bakoitza bere aldetik joaz anarki beldurgarri batean daramagulako eta bere jenio jatorra galerazten diogulako.

Ez dezagula onela idatzi, esate baterako:

—"Joxe ta biok JOAN GIÑAN mendira atzo..." edo

—*"Joxe ta biok atzo JOAN GIÑAN* mendira eta *ELDU GIÑAN Artamendi'ko* basetxeraño. *An ESERI GIÑAN* enbor baten gaiñean eta *IKUSI GENUEN urrutian* bare agertzen zitzaigun itsaso zabala..."

Azalpen guztiok ikusi ondoren zergaitik ez era ontara?

—Atzo, Joxe ta ni (biok) *mendira JOAN GIÑAN* eta Artamendi'ko *basetxeraño ELDU GIÑAN.* An *enbor baten gai-*

ñean eseririk urrutian bare agertzen zitzaigun *itsaso zabala IKUSI GENUEN.*

AMAIA.—Bukatzera noa. Ez dizutet ezer erakutsi; areago: zuengandik ikasi nai dut. Oraiñarte baturik arkitzen ez ditudan zati batzuk agertu dizkizutet eta, aztergarritzat izango diralakotan, guztion erabaki zai naukazute. Asmo batzuk aurrera eraman zerbait erabaki dezagun euskal literatura dalako batasun onen alde. Euskaltzaindia'k erabakiak artu bitza; zein zokoratu, zein on-artu. Araudi bat argitara eman dezala eta errebista, aldizkari, irrati, ikastola ta bestelako zuzendari ta erresponsableek gogoz artu dezatela araudi ori, izlari ta idazle guztiak bat etorri ditezen.

Euskaltzaindia'k zelako erabakiak artuko dituen zai naiz; bere araudia jakiteko irrikitzen nago. Asko ikasi bearra dugu ta, baita ere, buru makurtu bearra sendo. Htxea dalako orretaz bakarrik naikoa burrukaldi izango da; baiña burruka zintzo baten ondoren benetako arrazoiak ikusi ditzagun eta bat etorri gaitezen, bestela, alkarri ez-ezik, euskerari berari adar-jotzen ari izango gera. Ez dut iñoiz hatxez idatzi. Ala ere Euskaltzaindia'k nai ta nai-ez artu bear dugula esaten digunean, ni hatxez idazten asiko naiz eta ez dut utziko.

Urte ontan euskeraren literatura-batasunak oinkada aundi bat eman beza. Ortarako, araudipe ortan burua makurtu dezagun guztiok eta utzi alde batera jainko-txikiak izaten. Ikasteko egarri naiz. Zuengandiko itxaropena dut.

Beste ezer ez. Eskerrik-asko.

Imanol Laspiur

Literatur-Euskera batasun baten aldera

AINGERU IRIGARAY'k

Euskal idazlariak irakurzaleak eta lanzaleak balira (Gales-en, Flandes-en edo Finlandian oi diran bezala) eginik zegoen gaurgoiti han bezala, gure izkuntza idatziaren balasun geiena. Eta gure alferkeria eta kultura gabearengatik goazi, gero ta urrunago batasunetik, joan den mendetik honara. Irakurzale geienek, bai eta idazlari askok ere, ez omen dakite irakurtzen zeatzki, bere euskalkiz kanpoko euskerean.

Euskalkiak urbiltzeko, leenbizi ezagutu beharko dirala iduri zaigu, eta ez daitezkela ezagun, leiatu gabe eta lanean gogor aritu gabe bistan da; guk nai dugu tipus-tapas mirakulu bat gerta dadin, eta hori ez daitekena da.

1959 urtean MOGEL-en gorazarrez Bibarren egin biltzarretan eman nuen hitzalditik (EUSKERA-1960, p. 110) hartuz, aipatuko ditut zenbeit pondu.

Goazen leenbizi helburuak mugatzera: zer esan nai dugu batasuna izenarekin? Noraraiño egin ditaken egun, eskumenean dauzkagun bide eta gaitasunekin? Eztu balio euskalki bat autatzea orai bein, ez eta izketa berri bat asmatzerik ere; emeki eta urratska joan bearra dugu, euskalkiak urbilduz leenik.

Auzi hontan euskera idatzia bakarrik aipatzen da, eta ez euskera mintzatua euskalkiak ere ezdira trabatzen: bere euskalki propioan idatzi beharko baidute, besterik ez dakitenean idazlari geienek orai bein. Baiño euskalki bakotxean urrats handi bat egin ditake batasunaren alde:

I.—Beste euskalkietan ere ezagun diran eta usatzen diran hitzak eta esaldiak usatuz, eta ez haiengandik urruntzen diranak; biltzar horietan Michelenak aipatu zuen bezala (EUSKERA -160- p. 90) giputz euskalkian *afari* usatuz eta ez *apari; dezake* eta *lezake* berexiz usatuz; *duen* eta ez *dun - nuen* eta ez *nun:* (artikulo organikoak geiago erabiliz; *neskatxa bat - egia bat - Zumaia - Donostia - Austria - Geografia);* forma eta hitz horiek ikasteko berriz, joan den mendeko idazlarien gana jo behar nai ta nai ez: J. Bautista AGIRRE, MENDIBURU, *Iturriaga,* G. ARRUE, LARDIZABAL... batasun alderago daude ameko aldiz oraiko giputz idazlariak baiño.

Euskera ikasteko Metodoetan, ez eta Ikastoletan ere, ez oi dira irakasten autore horiek erabiltzen dituzten esakera jatorrak.

II.—Bizkai euskalkian ere berdin gure aldera urbilago daude MOGEL, ASTARLOA, AÑIBARRO... oraiko idazlariak baiño. Michelenak zion bezala, *ditu, dituz* obetsi behar lituzkete *dauz* baiño; *zituan, zituzan* ere *ebazan* ordez... eta dozenaka halako formak. XIX garren mendeko bizkaitar eta gipuzkoar idazlariak irakurtzeko eta ikasteko, eskumenean duzkegu, ECHENAGUSIAren bi LORATEGIAK, batzuen eta besteen zati asko dakartzienak.

III.—Nafar-lapurtarretan ere aisago eta errezago dira guretako AXULAR, DUHALDE, DUVOISIN, HARANEDER, ARBELBIDE... oraikoak baiño; Villasanteren EUSKERA liburuxkan eta Lafitte-ren LORETEGIAN irakur ditazke autore horien zati batzu.

IV.—Zuberotar euskerarekin gauza bera gertatzen zaigu. OIHENART, MAISTER, INCHAUSPE edo PASTURALAK asko aldiz argiago dira guretako, oraiko zuberotar izkiribuak baiño. GAVEL-ek dion bezala (EUSKERA -1960- p. 296) joan den mendean *-r-* soiñuak etziren mutuak, orai bezala, eta Pasturaletan eta kanthoretan ziberotarrek prononziatzen dituzte orai ere; errez da beraz zerbait egitea naiez geroz; borondatea eta jakitea ditugu eskas.

Autore horietan beraz, ikusia dago atzerago eta baterago zirela euskalkiak.

V.—Joskeran; lege hertsiak ezlirake hartu bear; egundoko problemak altxatzen oi ditugu esaldi xinpleenarekin; *gizonak* (gizonek) *mendian mutikoak ikusi zituzten...* bezalako esaldia bi edo hiru gisetara esatea zillegi da, aldakuntza handirik gabe; ez ditzagun mintzairaren jokabideak geiegi muga; batasunaren egiazko korapilloak billa ditzagun eta ez perttolikeriak.

Berdin zilegi dira- *lokartu naiz* - eta - *loak hartu nau* - */hori goxatu* - eta - *hortaz goxatu* - */txoriari ohartu* - eta - *txoriaz ohartu* - */goraintziak esan* - (ez goraintziak eman) - *ongi etorria egin* - (ez ongi etorria eman) *legea baliatu* - eta - *legeaz baliatu / zure laguna lagunt zazu-...*

VI.—Hitz edatuenak usatuz, lekuko bixikeriak baztertuz; beste euskalkietan herrikoiak baldin badira eta arront usatuak, gutti edatu neologismoak baiño leenago dira: *Ekialde - Mendebalde - jokolari* (antzeslari) - *Ikuskari* - (antzerki) - *Bestaberri* - (Korpus) - *Salbatore* - (Aszensio) - *Berendua* - (merienda) - *Karrika* - (kalea) - *Ehorzeta* - (entierroa) - *Aireko* - (egazkin) - *Deitura* - (abizena)-; horretarako, Euskaltzaindiko komisione batek hiztegi ttipi bat abiaturik dauka, 1000 hitzetakoa, gora beera, Iparraldekoek eta Egoaldekoek autsi mautsi bat egiñik, hitz modernoak sartu gogo dituena, asmaketan ibilli gabe bakotxa bere aldetik, batasunaren ondamendian. Ikastoletan ere, beharrezko diren ikasi-hitz arrontenak onartuz xede beretan. Lan gaitza baiñan premiatsua, bereziki Ikastoleen erakasbideak xuxenki finkatzeko. Ikastoleen medioz irakatsi beharra baita euskera bateratu horren irakutzea, bestek egin duten bezala.

VII.—Fonetismo guziak kendu behar; *otsua-berua-etxia,argija-argiya-buruia-buruba-* ordez *otsoa-beroa-etxea-argia-burua-* izkiriatuz beti, salbu Linguistikako textoetan, edo izketa bizietan.

VIII.—*R-* kin asten diran hitzak ezdute beti *-erre-* onartzen; *Ruth- rusoa- Rusia- romantiko- romaniko- Rumania-...* alderdi guzietako eskualdun arrontek esatentuzte beti.

IX.—Perifrasiko formak errezagoak dira euskera ikasteko, sintetikoak baiño. Asteko, aisago dira asko ere *-etor neike- nator-*

ke- baiño / *ibil neike- nabilke-* baiño. Halaber Metodoetan, leeneke ikastaldian *zuketan* bakarrik obe litzake, geroagoko utzirik *iketako* eta *noketako* formak.

X.—IZAN-UKAN berboen (naiz-dut) forma arrontenak bateratu behar lirake, lapurtar eta giputz euskalkitakoak bederik;

-diozka-dizka- dizkio- diotza- ditio- dazko- deutsaz- dazkio- edo ta *-gara-gira-gera- gare* edo ta *dozue-duzue-dezute-duzute-dezue-* formen artean bat autatu beharra dugula, beste halakoetan bezala, ezta dudarik batere; edozein, baiño bat bakarra aski dugu; eta batasun aldera urrats handia egina ginuke.

XI.—Ortografian, *-rr-ll-tt-* usatuz *-r-l-t-* pikordunak baiño leen, batasun aldera egiten dugu, Iparraldekoek dobleak txoilik usatzen dituztelako.

Euskaltzaindiak onartu zuen bezala aspaldi, *-h-* izkia usatzea komeni dela, batasun alderako denak errez ikusten du, naiz eta gure euskalkietan aspiratzen ezpadaere; bokalen artean *(ohore-zuhurra-ahate-bihotza)* eta adiarazpenak bereixteko *(hori-ori / hura-ura),* Larramendik XVIII garren mende erditsuan gomendatzen zuen bezala usatuz, nafar-lapurtarreri borondatea erakusten diegu; berek onartu zituzten bezala gure *-x-* eta *-tx-*, beren betiko (mendez mende usatuak) *-ch-* eta *-tch-* delakoen ordez, HERRIA astekarian ikusten aal dugun bezala.

Euskeraz izkiriatzean, izen arrotzetako ortografia errespetatu behar da *(Corella-tik, Vaticano-ra, Barcelona-ko);* erdal izenburu propioak eztira euskerara itzulikatzen *(Banco de Vizcaya-n egon naiz);* inglesa irakurtzen duenak badaki nola errespetatzen eta uzten dituzten ingleseratu gabe, beste izkuntzetako izenak edo izenburuak.

Aingeru Irigaray

Batasunaren bideak

PIARRES LAFITTEk

Ederki. Ikusten dut lanean ari izan ziztela, beroak beroari, eta beroki. Ene ustez, zerbait emen dabillen gorabeki, baiña behar dugu kasu egin, ez ditugu bazterrak sobera nahasi behar, behar ditugu gauzak egin emeki-emeki, alegia deusez. Bakoitxak gure legeak begiratzen baldin baditugu ixkiriatzean, iñor ez da ohartuko ba dela zerbait kanbiamendu, eta emeki emeki sartuko dira, ageria deusez.

Joan dan egunean erraiten nuen nola Frantzian egin dan batasuna. XVI'gn. mendean ba ziren 18 frantzes-hizkera, eta idazlari bakoitzak erabiltzen zuen berea. Eta irakurtzen baldin badituzu orduko literatura-idazkiak Frantzian, ikusiko duzu etzutela elgar konprenitzen ahal frantsesek XVI'gn. mendean, nehundik ere. Bakoitxak zerbait konprenitzen zuen besteen erranetarik, baiña biziki guti. Bakoitxak pentsatzen zuen berak biziki ontsa zerabiala frantzesa, baiñan besteek eztakitela. Eta hortan errege batek egin zuen lege bat amabost eun eta emezortzian baizik-eta frantsesak behar zuela izan Frantziarako mintzaire bakarra. Biña eman dituzte 140 urte batasun horren egiteko.

Egia erran, gauza hori ez da egin Frantzian berrikitan baizik. XVII'gn. mendean, 30 urte barne, literaturan ba egin da frantsesaren batasuna. Eta erran ditake zonbeit baizik ez direla lotu frantsesa horri, guk "klasikoak" deitzen ditugun hoiek. Baiña irakurtzen baldin baduzu Frantziako literatura, ez klasikoa, baiñan bertzea, Frantzian, ikusiko duzu ez dela konpreni errexa XVII'gn. mendeko literatura frantsesa. Ba dire doi-doi 20 bat idazle batasunari buruz joan direnak, eta heiek egin dute legea ororen buruan.

Nola egin dute lan hori? Artu dituzte eskualde guzietan berberak ziren hitzak, orokarrak, eta beste guziak utzi. XVI'gn, mendean ba genituen Frantzian 300 mila hitz, eta horiek oro kendu dituzte, eta begiratu bakarrik 30 mila, eta biziki sobera hoiek, zeren-eta ikusten baldin baduzue nola ixkiriatzen zuten frantsesek orduan, klasikoek, ikusiko duzue Pascal batek 400 hitz baizik etzituela erabiltzen, eta halere poliki ari zen. Ba zen teatroan gure Racine de la Cobat, biziki hitz guti zituen, 600, eta halere zerbait egin du 600 hitzekin. Beti hitz berak erabilzkan, bainan biziki ontsa barazakien nola behar ziren lotu hitzak batzuk bertzeri, eta hortan egin du bere lan guzia.

Beraz, ez dugu uste izan behar, behar dugula hitz ainitz izan, bainan guti bat, bainan horiek ontsa ezagutu eta ontsa erabilli; eta orduan hiztegi ttipi batekin egiten ahal dugu lan handia, zeren-eta laster edatuko baita eskuara hori. Erranen dautazu eta askok erran dautate: bainan orduan eskuara xuhurtuko da? Oinbertze hitz baiditugu eskuaraz. Uste dut gaurko egunean, kalkula guziak eginda, 200 mila hitz ba ditugula. Bainan sobera, zeren-eta herri batetik bestera gauza bera erraiteko ez dakit zonbeit hitz erabiltzen ditugun, eta orduan ezin elgar konpreni, ezin elgar ulertu: horra zer ari giren. Eta gure eskuara ari da galtzen, ez pobre izanez, bainan aberetsegi izanez, leher egiten dugu aberetsegi baigira. Eta uste dut behar dugula gure arbola puska bat adarrakatu, behar ditugula bakandu, behar ditugula utzi bakarrik denek konprenitzen dituzten hitzak, eta haiekin behar dugu gure burua puska bat nekatu. Bainan denak erraiten ahal dugu, ene ustez, aise 5 mila hitzekin.

Joan den egunean egin arazi dautatet lan ttipi bat, erakusteko zoin ziren egungo egunean kasi denetan erabiltzen ziren sustraiak. Eta uste dut 1.500 sustraiekin denek elgar konprenitzen ahal dugula aise, beste guziak sobera ditazke. Bainan sustrai horiek asko moldez erabiltzen ahal ditugu zeren gramatika ontsa ezagutzen baldin badugu, ba dakigu edozein hitzekin berbak egiten ahal ditugula, ba dakigu hitzak nola josten ahal ditugun. Horiek oro ez dira hiztegi batean ezarri behar. Behar ditugu gauzak ikusi diren bezela, eta, ene ustez, laster egiten ahal dugu lan hori.

Bainan errainen dautzuet egia: gauza nekeza da lehenbizian. Lehenbizikoetan, idazleek beharko dute beren burua puska bat

izerditu, ez dira aise aterako, zeren-eta orain usatuak baitira denak, bai zuek eta bai guk, edozein hitzekin ixkiriatzera; ixkiriatzen dugula, ezartzen dugu mintzatzen geran bezala.

Horrek ez du erran nahi, hil egin behar ditugula gure herri-euskalkiak, ez batere; mintza ditela, ontsa mintza ditela, eta ahal dezala mintzatzen geranean, bainan gero, izkiriatzen dugunean, kasu eginez. Bizkitartean, ba dut uste asko literatura, herri-literatura beharko ditugula halere izkiriatu, jendeek erabiltzen dituzten-eta euskalkietan. Baiñan oixtion ikusi dut gauza bat, eta biziki ona. Erran duzue ANAITASUNA'k idatziko duela Bizkaiko eskuaran, eta nik erraiten dut ontsa dela, eta hala egin behar dela, eta guk ere HERRIA'n gauza bera eginen dugula, gure eskuara erabilliko dugula. Baiñan aste guziez artikulu bat, eta eman dezagun lehenbiziko artikulu hura, behar dena eta seriosena, gure delako hizkuntza batatu hortan eginen dugula beti. Uste dut hori denek egin behar dugula. Gero ikusiko duzue emeki-emeki beste guziak hari buruz ariko direla, guk deusik erran gabe.

Bainan beharko ditugu gauza batzu egin: hitz batzuk ba dira sartzekoak oraingo eskuaran zeren-eta oraingo gauza berriak ez ditugu oraino izendatuak ontsa eskuaratu, eta beste batzuk biziki sobera izendatu ditugu: batek erraiten du telefon*oa*, beste batek telefon*ua*, beste batek telefona, beste batek urrutizkiña, beste batek urrun-bozkina. Kasu egin behar dugu, behar ginuke elgar aditu eta batto autatu, ez dugu oinbeste hitz behar, gutirekin egiten ahal da gauza hori, batekin ere aise. Beraz, behar ginuke elgar entzun hortarako; ez ditake mirakulu bat, ene ustez.

Beraz, ixkiriatuko dugu ahal bezala, bainan zonbeit hitz beharko ditugu emeki-emeki sar-arazi, ez nahaketan, bainan urtean oinbeste. Erranen dautzuet sekretu bat: 23 urte egona naiz idazlari-nagusi gure astekarian; urte guziez egiten nuen hitz-lerro bat, eta hatarik aste guziez hitz bat edo beste sar-arazten nuen edo artikulu batean edo anuntza batean edo erreklama batean beste bat, bainan aste guziez ba ziren 15 hitz berri sartzen zirenak behar-beharrekoak. Eta holaxe ikusten nuen emeki-emeki besteek ere artzen zituztela, nik fitsik erran gabe.

Ene ustez, elgar adituz eta, aste guzirako aste guziez, urte hastapen guziez, hola zoneit hitz autatzen bagenitu, aukeratzen, eta gero sar-araz emeki-emeki denek, ene ustez, sar ditazke aleginatuz,

bainan ez soberaretan ezarriz. Konparazione bat eginen dut: maionesa ba dakizue nola egiten dan: ezartzen da ontzi batean, ta gatza ta piper beltxa, ta horiek oro, ta, azkenean, ezartzen da arrautza bat ere, gorringoa; ta gero —horiek oro— behar dira jo eta jo, bainan gero olioa ezarri behar da, bere olioa tantaka ixurtzen da; sobera ezartzen baldin baduzu, huts egiten duzu zure maionesa. Eta, ene ustez, behar dugu holako gauza bat egin eskuararekin, behar dugu denek maionesa errusitu, hortan da guzia.

Ez dautzuet beste deusik erranen, ondoko egunetan ikusiko dugu, eta uste dut zerbait eginen dugula denek batean. Bainan goazen erreposki, eta ikusiz, eta hola zentzuz ari baldin bagera, eginen dugu zerbait, eta ez gera, ene ustez, batere makurtuko. Hortan da ene esperantza eta itxaropena.

Piarres Lafitte

Lasuen eta Lafitte jaunen hitzaldiak, magnetofoitik zuzenean jasoak dira. Ditezken huts eta oker-ulerpenen barkazioa eskatzen dugu, aurretiaz

Gerediaga-Elkarteak eratutako biltzar-kideei

TXILLARDEGI'k

Herrikide eta lankideok, agur:

Betidanik izan da euskera idatziaren batasuna nere euskal kezkarik sakonenetako bat. Siñistuta egon zaitezte, beraz, gogor zaidala oso zuen artera egun hauetan ezin azaltzea.

Sendo dauden hizkuntza guziek literatura-hizkuntzaren batasuna osatu dute; eta egiña duten ezkeroztik ari dira sendotzen. Idazterakoan, liburuak egiterakoan, eskolan eta administrazioan mintzabide jartzerakoan, eziña da hizkuntza baten dialektu guziei eutsi nahia. Hau erokeria litzake. Are larriagoa, gaiñera, gure huntan bezela hizkuntza oso horren hiztunak milloi bat ere ez diralarik.

Gizonaren zerbitzuko jarri behar da hizkuntza, eta ez alderantziz: inguruko lagunekin gutxi gora-behera mintzatzeko baizik tresna ez dan dialektua, gizonaren borrero bihurtzen da, eta ez zerbitzari. Aitortzea gogor zaigu. Neuri ere gogor zait, nere bihotzean zuen sendimendu berberak ditudalako; baiña gure euskalki ahul batzuek egoera hortan egon dira itzaldu artean, eta bertako euskaldunen jokabidea guztiz kondenatzea eziña zait. Ez dugu eskubiderik euskerari bere hortan eusteko: euskera EUSKALDUNEN ZERBITZUTAN jarri behar da; eta huntarako lehenengo urratsa, euskera idatziaren batasuna da.

Ekonomiaren aldetik ondorio beretara helduko giñake: liburu bat (liburu-sail oso eta ugari bat, hobe) argitara ahal izateko, liburuketa koxkor bat bederen behar da: milla batzuk, esate baterako. Kopuru hortatik behera ez dago ezer argitaratzerik eta ez

prezio apalean saltzerik. Alde huntatik, hedadura txikia duten dialektuak onenean folklore galesti bihurtzen dira, eta bestetan gizonaren etsai. Aberatsa ez dan gizonaren etsai berriz ere...

Euskalki guziei eutsi nahia, beraz, berez da onartu eziña. Euskal hizkera bakar bat osatu behar dugu ahalik eta laisterrenik, eta euskaldun guzientzako lanabes egin.

Gauza agiria da legeek arazo hauetan izaten duten garrantzia. Legeak piztu egin dezake hizkuntza bat, eta kondenatu ere egin dezake. XX-gn. mendean legeen kontra hizkuntza bat bizirik eutsi nahi izatea, amets-egitea da.

Baiñan Euskal Herri'ko legeen arazoa funtsezkoa izanik ere, ez dago hor bildu zeratenon eskuetan. Puntu huntaz luzatzea, beraz, alperrikakoa litzake.

Gaur geure eskuetan dagoenaz jardun behar dugu. Eta gure eskuetan dagoen hori nabarmena da: idazkeraren batasuna dago gure eskuetan. Orain arteko anarkiari tenk egin behar zaio. Euskera idatziaren batasuna guztiz beharrezkoa dugu euskeraren etorkizunerako. Hortatik gure erantzukizun larria, hemendik aurrera nola idatziko dan hein batean bederen euskal idazle geranon eskuetan baitago.

Biltzar hortara bildu zeraten guziok huntaz guziaz ongi jabetuak zeraten ezkero, ez diot ekingo.

* * *

Batasuna nola, ordea? Ez da erraza. Eta bide bat billatzen saiatu geranok ongi dakigu.

Oiñarrian teknika-problema bat dago. Erdiko bidea aurkitzeko, euskalki guziak ezagutu behar dira aurrenik. Euskalki guziak ongi xamar ezagutzen ez dituztenen iritziak, maingu agertzen dira nahi-ta-nahi-ez. Euskalki guziak idaztea eziña dan bezelaxe, euskalki guziak ezagutu behar dira euskera osotua gertatzeko. Alderdi askotatik, esate baterako, bizkaiera eta xuberera ditugu euskalkirik jatorrenak eta ziurrenak, arkaikoenak baitira. Hau dala-ta, gorde dituzten funtsezko berezitasun-baloreak ahaztutzea barkatu eziña izango litzake. Bizkaiera, adibidez, epaikari ona da "galdegai"-ari buruzko fenomenuez, "A-itsatsia"-z, izenordeen maillez (ni / neu...), eta abar. Xuberera, era berean, aditzari buruz izan

diteke laguntzaille zindoa, indeterminazioaz, eta abar. Hiztegi kontuan danak izan ditezke laguntzaille edo osatzaille. (Finlandiarrek hala egin dute).

Ortografiari buruz makiña bat eztabaida sortu du "H bedeinkatu horrek". Hauzia, halere, ez da oso zailla. Lapurdi'n, Baxenabarre'n eta Xuberoa'n H hori esan egiten da, K edo L bezelaxe. Nere galderak hauek dira: lapurtarrak, baxenabartarrak eta xuberotarrak euskaldunak dira, ala ez dira? Berentzako H gabe idaztea, guretzako P gabe idaztea bezela da. Berek proposatuko baligute hemendik aurrera guk P gabe idaztea ("orrua", gonbarazio batez, eta ez "porrua"), zer erantzungo ote genuke "batasun"-erako bide bitxi hortaz?

Ez da ahaztu behar, bestalde, Atsular, Oihenart, Leizarraga, Joanes Etxeberri, Pierre d'Urt, eta beste idazle zahar askok, ipartarrak izaki, H-z idatzi zuela. Larramendi'k berak ez bide zuen joera hau gaitzesten.

Gipuzkoarrok eta bizkaitarrok H hori nun jarri sorkuraz ez dakigula gauza ezaguna da. Eragozpen bat dala ez dut ukatuko. Baiñan españeraz, frantseseraz eta ingeleseraz, esate baterako, idazten dan H asko ez da *iñun* esaten. Gure H horiek, aldiz, esan egiten dira gaur ere Euskal Herri'ko ipar aldean. "Ombre" eta "omme" idazten ausartzen ez bagera, zergatik bai "au" edo "asarre"?

Bai fonetikaz eta bai gaiñerakoez gure euskal egitura edo estruktura bereziak gorde behar ditugu. Estrukturalismoak ongi erakutsi duenez, hitzen eta hizkien arazoa ez da banaka aztertu behar, hitzen eta hotsen multzotan baizik. Hizkuntza bakoitzean hitz-mordoen eta soiñu-mordoen egiturak aztertu behar dira. Egitura horien berezitasunean datza hizkuntzen nortasuna. Gurearen giltzarria eta guna zaindu nahi izan ezkero, estrukturalista izan behar dugu euskaltzaleok.

Deklinazioan eta aditz-joskeran, esate baterako, geure egitura bereziak salbatu behar ditugu: hauxe da funtsezko eginbeharra. Euskeraren barne-moldean sartu behar dugu arras, erdal egiturak uxatuz. Gure hizkuntza finkatu artean, euskaldun intelektual guziek izan behar dute kezka hau. Indeterminazioa deklinazioan kontutan hartu gabe, aditzen ekintzan egiña eta eginkizuna errotik

berezi gabe, oiñarrietan beretan erdal egiturak itsasten utziaz hitz batez, desegin egingo genuke gure hizkuntzaren sustraia.

Xuxen sumatu zuten errisku hau Aita Mokoroa'k eta Sebero Altube'k orain dala hogei ta hamabost urte ("Genio y Lengua" liburuan F. de Saussure aipatzen zuen "Ibar"-ek!); eta ordudanik markatutako bidea jarraitzeko garaia heldu zaigu.

Euskera ezagutu behar da, eta gaurko hizkuntza-teoriak ezagutu behar dira. Hau bai. Noski! Zer nahi dugu bada? Euskera jaso? Ala euskera lardazkatu? XX-gn, mendeko seme gera, ez XVI-gn. mendeko kaikuak. Euskera kaletar intelektual aurrerazaleek piztuko dute; ala euskera ez da iñoiz piztuko. Nabarmena da hau; eta gazteek, beharrik, xuxen ulertu bide dute.

Erderatikako hitzei buruz erabaki egokiak hartu zituen Euskaltzaindiak orain dala urte batzuk. Bide hari jarraitu beharra dago. Ideia berriari, hitz berria dagokio. Errelatibidadea edo penizilina euskeraz nola esango ote dugun urduri daudenak, ez dira gauza gure pizkundean parte hartzeko.

* * *

Ideia horiek gidari, Baiona'ko "Euskal Idazkaritza"-n sortu zan 1963-an Hizkuntza-Sail bat. Hunen eginkizun nagusia euskera idatziaren batasunari buruz bide bat billatzea izan zan.

Zortzi hillabetez astero-astero, ondoko jaun hauek bildu ziran arazoa aztertzeko:

Jesus Mari BILBAO, bizkaitarra.
Jean Louis DAVANT, xuberotarra.
Roger IDIART, lapurtarra.
Eneko IRIGARAI, naparra.
Telesforo MONZON, gipuzkoarra.
Jesus SOLAUN, bizkaitarra.
eta TXILLARDEGI, gipuzkoarra.

Hauen lana amaituta, 1964-eko Dagonillaren 29-30-ean Biltzar Nagusi bat eratu zan. Berrogei euskaltzale bildu giñan "Idazkaritza"-ra, eta Lafitte kalonjea izan genuen eztabaidan Lendakari.

Arratsean Baiona'ko Udaletxeak errezibitu gindnen ofizialki, Grenet alkate jauna buru. Egun gogoangarri haien frutua izan ziran zuek ezagutzen dituzuten "Erabakiak"; eta hanek Lartzabal eta Lafitte euskaltzaiñek proposatu zituzten Euskaltzaindia'n.

Lan hartako guzien izenean ausartzen naiz ni gure azterketak kontutan hartzeko eskatzera. Gure erabakiak ez ziran arinki hartuak izan, nahiz zenbaitek beharbada hori pentsatu badute ere. 1964-eko Baiona'ko Erabakien defentsa egitea bidezkoa iruditzen zait, lan-bilkura askoren ondorio izan baitziran.

Baiña batasuna behar dugu berealatik. Gure ikastoletan zai ditugu hurrak, ehunka; gure ikasguetan zai ditugu euskaldun ikasleak, ehunka ere, euskal literatura irakurtzeko hirrikan; gure irakasleak zai daude. Literaturazko euskeraren batasunaren zai daude, hain zuzen.

Euskaltzaindia'k, aspaldiko partez, ziñez hartu du aurten eginkizun premiatsu hau; eta zuzentzailletzat Luis Mitxelena jakintsua eta euskaltzale purrukatua hautatu du.

Gauzak horrela, bidezkoa iruditzen zait Euskaltzaindia'ren azken hitzari DENOK menegitea. Zein erakunde hoberik Euskaltzaindia baiño, eta nor jantziagorik Mitxelena baiño? Nik neuk bederen hala egingo dut: Euskaltzaindia'ren erabakizunak aldez aurretik onartzen ditut; eta nere izkribuetan Euskaltzaindia'ren erabakien arabera idaztea agintzen dut gaurdanik.

Anartean, dana dala, burruka egitea zillegi da, beharrezkoa da hobe. Burruka latza, gogorra, atsekabea beharbada. Gisa da, hautakizuna larria baita. Baiña galtzaille gertaturik ere, batasuna errespetatzeko delibero irmoan.

Besterik ez, adiskideok.

Bihotzez zuen artean, besarkada bat denoi

Txillardegi

EUSKERAREN ETA LITERATURA EUSKERAREN BATASUNARI BURUZKO BIBLIOGRAFIA

Axular, **Gero** (1643), liburuaren hitzaurrean ari da batasunari buruz.

Larramendi, **Diccionario Trilingüe** (1745), hitzaurrearen lehen partean.

Kardaberaz, **Euskeraren berri onak** (1761).

Mogel,**Peru Abarka** (1881), itzaurrean eta alkarrizketen azken kapituloan (6-gn. kapituloan).

Altube, **Izkuntz-jakintza ta euskeriaren bizitza,** "Euskera", II (1921), 1 zenbakia, 3-49 orrialdeak.

Campión eta Broussain, **Informe a la Academia de la Lengua Vasca sobre unificación del euskera,** "Euskera", III (1922), 1 zenbakia, 4-17 orrialdeak.

"Euskera", Euskaltzaindiaren aldizkariak, III (1922), lan asko dakarzki euskeraren batasunari buruzkoak: Ormaetxea "Orixe", Eguskitza, Azkue, Altube...

Altube, **Euskel itz barrijak. Eurok eraltzeko, erderaak zertara lagun egin bear deuskuen,** "III Congreso de Estudios Vascos" (1922), 78-93 orrialdeak.

Altube, **Erderismos,** (1929-1930), "Euskera"-n eta aparteko liburuan.

Altube, **La vida del euskera** (1934), "Euskera"-n eta bertatik aparteko liburuan.

Altube, **La unificación del euskera literario,** "Eusko-Jakintza", III (1949). Baionako "Congreso de Estudios Vascos"-en (1946) irakurritako itzaldi bat da. (Ikusi, 181-204 orrialdeak).

Kruwig, **Sobre ortografía y el vascuence escrito,** (Multikopiaz aterea, urte gabe, baiña 1952-a baiño lehen).

Villasante, **Literaturr-euskera laphurtarr klassikoaren gain eratua,** Boletín de la Real Sociedad Vascongada de los Amigos del País, VIII (1952), 91-119 eta 259-298 orrialdeetan.

Itzaldiak, **Euskeltzaleen Biltzarra** (Bilbon, 1958, abenduaren 13 eta 14-an). "Euskera", IV (1959), 93-217 orrialdeetan.

Lafitte, **Gramaire Basque** (Navarro-labourdin littéraire), Préface 6-gn. orrialdean (1962).

Oskillaso, **Kurloiak** (1962), liburuaren itzaurrean.

Omaechevarría, **Observaciones al proyecto de gramática del euskera literario por la Academia de la Lengua Vasca,** "Euskera", VIII-IX (1963-1964), 135-142 orrialdeak.

Baiona'ko Biltzarraren Erabakiak, "Eskual Idazkaritza" (1964-eko agorrillaren 29-30). Lan bera "Jakin" aldizkariak ere argitaratu zuan; ikusi 18-gn. zenbakia, 1965-eko Ilbeltzekoa.

Liturgiaren itzulpena.

Lekuona, **Euskeraren batasuna Liturgian,** "Jaunaren deia" (21), 1967.

Irigaray, **Euskera izkiriatuen batasunaz,** "Diario de Navarra", 1967, maietzaren 25-ekoa.

Irigaray, **Eskuarak urbiltzeko bidez,** "Herria", 1967, ekainaren 1-ekoa.

JAKIN 30, sarreran.

ERABAKIAK

Ermua'n, Euskal Idazleen Jardunaldietan bildutako idazleek, erabaki hauek artu dituzte:

1 *Letamendia, Garmendia ta Laspiur'en ponentziak ontzat hartu. Xalbador Garmedia'renak hobeki azalduko dira beste agerpen baten.*

2 *Euskal idazleen alkarte bat sortu, San Martiñ'ek bere ponentzian azaldu duan bezela. Hori sortzeko batzorde bat autatzen da, sei lagunekoa: Juan San Martin, Jose Luis Lizundia, Iñaki Beobide, Joan M. Torrealday, Xabier Gereño ta Manex Pagola. Hauek, bideak gertutzen dituztenean, dei bat egin beharko diete euskal idazle guztieri batzar orokor batera.*

3 *JAKIN aldizkaria oraindixek lotzen da Oñati'n Iraillean Euskaltziandiak artuko dituen erabakietara. ANAITASUNA'K, Bizkai'ko aldizkaria danez, bizkaieraz idazten jarraituko du, baiñan orrialde bat aterako du euskera literario batuan, Bizkai'ko herrialdea gertutzen joateko. Fonetismoak eta baztertuko ditu zearo, aditzean ezingo du oraindik bizkaiera utzi. ANAITASUNA'ren jokabidea ontzat hartzen da, ta eskabide berdiña egiten zaio "Príncipe de Viana'ri".*

4 *Aditzaren batasuna beharrezkoa dala ikusten da. Hortarako bereiziki batzorde bat sortzea eskatzen zaio Euskaltzaindiari, bertarako hauek proposatuaz: Mitxelena, Lafitte, Itxausti, Berriatua, Mendizabal eta Iraizoz.*

5 *Euskal Herriko egunerokoeri euskerazko sail bat sortzea edo lehengoa gehitzea ontzat hartzen da. Nola eta noiz egin, sortuko dan Alkartearen eskuetan uzten da.*

6 *H'ri buruz, Bayona'ko erabakiak ontzat hartzen dira. Monzon jaunari h'ren arrazoiak adierazotzea eskatzen zaio. Lafitte, Haritxelar eta Larzabal jauneri, h'a, nun eta noiz erabilli behar dan azaltzea eskatzen zaie.*

7 *Euskaltzaindiari eskatzen zaio, Oñati'ko Batzarrean hartzen diran erabakiak, al danik eta azkarren "EUSKERA" bere aldizkariaren separata batean ateratzeko, herriaren eta idazleen jakinbiderako.*

8 *"Hegosa" etxeari proposatu, Aingeru Irigaray jaunaren eskabidez, Karmelo Etxenagusiaren antologi biak, Bizkai'koa ta Gipuzkoa'koa argitaratzea.*

9 *Ikastoletako andereño ta zuzendarieri laguntza eskeiñi, euskera literario batuari buruz: hitzaldiak, ikasteak, arrazoiak eta abar.*


Ermua'n, 1968'ko Bagillaren 30'ean.

Lasuen, Aranberria ta Basauri, *mahiburukoak;*
Lizundia,*idazkaria.*

NOTA LABURRAK

PAULO VI EGO-AMERIKA'N

galderak eta zalantzak



Indar berri batzuk astindurik daukate Ego-Amerika. Esnatzen dijoa herria. Azitakoan, zer izango da? Nazio-artean leku egokirik arkituko al du?

Oraingo egoera tristearen aldakuntza izerdiz eta nekez bakarrik, ala odoletan kutsuturik egingo ote da?

Hemendik ogei ta amar urtera izango diren 690 milloi hoiek, gaurko estruktura ta erakunde berak ikusiko al dituzte?

Aita Santuak ausarditsu salatu ditu gaurko estrukturen bidegabekerlak. Baiña beharrezkoa dan erreboluzio hori, gogorkeriz, biolentziz, ez da azkarrago burutuko. **«Zuen itxaropenik ez jar gogorkerian. Biolentziak, Kristautasunaren kontrakoa izanez gaiñera, zuen etorkizunaren hobeagotzea berandutu besterik ez du egingo».**

Baiña, aberatsak eta herrietako zuzendariak erreforma gogorrak egin beharrean daude. Bestela, Historian zehar gertatu dana bera etorriko da; pobreak eta zapalduak beren eskubideak indarka lortzea, lehenik gutxi ziran aberatsak garaiz eta arrazoiz jokatu etzutelako, gizarte osoaren onerako.

Eleizak, apaizek, eta kristauek, hortan ekin behar dute: herriaren miñak eta prolemak bizi, sufritzen duten guztien biotza izan. Kristauen buruak, kapitalistenak eta pobreenak, eglan, elkar-maitasunean, ezi; elkarren eskubideak errespetatzen erakutsi. Lurra arrotu ta landu, ahalik eta laisterren justitzian ta askatasunean oiñarritutako gizarte berriaren landarea sor eta azi dedin.

Ego-Amerika'ko Eleizak, eta Eleizatik kanpokoek, gallenduko ote dute krisis ikaragarri hori?

Herrien zuzendariek, intelektualek eta haundizkiek pentsatuko ote dituzte, pertsona guzien eskubideak defenditzen eta errespetatzen dituzten erreforma eta erreboluzio hori?

Eta ondo burututako programa hoiek egia ta errealitatea bihurtuko al dituzte?

Hala biz.

M. P.

TXEKOSLOBAKIA



Gutxitan ikusi izandu da zinismo handiagorik, fariseismo nazkanteagorik, politika zitalagorik. Belñ eta berriro indarraren legea agintari, indarra nagusi. Sobietarrek eta bere monagilloek, libertadearen usaia entzun ere ez dutela egin nahi demostratu digute. Argi dago, nazioartekotasuna esaten dutenean inperialismoa irakurri behar dela, «kontrarreboluzioa» diotenean benetako erreboluzio sozialista, kapitaldunen inperialismoa altatzen dutenean, sobietar inperialismoari itzala egiten diona adierazi nahi dutela.

«Abertzaletasuna ta rebisionismoa: ara hor, gure etsaiak» zion Mozku'ko irratiak Txekoslobakia'ko gertaerak komentatuaz. Ezin zitekean hobeto mintza. Inperialista batentzat gauzarik okerrena ta bildurgarriena horixe baida: menpekoek abertzale biurtzea. Menderatzaillearen abertzalekeri itsuaren aurka, menderatutakoen abertzaletasun jatorra esnatzea. Baiñan ez hori bakarrik. Rebisionismoa ere bildurgarria da inperialistentzat. Menderatzaillea danean egia zer den erabakitzen duena nola ez da ba izango arriskugarria honentzat menderatuek interpretazio hori zuzena ez izatea gerta ditekela pentsatzen astea?

Gertaera hauek nazioarteko politikarentzat atzerakada izugarria dira, gerla otzaren berpiztea baidira.

Sobietarrak munduko kontserbadoreen aliadu onenean eta seguruenean biurtu dira. Orain, gauzak ez dirala aldatu behar diotenak arrazoi dutela esango dute ta. Hauek, gauzak aldatu nahi dituzten guztiak komunistak dirala esango dute eta sobietarrak ba dakizute nolakoak diran, esango dute irriparrarekin. Jakiña, zapalduak izan diran txekatiarrek nahi zutena ez zela kapitalismora bueltatzea, sozialismo jator bat, sozialismo libre bat jasotzea baizik esatea ahaztu egingo zaie.

Oraiñ edozeiñ gobernuak nahikoa izango du oposizioari «komunista» txartela erastea hau erabat desprestijiatutzeko ta hauen kontra amerikanoen laguntza guztia izateko, Foster Dulles'en garaletan bezala.

Izan ere gerla otzak horixe esan nahi du batez ere: inmobilismoa, mundua dagoen bezala uztea. Beraz, oraingoz gauzak dauden bezala gelditzea komeni zaienak, kontserbadoreak, dira abantailla andienak jasoko dituztenak. Gaiñontzekoak, egoera hontan zapalduta daudenak, izurra ditezelal Lehenago esan dugun bezala sobietarrak eta bere monagilloak biurtu dira —aurretikan ere ba ziran egia esateko— reakzionario ta kontserbadoreen laguntzaillerik onenak.

R. A.

HIRU MILA KATOLIKO ERREZATZEN



Abuztuaren 17'an, Londres'en, Westminster'ko katedralera hiru mila katoliko bildu ziren otoitz egitera, jerarkiak obeki konpreni ditzan ezkontz-prolemak.

«Humanae vitae» enziklikaren ondorioz hamaika esaklzun eta erranbide entzun dira bazter guzietarik. Gauza jakiña, zeren nehork ez zuen espero holako enziklikarik. Harridura. Zergatik baztertu zen Kontziliotik gai hunen eztabaida, Vaticano'ko II'garrenaren izpirituarekin ados bazetorren? Nola holako enziklika, nundik, natalitate-batzarreko guzien iritzia zabalagoa bazen?

Katoliko laikoen artean egin diren inkestetan gauza bat ikusten da: harridura, eta gehienean nahasmendua eta jazardura. Bainan ez jende xehea bakarrik: baita ere intelektualak (horra or, adibidez, Carlo Bo katedraduna, Unibersitate-erretora). Teologilari eta apaizak ere: Hola Karl Rahner batek bere harridura jakinarazi ondoren «beste iritzi batekoa izan ditekeala» manifestatu du.

Bestalde, Bernard Häring, Eliza katolikoak duen moral-irakasle onena omen dana, gizon zuhurra eta moderatua, Aita Santuaren kontseilari eta lagun urkoa, ez da kontent dalako enziklikarekin: Alta Lurran'en agiria firmatu du, beste 450 irakasle ta teologilarlkin ados. Agiri kritiko hortan heien iritzia publikoki ager-arazitzea beharrezkoa iruditzen zaiela diote. Alemania'n ere holako zerbait gertatu omen da...

Guzi honekin gauza on bat ikusten ari gara. Eliza kritika-gai biurtzen ari da. Katolikoak eta «borondate oneko» gizonak beren erresponsabilitatearen kontzientzia hartzen ari dira. Eta katolikuok talde sentitzen hasiak gara eta taldearen martxaz arduratzen.

Gure hiru mila katoliko otoizlarien egitatea hola entenditu behar da. Egitate lardestzaile eta erresponsablea bezala ez «zenbait estremisten erreboltа» bezala. Gertakariak hola judikatzen ez baditugu, oraInarteko Eliza'ren gaitz handienean eroriko gara: triunfalismoan.

I. S.

EUSKAL-MUSIKA ARIÑAREN GAITZA ETA ETORKIZUNA



Aurten Eibar'ko Sanjuanetan berri pozgarri bat eskeiñi zigu-ten antolatzailleak: euskal-kantaren Interpreteen Jaialdia. Bakarka, Estitxu atera zan garaille; eta, taldeka, Pasaiko Oskarbi taldea.

Gaur egunean, Estitxu dugu, zalantzarikan gabe, gure doñua interpretatzeko doaiez aberatsena dan euskal artixta. Agian, oraindlo, internazionalki soñugailluetan gehien nabarmentzen diran kantakera batzuk sobera eraginda arkitzen da. Baiña seguru ogon gindezke bere golko neurriari dagokion musikagille bat arki dezanean, gure euskal-soñu ariñak ba duela bere interpreterik gorena.

Oskarbi, bere aldetik, gero ta gorago ikusten dugu, bai soñugintzan, bai letraren grazian, eta bai antzokian moldatzeko errextasunean ere. Pasaitar gazte hauek, beharbada, esakunearen eta euskal-bertsoaren berezko soñu jator hori gogortu ta legortu egin ohi dute, ritmuaren morrontzan.

Eibar'ko Jaialdiaren lerro naguslak honeski aztertuaz, huts bat ikusten dut garbi asko, euskal-musika ariñak bere baitan gaur duan okerra, hain zuzen. Eibar'ko Jaialdiak huts hau argitara eman zuala uste dut. Gure artean sobera landu nahi dugu artixtaren pertsonatasuna, ta hola aurkezten zaigu zenbait kantore bakoitza bere eresiaren kreatzaille; bakoitza, hitzaren egille ere; eta bakoitza bere kreaziozko armoni ta ritmuz lagundurik. Norberekoikeria honek euskal doñua murriztera, xuhurtzera, kateatzera, desegitera ta galtzera garamazki.

Baldin gure entzuleak goraldutako ta sagaratutako artixta hauek nahi geunken apaltasuna balute, mesedegarri izango litzaloke euskal-kantaren izen onari. Aipagarri dan zerbait egin nahi duenari, harrigarri iruditu behar zalo, pertsona batengan olerkaritza, interpretalaritza ta musikalaritza bateratzeal (Mota hontako «bateratze» hauek egintza baten asleran konprenl-errexak dira, baiña euskal-musika asieran ez-baiña azieran ikusi nahi genuke). Aitatu dugun humiltasun hori eskatzeko arrazoiak sobera ditugu. Artixta holek altor dezatela ba dirala gure Herrian goi-maillako olerkariak; eta, orobat, haintzat ar ditzatela ditugun musikagilleak ere. Horrela, olerkariek beren goi-arnas ezagun hori doiñuaren arau ta neurriak ezagutzen dituzten musikagilleen alegiñarekin gauzatuaz, Estitxu ta Oskarbi ta holako kantore batzuen bidez zabaldu diteke, lau aizeetara, euskal doñua. Baiño batasun hori egin arteño, ez.

Biderdi egin dezatela, beraz, bai olerkariek, bai musikalariek eta bai interpreteek ere. Taldean lan egin beharra daukagu, gure onerako. Bateratu ezkero bakarrik, as gindezke gure-geurea behar duen kantakera serioski aztertzen; hau ere egiteko baitago. Gure ustea da, billatuaz-billatuaz, orkestatzeko ta istrumentatzeko geure jatorrizko erak eta moldeak arki genitzakeala. Benetako euskal-kanta nazio-artean ezagutarazi nahi badugu, bide bakarra hauxe dugu.

M. U.

KREDITOAREN MENPEKOTASUNIK EZA



Bankalarien karguen ugaritasuna elkargaitza biurtzeko lege-gaiak makiña bat istillu sortu ditu! Asmo honen bukaera kontuan artu gabe, planteamenduak zenbait puntu argitu ditu. Azter ditzagun.

Lehendabizi: Españia'ko kapitalismoa moralizatu egin nahi izandu da. Kreditoaren banaketa esku gutxlen artean egoterakoan, liberalismo ekonomikoa biziatu egiten baida. Zer da, orduan, proposatzen dutena? Ekonomilari liberal zintzoenak esango luteken bezala, estaduak bere eginkizunak betetzea, hau da, elbarriturik zegoen «lai-

ssez falre» sendatzea, hots, kreditoaren banaketa esku gutxi hoietatik kendu ta kapazidadeen neurrian zabaltzeko moduan jartzea. Beraz, alde hontatik bat: ezarritako sistema kapitalistari bizkortasuna eman nahi izandu zalo; bi, planteamendu honek kapitalismoa moralizatu nahi izan du, horregatik, duan moral kutsuagatik, demagogia egiteko prestatzen da (estadua bere menpean duten berreun familiak eta altatuaz, noski); iru, utopikoa da, ez baidu sentidurik gizarte guztiaren eraberritzearen barruan ez bada (lege-gaia, azkenerako, oso legundua iritxi da).

Bigarrengoz: hori ikusirik, sistemaren barruan egiten dan aldaketa besterik ez dala ikusirik, ba dira pauso bat eman dutenak, sistema nolabait gaiñezkatzeko esperantzan. Pauso hori bankaren naziotzea eskatzea izan da. Garbi mintzatzeko estadukeria proposatu dute soluziotzat. Ematen dute zer pentsaturik, sozializatzea, gizarteratzea, esaterakoan estadutzea adierazten dutenak. Zergatik izan diteke bankaren naziotzea estadukeria? Zenbait kontestuetan konponketa izan beharrean gaitz berrien iturria izan ditekealako. Izan ere kreditoa estaduak berak zuzen zuzenean banatu ezkero, kreditoa erabat politikatuko litzake. Hori, berez, tresna egokiena izan diteke. Baiñan hortara iritxi aurretik, zenbait galdera behar bezela erantzunda geldituta-koan. Nork eta nola erabakitzen du estaduaren interesa? Estaduaren izenean zer kriterio erabilliko dira banaketa hoiek egiterakoan? Hortxe dago koska. Galdera hauei erantzuna eman aurretik bankaren edo beste edozeiñ gauzaren, estadutzeak ez du sentidurik. Ez du sentidurik, jakiña, herriarentzat. Bakan batzuentzat izan lezake sentidua, ta gaiñera aundia, nork ukatu?

R. A.

ERMUA'ko asmo bat.

IDAZLEEN ALKARTEA



Taldeka ez dezakegula lanik egin euskaldunok, entzun dut behin baiño sarriago. Ba, ba da ordua, diot nik.

Beste guztiak bezela, bateratuta daukagu guk ere Indarra. Horregatik egin nahi da, hain zuzen, Idazleen alkarte bat. Alkarte hau, ene ustez, ez litzake, baitipait, idazleen eskubideak defenditzeko. Hortarako ere bai, noski. Halere, uste dut gure euskeraren egoerak hori baiño egikizun ausartagorik eskatzen duela. Idazle guztiok baturik, euskera literarioaren batasunaren alde lokatu behar dugu. Hortarako jaio da Alkarte hau. Hortarako eta Idazleok dauzkagun erantzukizunak eta betebeharrak kunplitu ahal izateko.

Jaio da, esan dut. Baiña, ez, oraindik ez da jalo. Ermua'ko Euskal-Idazleen Jardunaldien azken egunean, Juan San Martin mintzatu zan hontaz. Hitzegin genuen eta hitzeman giñan, komeni zanez, Alkarte hori sortu behar zala. Eta batzorde bat izendatu zan horren oiñarrizko estatutoak eratu ditzan. Behar dan orduan, emango da honen berri.

Alkarte honen aldekoa naiz, erabat. Bentaja asko ikusten diot. Izan ere, zuzenbidezko agindu bat legez ta onez betearazterik ez dagoenean, onuragarria da ez bakarrik goitik-beherako indarra baizik zearka ta aldamenekoen eragiñez egiten dana ere bai. Ondo edo gaizki, presioka jokatzen da gaur. Diodanaren argigarritzat pontu konkretu bat azaltzearren, lot nakion batasunari. Hara: Euskaltzaindiak ez dauka agindu-bidez lanegiterik. Borondate onaren eskale bat biurtu dugu, zeren idazle bakoitzak nahi duenean jaramon egin ohi dio, ta gogoko etzaionean, baztertu.

Esku-loturik ikusten dut Euskaltzaindia, ta, beharbada, legerik ematen ere ausartzen ez dala. Ta, aldiz, gaur idazlerik gehienak, ene ustez, batasunaren alde gaude. Biltzea daukagu, ta Euskaltzaindiaren erabakiak oro (ditezkeanean) onartuaz, baztertu ditzagun onartzen ez dituztenak. Gure egikizun askok, egun, holako esijentzia eskatzen duelakoan nago.

Alkarte hau on egitera deitua dago. Ta ez zait batere zailla euskeraren batasun literarioren esijentzia ta eskabidea bezela ikustea Alkarte onen sortzea. Ba da hori ere, ene ustez.

J. M. T.

BIOLENTZIA... BEHIÑERE EZ?

Aita Santuak oraintsu Ameriketa'ra egin duen ibillaldi honetan esandakoak entzun ditugunean, askotxori lurreratu egin zaie anima. Zituzten itxaropenak galdu edo egin dituzte. Eta honela diote tristeki: «Populorum Progressio» enziklikatik oso atzean gelditu duk». Hala ote?

«Biolentziaren Aita Santuak» biolentzia gaitzetsiaz esan dituen hitzak, «Populorum Progressio» bere enziklikaren 29, 30, 31 ta 32 atalak bere toklan jartzeko izan dira, atal holetan ohin hartuta, oso aurrera joanak baiziren askotxo. Aurreraegi agian.

Aita Santuak biolentzia gaitzetsi du. Biolentzia gaitzetsi erreboluzio-taktika bezela eta herri baten eragin-bide normal bezela.

Eleizak beti onartu duen Dotriñaren baitan ez da, ezin diteke izan, biolentzi-arazo hau, taktika-arazo, etika-arazo baiño.

Hementxe, hain zuzen, kristau leial ta erresponsabilidadedun bateri sortzen zaion prolema: injustizi-egoera baten aurrean, ekonomi-xixtima desberdin eta zanpatzaille baten aurrean, minori aprobetxatzaille ta tiranidun baten onura zaitzen duen politiku-egitura baten aurrean... zein postura hartu behar du, zein bide?

Moral-prolema ta printzipioak beti dira baliodun, eta postura sendoa hartu du Aita Santuak heurei dagokienez. Eta honela dio «Populorum Progressio»-n: «Matxinada reboluzionario batek —tiranikasu argi ta luze batean ez

bada, presunaren funtsezko eskubideak eta herriaren ona urratzen duen kasu bat ez bada— injustizi berriak sortzen ditu...»

Bixtan dago Indarra erabiltzearen gaitza. Baiña, herriko gizon talde bat (bere eginbeharraz jabetu den taldea) indarra erabiltzera behartzen duten gertaerak edo egoerak gerta ditezkeala ametitzen da, hala ere. Hau ez da, ordea, arbitrariekeri bat, baizik eta moral-printzipio batean du bere ohinarri: «Eragille bidegabe baten kontra bakoitzak bere burua defendi dezake».

Kristauak, bere bizitzan Jainkoz blaitzea billatzen duelako hain zuzen, injustiziaren aurrean, berarentzat moral-arazo denez, erlijio-arazo, postura edo planta bat hartu beharra dauka.

M. M. O.

CHICAGO: hutsa!

Agoztuan EE.UU-etako Demokrata-Alderdiak bere batzar nagusia ospatu du Chicago'n. Eta Humphrey, Lendakari-ordezko orain arte, izan da demokraten kandidato aukeratua.

Zer agertu du Chicago'ko Batzar honek bere funtsean? Demokrazi instituzionalizatuegien hutsa, indar edo presio-talde baten serbitzari diren demokrazien frakasoa. Humphrey'k izan «behar» zuen, derrigorrez hautatua. Bera baizen izan kandidato «ofiziala», egungo administrazioaren semetxo maitea. Berak gordeko ditu ongien amerikar politika ta soziedadearen mito lasaiak: politika ta ekonomi-inperialismoa batetik, eta oparotasun-bizitza bestetik. Egon ditezke lasai, noski, amerikar politika ta ekonomia zuzentzen duten burutxoak. Chicago'ko Batzar honetan ez bide-dute ohiartzunik izan Bob Kennedy izkutatuaren hitzok: «Zenbaitek dauden gauzak ikusi eta galdetzen dute: zergatik? Nik oraindik ez diren gauzak ditut amets eta galdetzen dut: zergatik ez?».

Jakiña, gero dator etorri drama. Gazteen manifestazioak kaleetan poliziaren indar latzari indarrez erantzunaz. Demokrata-Alderdiaren krisisak, kalean eman zalon erantzunak, zalantza sortzen digu: Nun da demokrazia, nun? Instituzio «demokratikoetan», elezio-xixtima ofizialetan?

Nunahl, edozein aurpegitan ageri da etsipena. Amerikar politikak ezin du ezer berririk, berritzaillerik, eman puska batean. Herriaren itxaropen sakonak, pobreen eta beltzen, gazteen, Ameriketa'ko indar berri guztien itxaropenak etsipen-uretan urtu dira, ez dute erantzunik jaso. Egia: Bob Kennedy sutsuaren lastargia Los Angeles'en erori zen ezkero, askotxo bakandu ziren askotxo herriaren itxaropenak. Orain berriz ere kaleetan dago nahasketa. Kandidato liberalenen azken-orduko ahalegiñak hutsean erori dira. Partidu bietan, orain arteko politikari lotuenak zeuden kandidatoei ez zaie zailla izan pakearen, justiziaren eta aurrerapenaren indarra zapaltzea. Biziki errexa. «Geroa, zion hirugarren Kennedy'k Bob'en hilleta-otoitzean, ez da

gaurrarekin konforme diranontzat, ideia ta proiekto berrieri so bildurtzen diranentzat». Tensio ta aurrerapen-aldi hauetan, sozialean eta politikan herriak iratzarten ari diren aldi hauetan, prexixo beharrezko dira bide ta ideia berriak, aurpegi emateko sendotasuna eta soluzioetan tinkotasuna. Humphrey, ordea, arabakien gizona da ta ez erabakiena, erdi-bide ta konformismoaren gizona. Berarentzat benetan ballo duena zera da: indarra, ahalmena, boterea, ta indarra partiduan datza, sindikatoetan, herriko presio-taldeetan.

Denok dakigu jakin Humphrey ta Nixo'en politika zaharrek ezin dutela erantzun tajuzko bat eman eta, noski, proiemak kaleetan jarraituko dute dantzan.

R. I.

MARKUSE'K DIOLA-TA

«Humanae vitae» enziklikak naiko eztabaida arrotu du aspalditxo hontan. Gu ez gera sartuko idazki horren mamian —*libera nos Domine*— ziur *gaudelako*, Elizak emandako dotrinari, osagarri ta argitasun asko **Elizak berak** ezarriko dizkiola aurrerantzean, batez ere, «artifiziala» ta «naturala» konzetuen saillean. Ateak, zabalak dira hortarako.

Dana dala, beste gai bat erabilli nahiko genuke, aitatua izan danetik oso urrutira ez dagoana.

«Dimensio bateko gizona» deritzan liburuan, Markuse jaunak «desublimizaziñoari» buruz diona garrantzirik handienekoa iruditzen zaigu.

Eta zer da desublimizatze hori? Bi hitzetan gaiatuko gera erakusten jakitun ez diran irakurleeri.

«Eros» instintoak, biziaren instintoak, zanpaturik egon behar du, nahi-tanahi-ez, gizarte zibilizatuan.

Hortaz, bi lege edo printzipio jartzen ditu Freud jakintsuak. Lehenengoa, **plazer ta atsegiñaren legea** da. Inkonziente saillean lege hori, lege bakarra da: atsegiña ta miña dira inkonzientearen gidari bakarrak.

Bigarren printzipioa, **errealitatearen legea** da, alegia, gizarteko gizonak Eros'en instintoa zanpatzea ta ezabatzea beharrezkoa dala. Hortan datza, hain zuzen, gizonaren zibilizaziñoa.

Eta gizonak bere lehenengo instintoa honela zanpatzen duanean, beste fenomenu berri bat agertzen da, Freud'ek **«sublimizaziñoa»** izendatzen duana.

Gizonak Eros'en instintoak menperatzen dituanean, bertan sarturik dagon indarra, beste bideetatik zabaltzen da, eta, etorri ere, hortik datoz jakinduria, artea, erlijioa, politika eta bizi hontako eginkizun ederrak oro. Eros' *en instinto reprimituak egin ohi dute Historioa, Freud'en iritzi*z.

Sublimizaziñoa, gauza ezaguna da, Freud jakintsuak berak asmatu bait zuen. Baiñan Markuse'k beste gertaera bat ikusten du gaurko zibilizaziñoan. «Aberats-gizartean», hots, «ugaritasunaren soziedadean», Eros'en plazerrak gozatzeko erreztasun handia dauka gizonak. Plazer hoiek, handiak eta txikiak, erostea erreza da zibilizaziño hontako gizonarentzat. Balezpen honen froga asko ematen digu Markuse jaunak, Eros'en instintoa ez bait da bakarrik sex-instintoa.

«On a souvent noté —dio Markuse'k bere frantzesezko argitalpenean— que la société industrielle avancée opère avec un plus grand degré de liberté sexuelle (...) Les employées de bureau-sexy, les vendeurs sexy, les «managers» jeunes et virils, sont de marchandises qui ont une trés grande valeur commerciale (...) Le sexe s'est integré aux relations publiques (...) On utilise l'energie instinctuelle liberée pour protèger le statu quo» (hau da, sistima eta gizarte industrialaren estruktura).

Bai. Eros'en indarra, ugaritasun-sistima hau indartzeko erabiltzen da eta joera horrek ondore izugarri baiño izugarriagoak ekartzen dizkio gizarteari.

Fenomenu horri **«desublimizaziñoa»** deitzen dio Markuse jaunak. Desublimizaziñoari eskerrak instintoa, zanpatu beharrean, sistimaren saltsan sartzen da.

Baiñan hori egitean, nundik sortuko da aurrerapenaren alde jokatu behar duan indarra? Nehundik ere ez.

Bigarren printziploa, errealitatearen printziploa, gure gizarteetan ez dala operatzen dio Markuse'k, eta esan nahi du, zibilizaziño industrialean, bizíaren plazerrak eskutan jartzen zaizkiela gizoneri. Ondorea da Historiaren eginkizun ta asmokizun handienak hil zorian daudela.

Desublimizaziñoak zibilizaziño-aurrerapenaren alde ez du jokatzen, bere kontra balzik.

Eta nik, nere buruari galdera hau egiten diot: maitasun askatutakoak, «amor libre» ta Eros'en milla plazerrak, progresoaren alde ala progresoaren kontra jokatzen al dute? Ezagutzen dugun sistiman printzipio nagusia, plazer ta atsegiñarena da, dudarik ez.

Berriz ere inkonzientearen legera biurtzen da gizartea.

K. S.

Gaurko "Nota laburrak" idatzi dutenak, hauek dira: Rikardo Arregi. Ramon Irizar. Mikel Mari Otero. Manolo Pagola. Karlos Santamaria. Ibon Sarasola. Joan Mari Torrealday. Manolo Urbieta.

KRONIKAK

Huarte garaztarra

PIZKUNDE-AROKO GOGO-JAKINTZAREN AINTZINDARI BAT

Naparru-Erreinua —lurrez txiki, azalez malkor eta aldapatsu— beti izandu da, alabearrez, kanpoko etsai guzien igaro-lekua. Gogora gaitezen adibidez, Karloman'ek bere zaldun-eusle Erroldanekin egin zuen sarraldi famatu artaz, eta Orreaga'n naparrak eman zioten zafraldiaz. "Egitsari-kantuak" (1) ere —olako gudularien egiteak goraipatzeko konposatzen ziran kantu zaharrak— Naparrorako joera artu ta bertan barreatzen ziran. Ezta arritzeko beraz, Naparroa, askatasuna gorde nai ba-zuen, sekulako burruka latz iraunkorrak egitera bearturik bizi izatea; burruka odoltsuak ziran oiek askotan, gogor-gogorrak; diplomaziaren iskiluuzko burrukak besteetan. Ala egin bear, inguruan zituen erreinuak indartsu, arro ta aundinaiak ziran-eta.

Guzi orrengatik, txit egokiro idatzi ahal izan zuen Dante'k bere "Divina Comedia"-n arako oarpen hura:

> O beata Navarra se s'armasse del monte
> che la fascia!
> (Zorioneko Naparrua, inguruko mendiez
> babestuko ba'litz!)

Baldintzazko zentzua zeukan oarpen orrek, agiri danez; eta alaxe adirazi zuen Viana'ko Printzeak, alako batean eta alegizko

irudi-bidez (2) arako armarri hura tajutu zuenean, artan bi txakur ezur bat zeinek lenago arrapatu agertzen zituela, eta be-aldean onakoxe irakurraldia: "Utrunque roditur" (bi aldetatik karraskatzen ari zaizkit").

Kondairak esaten digunez, egiatik urbillago ibilli zan napar printzea florentziar olerkari ospetsua baiño; izan ere, 1512 garreneko urte artan, bi artzainora aietarik batek —Fernando Katolikoa'ren giza-antza artu ta "zuzentasuna alde batera utzirik", Menendez Pelayo'k dionez—, ezurra oldartu ta egun gutxien barruan irentsi egin zuen.

Erreinuko zatitxo bat —seitik bat añakoa— geratzen zan oraindik, nork irentsiko zai; eta zati ori, bear bezela eldurik eta umoturik, beste artzinoraren urdaillera sartu bearra izan zan, urte mordoxka baten ondoan. Bigarren artzainora ori, kantu zaharretako "galai gordin" hura zan, bere erriko mosketariek bezela edaten eta ezpata-jotzen zekien hura, "meza baten truk" Frantziako koroia jantzi zuen biarnotar on-puska huraxe... Enrike Laugarrena berbera alegia.

Pirene'ko erreinu zaharraren zatikatze orrek, e'naiz ba'naiz-ko egoera bat ekarri zien bertako seme jatorreri: gaur frantses izan bear, biar kastellano, etzi edo etzidamu berriz ere frantses (4) napartar ordea, beiñere ez! Au dala ta zer gerta ere, aberria utzita alde egin zuten askok, iparralderuntz batzuk, egoalderuntz besteak.

Juan de Dios Huartek —gerokoan eta jakintza-munduan Huarte de San Juan (Huarte Donibandarra) izenaz ezagutua izango zana, bere gurasoekin egoaldeko bidea artu zuen; Castilla'ra lenbizi, Andalucia'ko Jaen probintzira urrengo.

Mingarri izan zitzaion gure mutillari, nola ukatu gurasoen erabaki hura. Donibane Garazi'n jaioa —gaur Baxe-Nabarre deritzan eta lehenago Seigarren Merindade zeritzaneko hiri-buru izana— beti eraman zuen biotzean bere sorlekuaren oroitzapen samurra. Orregatik noski, ezkontzeko garaia eldu zitzaionean, galdutako aberritar emakume batekin ezkondu nai izan zuen, Ageda de Velasko zeritzana emaztetzat arturik (5).

Arrosa koloreko erritik, eremu latz eta gogorrera.

Ba-zan Donibani Garazi, izan ere, Huarte'ren biotzeko maitasun eta erri-min oiek piztutzeko diña. "Arrrosa koloreko hiria"

deitu dio nunbaiteko olerkari batek, eta alaxe dugu Donibane: arrosa-kolore dute bertako eliza gotikoak, kanpantorreak eta zubi zaharrak; arrosa-koloreko dira Obispoen presondegia ta antxiñako arresiak; eta arrosa kolore, Ur-handiak —Ia Nive ibaia, euskaraz— oiñ-aldean bustitzen dituen egal-aundiko etxeak ere...

Nabarmena benetan, bi lurralde aien arteko desberdintasuna! Huarte'tarrak utzitako lur alaiaren eta arkitutako eremu "latz eta gogor" aren artekoa alegia!

Linares'en bere gurasoekin urte batzuk igaro ondoren, Juan de Dios Alcalá de Henares'a aldatu zan, ango Universidade (edo Ikastetxe Nagusi) famatuan medikuntza ta Filosofiako jakin-gaiak ikasteko asmoz. (Marañon jaunak, napar-jakintsuari buruz idatzi zuen saio labur mamitsu batean (6), Huesca'n egin zituela, dio, ikaskintza aiek; oker dago orretan, Alcalá'n eta ez Huesca'n egin zituen-eta).

Antzeak ikertu eta txastatu.

Huarte gaztea 1553 gn. urtean matrikulatu zan Alcala'ko Ikastetxean. Somatu zitekean garai artan ere gure gaztearen iaiotasun arrigarria, bere gaitasun berezia batez ere gizonak eta gizonen izakera —naiz ixtudianteena, naiz irakasleena— zorrozki ikertzeko. Vigur Aramayona'k jakin-azten digunez, beiñere ez zuten berenganatu ixtudianteen jolas eta ibillera zoroek ta ez lilluratu ere irakasleek dialektika ta erretolikarako zelatasun dirdaitsuak. Ikas-tenplua zan Universidadea beretzat, tenplo bare ta sakona. "Antzeak ikertu ta txastatu", ona orduko bere ikurritza (7).

1555 gn. urtean, Medikuntzako batxiller-maillara iritxi zan. Eta 1559'ko abenduaren 31'an eta oiturazko ospeaz, "doktor" izenarekin batean, ele-ederretan (Humanidades) jarduteko agiria eman zioten, bere ikaskide guzietan lehena zalarik.

Laister asko erakutsi zuen zenbaterañoko gizona zan. Baeza hirian izurrite bat sorturik, Huarte'k bere burua eskeiñi egin zuen, hura "geldiazteko"; eta su ta gar alegindu ondoan, bere asmoak bete-bete lortu zituen. Erriko kontsejuak orduan, trebetasun aparteko gizona ta jakinduri aundikoa zala ikusirik, bertako sendagille jator izendatu zuen (8).

"Antzeen azterketa". Nola mamitu zan liburu ezilkor au.

"Jakinduri aundiko gizona" omen zan... alako aipamena ongi merezia zuela erakutsi zuen, andik gutxi barru, napar doktoreak, bere liburu ezilkorra (9) argitara emanaz: "Jakintzarako antzeen azterketa. Nun-eta agertzen bait-dira gizon bakoitzak bere-bere dituen antze edo abilidadeak, eta nolako ikaskintza dagokion bakoitzari. Obra onetan arkituko du irakurle arretatsuak nolako dan beraren antzea, eta ikasiko du aukeratzen probetsurik aundiena eman lezaioken jakin-gaia; eta, menturaz aukeratua baldin ba-lu, zuzen al oker aukeratu ote duen ezagutuko du. Juan Huarte Donibandarrak konposatua" (10).

Idazpuru edo titulu luze orretan azaltzen dira egillearen bi xede nagusiak. Lenengoa: giza-antzearen gaitasun bereziak ikertu ta ezagutzea; bigarrena, gaitasun oietako bakoitzari egokienik datorkion jakintza edo ogibidea ezartzea, onela onik aundiena atera dezaken.

Bestela esan: lenengo aldiz eta jakintzazko oiñarri sendoez finkatu zuen bokazione edo deiaren joera, bokazione ori dalarik, Ortega y Gasset'ek dion bezela, "gure egiazko izangoak egiten digun deia, dei aginkor eta ezin ihardokizkoa". ("Llamado imperativo, irresistible de nuestro auténtico destino"). Marañon'ek berak baitetsia du irixpen ori: "Huarte'k, deien-joera (orientación de las vocaciones) ori finkatu zuenaz gaiñera, areago ere egin zuen, alegia: giza-soiñeen tankerak eta gizonaren barne-giroak elkarrekin dauzkaten zer-ikusien problema igarri zuen argiroki; izanikan problema ori, ain zuzen, gaurko jakintzak duen kezkabiderik aundienetako bat".

Argi ta garbi esan dezakegu bada, gaurko psikolojiak (edo gogo-jakintzak) esperientziaz eta fisiolojiaz baliatzeko duen zaletasuna, Huarte'ri zor diola, bera izan baita bide ortatik ibilli-azi zuen lehena.

Aita Iriarte jesuitak —egilleari ta beronen obrari buruz guk ezagutzen dugun istudiorik zeatzena idatzi duenak (11)— kontatuak ditu obra onetarik egindako argitaldiak, 1936 urterarte ta erri guzietan. 70 ortxe-ortxe, bai gazteleraz eta bai gaiñerako izkuntzetaz. Azken oen artean, aleman itzulpenari oberena derizkio, Lessing'ek egin eta komentatu zuenari alegia (12).

Alaz ere, ainbeste itz laudoriorekin bat ez zetorren norbaitek nota gozakaitz bat entzunerazi zuen goresmeneko koru orretan: Aita Jeronimo Feijóo dugu gaizkiesale ta maixeatzaille ori: "Autorearen physikak ozta-ozta balio du —esaten du Feijóo'k, enpoz beterik— bera izkiriatzen gastatutako tinta" (13).Aipatu utsak min ematen du: liburua gutxienik saldu ta ezagutu zalako erria, Espaiñia izan zan. Entzun dezagun Ramon eta Cajal'en epaia: "Nunnaiko "santxopanzakeri" negargarri bat, alde batetik, eta filosofiaz eta jakintzaz ezer gutxi ajolatzea bestetik, orra gure aberriaren eritasunik yitezkoena",

Fede-Auzitegian.

Español irakurlea ardura gutxikoa ba-zan, FedekoAuzitegia berriz, ardura geiegikoa, zorotzegia agertu zan. Baimen-emalleak (zensoreak) Huarte'ren liburua goraipatu egin zuten eta argitaratzeko baimena eman; ala ere Tribunal arek kondenatu egin zuen eta iñausipean ezarri. Olako epaia emateko aitzaki bat izan zuten noski: garunak (14) adimenarekin alkar-ikusteak ba-dituela dio autoreak, eta ikaskintza edo doktriña orixe artu zuten aitzakitzat. Onela beraz, arimaren ez-ilkortasuna ikertzen zuen kapitulua kenduazi zuten errotik (15). Eta beste aldakuntza batzuk agindu ere bai, esate baterako, onela idatzitako parrafo alek: ba-dute abereak, animaliak, ala-olako adimen mota bat, zuhurtasun edo birtute iduriko zer bat, ala nola urrikaltasuna, zuzentasuna eta abar. Azkeneko zatia ere moztu zioten liburuari, Jesukristo'ren barne-giro edo tenperamentuaz mintzatzen zanekoa alegia.

Huarte'ren liburuari ongi-etorri bero-bera egin zioten atzerriko gizon buru-jantzi guziek; eta orrexetan dugu, noski baño noskiago, balio aundi-aundikoa zalako probarik onena, ez bakarrikan mintzaeraren aldetik, baita jakintzarenetik ere. Bordeu'k dionez, napar jakintsuaren gogaiak Montesquieu'ren "Legeen izpiritua" deritzan liburuan arrasto nabaria utzi zuten. Eta Floegel'ek "jeinu"-tzat jotzen du Huarte, "Adimenari buruz" bere liburuan. Gall eta Lavater jakintzalariek, beren aldetik gaurko frenolojiaren aintzindari bezela begiratzen diote; eta Borinski'ren iritziz, aren liburua garunen lenengo topografia-saioa izan zan.

Garun-tankera ta antzearen joerako tesi ori, Diego de Aroza erronkaritar sendalariak egiaztu zuen XVII gn. mendean. Ona Aroza'ren liburuaren izena: "Medikutzaren bikaintasun eta baliotasunen gordegaillua ta miriku zuhurren ixpillua (16). Aita Iriarte'ren esanari ba-gagozkio, obra ori —Aroza'rena alegia— "XVII gn. mendeak utzi digun obrarik estimagarriena da bere eiñean".

Pizkunde-aroa, Aldakuntza-mendea —esan nai genduke guk, geren kabuz— goren-goreneko gizakiak frangoki, nasaiki ta ugarienik eman zizkigun aro emankorra! An ta emen, usterik gutxieneko lekuetan eta Jainkoak daki nolatan sortutako gizakiak... gure Huarte bezelaxe, beste eunka ere: Tomas Moore, Eneko Loiola'ko, Erasmo Rotterdam'eko, Lutero, Rabelais, Paracelso, fr. Luis de Leon'eko, Mikel Anjel, Montaigne, Lope Vega'ko, Ronsard, Quevedo... bai eta, beste ainbesteren artean, arako hura ere, Agintarieredu bat asmatu zuen Macchiavelo deabruzko huraxe, geroko jendeek ain oker, ain maltzur eta ain asmo gaiztoz imitatu (itxurikatu) duten Macchiavelo famatua ere...

Cervantes'en eragille aundia.

1905 gn. urtean eta gutxien uste zalarik, entzute berri bat, ozen eta zabala, lortu zuen Huarte'ren liburuak, Cervantes'en On Kixote liburu gallurrenaren irureun urteak ospatzeko garaia eldu zanean. Ain gertaera gogoangarria bear bezela oroit-arazteko asmoz, ezin konta ala ixtudio, saio ta artikulu agertu ziran; oien artean liburuxka bat azaldu zan, jendeen jakin-naia piztu ta amaika eztabaida sortarazteko zetorren bat. Rafael Salillas zigor-lege gizon (penalista) argiaren saioaz ari gera alegia: "Cervantes'en gogo-eragille aundi bat: Doktor Huarte de San Juan eta bere Atzeen azterketa" (17). Tesis ori, bitxi-bitxia, oi-gabekoa ta begirune eskaxekoa" iruditu zitzaion Cervantes'tar idazle famatu bati. Ala ere, Españiko ta atzerriko kritikalari askok arreta aundiz eta sakonkiro aztertuz gero, geienek onartua izan zan azkenik.

Gai ontaz nai genduken guzia esango ba-genu, luzarotxo arituko giñake; eta ala, labur bederik, "Cervantes'ek Huarte'gandik artu zuen gogo-ixurki" dalako artaz (gogo-menpetasuna) zerbaitxo esango dugu. Esan dezagun lehenik, espaiñiar penalistaren

tesiak —jakituri aundi ta buru zoliko gizona baitzan— oarkizun eta burukizun sarkorrak ba-dituela, Cervantes'i dagozkion ikaskizunetan iñork iñoiz ere esan ez zituenak. Atera diote —nola ez!— makiña bat akats eta uts; Camille Pittolet españi-zale ezaguna da *aren etsaietarik bat, baiñan Salillas'en aurka mintzatzen danean*, aren kritika asmo okerrez egiña duela deritzaigu, erdeiñuzkoa ta ixeka-usaitsua. Salillas'en aldekoak orratik, kontrakoak baño ugariago dira ta beren esanek aienak baño kemen eta giar aundigoa dute. Willian Confort inglesa izan zan, eginkizun orretan gauzak argitu ta beren lekuan ipiñi zituena, Salillas'en argumentuak osotoro onartuaz; aren atzetik etorri zan gero komentalari andana zorrotz bat, ala nola Bonilla San Martin, Diaz eta beste zenbaitzuk; eta guzien nagusi Mauricio de Iriarte jesuita. Huarte'ren teoriaz eta Salillas'en tesiaz egin zuen saioari, gain-gaiñeko ta ezin-obea deritzaiogu, gaia saiets guzietatik ikuskatzen du eta (18).

Irakur zer idazten duen A. Iriarte'k bere liburuko zati batean: "Cervantes bere obretan Huarte'ren liburuaz baliatu zan, ez ordea gain-giroki, baizik bere sorkarien (19) izate-muiñetaraño sakonduaz, barrenduaz. Kixotea Antzeen azterketaren siñu-pean bizi ta il zan. Gizurenaren (20) izakera asmatu eta gero zuzen-zuzen gidatzen, eraman bear zuen bidetik eramaten, beronen bi egiturak —gogozkoa ta gorputzezkoa alegia— elkarrekiko neurrian egokituaz, ona Cervantes'ek Huarte'gandik artu zuen gogo-eragiña. Eta ez zazute uste jakin ezean edo ustekabean egin zuenik guzi ori Cervantes'ek, ez; jakiñaren gaiñean egin zuen. Ziur zegoen-eta —Huarte'renean irakurrita— ba-litekean gauza zala, soiña nolakoa zan jakinda arimaren berri jakitea, eta alderantziz: animaren berri jakin ezkero, gorputza nolakoa zan jakitea ere".

Cervantes'ek On Kixoteren erotasunaren goraberak eta aintzingibelak azaltzen dizkigunean, bi iku-aldi erakusten ditu, bi gogai, bi ideia nagusi, olako gaixotasuna esplikatzeko giltza diranak, nolabait esateko; eta bi gogai oiek Antzeen azterketa'n arkitzen dira, bertako psiko-patolojiaren barutian erortzen dira bete-betean. Entzun: garunak igartu ondoren, umoreak (21) ondoezak jota gelditzen dira eta irudimena ere min artuta. Aitor-seme antzetsuari "lo gutxi egitetik eta geiegi irakurtzetik igartu egin zitzaizkion garunak..." orixe bait-zan noski Cervantes'ek Huarteren liburuan ikasia zeukana, alegia: "egun-argi osoko esnaldiak garunak

igartu, moteldu egiten dituela; gabeko lo-aldiak berriz, ezetu ta indarberritu".

Antzeen azterketa'tik gure Antzetsuen printzeaganaño.

Beste oarpen ardurazkoak ugari egiñik, textoak, itzak eta esakuntzak bekaldetu (22) ta aien elkarrekiko zerak arakatu ondoren, onakoxe bukaera ematen dio aita Iriarte'k bere billakuntza zorrotzari: "Ez dezala iñork ere zalantzan ipiñi, Huarte'k Cervantes'gan egindako ixurki edo influentzi ori. Ba-dugu, egia ori argi-argitan jartzeko, nai aña argibide; bien obretan ain sarri arkitzen ditugun bat-etortze ta adostasun oriek ezin ditezke jakin ezean ta ustekabean sortuak izan; barruko mamiak ere adirazten digu argi ta garbi berau Huarte'rena dala ta ezin izan ditekela beste iñorena; Huarte'gandik artutako ixurki ori, formalago da materiala baño. Cervantes'en gogoa pentsa-molde berrietara makur-erazi, izakera-jakintzan erraiñu sotillak igarri-azi, bere barneko ikusmena zorroztu-azi... orra eragin orren ondorioak.

Antzetsuetan lehena, "Printzipe" izan zanak, "Antzeen azterketa"-ri esker agertu ahal izan zuen beraren antzea mundu-aurrean; eta Huarte'ren sorkarien odola ba-dabil Aitor-seme antzetsuaren zaiñetan ere.

Beste olako gogakizun sarkor batzuen ondoren, onelaxe bukatzen du A. Iriarte'k: "Zernai izan dadin, Cervantes egilleak Huarte bere eragilleari eskeiñi nai izan dion omenaldi gisako bat, igarri nai luke Salillas'ek —ta zein ederki igarri ere— obra illezkorraren tituloan".

Miresgarria bai, azken-itz ori! sakon eta argitsua, bera idaroki (23) duten bi antzedun —edo obeki esan, bi jeinu— aien diñakoa benetan!

(1) Cantares de gesta.

(2) Alegizko irudi-bidez: en forma alegórica.

(3) Artainora: artzai-txakur.

(4) Fernando izengoitiz katolikuak 1512 gn. urtean Naparroaz jabetu zan ezkeroz, erdipuerdiko egoera batean gelditu zan Donibani Garazi, Seigarren Merindadeko hiriburu polita. Aren seme Karlos I'k

hirira bear bezela defenditu eziñik, or kontron esanda bertan bera ta aren esku utzi zuen, 1530 gn. urtean. Ordutik aurrera ta 1660 arte erdi askaturik bizi izan zan. Baiñan Garazi'ren herritasuna —legeari buruz— ongi mugatua ezpaitzegoen, Naparro'ko beste eskualde batzuk aren aurka jarri ziran, beraren kontrako agindurak eta neurriak asmatuaz. Era askotako istillu ta bidegabekeriak sortu ziran orduan Garazi'ren kaltez. 1660 gn. urte artan Pirineos'ko paxea firmatu-eta, Frantziari betirako itsasia geratu zan.

(5) Garaztarra zan Ageda de Velasco ere. Bere familia sorlekua utzita Kastilla Berrian oiñarritua zegoen, Tarancon eskualdean, dirudinez.

(6) Marañón, Gregorio: "Examen actual de un examen antiguo". (Cruz y Raya, 15-XI-1933. —Cultura Navarra, I (1933) 133 orr.).

(7) 'Cala y cata de ingenios". Meloe bat erosi baño lehen egiten dan bezela, ots, puskatxo bat kendu eta txistatu, barrukoa nola duen jakiteko.

Antze: arte, destreza, ocupación, talento. Gizon antze aundikoa, hombre de gran capacidad o talento. Eta ortik ateratzen dira: antzedun, antzetsu, ingenioso; antzegabe, falto de ingenio. (Azkue'ren eta Lhande'ren iztegietan).

(8) Ba-dirudi bi urteko kontratua egin zuela Huarte'k Baeza'ko kontsejuarekin. Zer gertatu zan gero zearo ez dakigu. Berriztatu egin ote zuten kontratua ala ez? Huarte beintzat bertan gelditu zan 1592 gn. urtean il zan arte.

(9) Ezilkor: il-gaitz, il-eziña. Egokiago dirudite itz oiek, "illezkor" baño, au askok darabilten arren.

(10) Ona liburuaren jatorrizko titulua: "Examen de ingenios para las sciencias. Donde se muestra la differencia de habilidades que ay en los hombres, y el género de letras que a cada uno responde en particular. Es obra donde el que leyere con atención hallará la manera de su ingenio y sabrá escoger la sciencia en que más ha de aprovechar; y si por ventura la uviere ya profesado, entenderá si atinó a la que pedía su habilidad natural. Compuesta por el Doctor Juan Huarte de Sant Juan, natural de sant Juan del pie del puerto. Va dirigida a la Magestad del Rey don Philippe nuestro señor Cuyo ingenio se declara, exemplificando las reglas, y preceptos desta doctrina. Con privilegio Real de Castilla, y de Aragón. Con licencia impresso en Baeça, en casa Juan baptista de Montoya".

1575'ko lenengo edizio (Principe) hau, Inkisiziñoaren aginduz, zuzendu bear izan zuen Huarte'k. Onek bigarren bat antolatu zuen, 1594 gn. urtean bere semeak —hura il ondoan— argitara eman zuena (sub-principe). Ona beronen titulua:

"Examen de Ingenios para las sciencias. En el cual el lector hallará la manera de su ingenio, para escoger la sciencia en que más á

de aprovechar. Y la differencia de habilidades que ay en los hombres, y el género de letras y artes que a cada uno responde en particular. Compuesto por el Doctor Juan Huarte de sant Juan. Agora nuevamente enmendado por el mismo Autor, y añadidas muchas cosas curiosas, y provechosas. Dirigido a la C. R. M. del Rey don Phelippe nuestro señor. Cuyo ingenio se declara, exemplificando las reglas y preceptos desta doctrina. Con nuevo privilegio del Rey N. S. Impresso en Baeça. En casa de Juan Bautista de Montoya. Año de 1594".

(11) Mauricio de Iriarte: El Doctor Huarte de San Juan y su Examen de Ingenios. Contribución a la historia de la psicología diferencial. 1ª ed. Münster, 1938 (Spanische Forschungen der Görresgesellschaft. Reihe II. Band 4). 2ª ed. Santander, imprenta Aldus. Editorial Nacional, Ediciones Jerarquía (Madrid) 1939-40. 426 pgs. 24 x 17 cm.- 3ª Edic. corregida Madrid 1948. Consejo Sup. de Investigación Científica. Impr. Vda. de Pueyo. 425 pgs. + 1 hoja. 25 x 19 cm.

(12) Argitaldi oietarik 25 erderaz (gastelaniaz), 24 frantsesez, 7 italianoz, 6 inglesez, 3 latiñez, 1 holandesez, 2 alemanez. Ez da bat ere gaizki!

Erderazko azken argitaldi osoa 1930 gn. urtekoa da. Edizio ederederra, Rodrigo Sanz jaunak antolatua ta oarkizun ugariz ornitua. Arrezkeroz ez da agertu besterik, "Colección Austral"-ekoa baizik (599 zenbakia) 1946'an. Ondikotz, azken onek obraren lenengo 10 kapituluak bakarrik dakarzki, 22 izanik ere.

Badago gaiñera auta edo antolojia bat, Huarte'ren obrako kapitulu batzuez osatua: "Breviarios del pensamiento español". Doctor Huarte de San Juan. Selección y prólogo de Emiliano Aguado. Ediciones FE. 1944. Madrid. 161 pgs. Au eta Austral'ekoa salgai arkitzen dira dendetan; ez ordea besteak, nunbaiteko liburu-zaharreko dendaren batean izan ezik.

(13) B. J. Feijóo. Cartas. Vol. IV 1753, 301 orr.

(14) Garunak: burumuiñak, cerebro.

(15) VII kapitulua alegia.

(16) Aroza, Diego de: "Tesoro de las excelencias y utilidades de la medicina y espejo de prudente y sabio médico. Enriquecido y iluminado con varia lección. Y principalmente con la vida del príncipe de médicos, y médico de príncipes Avicena. Publicalo el doctor Diego de Aroza de nación navarro roncalés y natural de la villa de Garde. Con licencia. En Lérida por Juan Nogués impressor de la ciudad y su Universidad. Año 1668". 8º 16 hojas, más 380 pgs.

(17) Salillas Rafael: "Un gran inspirador de Cervantes: El doctor Huarte de San Juan y su Examen de Ingenios". Madrid, Victoriano Suárez. 1905.

(18) Aita Iriarte'ren aipatu-liburuan. Gai ortaz 311-332 orrialdebitartean mintzatzen da Iriarte jauna, luzaro, sakonki, argiroki. Libu-

ruko zat ori R.I.E.V.'en ere argitaratu zan: "El Ingenioso Hidalgo" y "El Examen de Ingenios". Qué debe Cervantes al Dr. Huarte de San Juan. (Año 27, tomo XXIV Nº 4. Oct. Dic. 1933).

(19) Sorkari: producto, producción.

(20) Gizurena: héroe.

(21) Umore: humor, materiazko zentzuan artuta.

(22) Bekaldetu: konparatu.

(23) Idaroki: inspirar (Mendiburu'k erabillia).

Azken oarra: Eta zer, euskaraz, Huarte euskaldunari ta bere obrari buruz? Ez dut nik lantxo bat baizik ezagutzen; "Prosistas Navarros en lengua vasca" deritzan liburuan (A. Irigaray jaunak argitaratua) irakur diteke, "Manexaundi"-k idatzia. Laburra baña polita, alako idazle jator bikaiñari dagokion diñakoa.

Egillea: Isidoro FAGOAGA

Euskeratzaille: R. Bozas-Urrutia.

- **Gizonak zenbat zentzu ditu?**
- **Bost? Gehiago ote?**
- **Ta zelakoak dira beste horiek?**

Parapsikologia: zientzia berri ori

Jakintza gai berriak oso lilluragarri eta erakargarriak izaten dira, baiña gitxi bide dagoz gizonaren zentzu eta psike-alderdi ezezagunak baiño tiratzailleagoak.

Ni, egia esan, bortizki iharrosten naute ezkutuek eta areago oraindik, nigan susmatuak diranean.

Parapsikologia zientzi berria da oraingoz, hasikeran diharduen bat, baiña bere susterrak sakonki sartuak ditugu garai guztietako gizonengan.

Sorgiñak, astiak, erlijio ezkutuak eta abar parapsikologizko fenomenuz eta agerpenez baliatu dira eta baliatzen orain ere.

Zientzi sail hontan asko hari dira bide birjiñak urratu nahiz. Estadu batzuetan, komunikabideen arduradunek oso ixilpean daroazte hontaz egiten dituzten argipenak.

Baiña has gaitezen behar dan moduan. Zer da parapsikologia? Zein bere arloa?

Parapsikologia zentzu izkutuak aztertzen dituen zientzia dugu. Berauek beren agermenei esker ezagutzen ditugu nolabait.

Batzuen eritziz, parapsikologiak arakatzen eta argitzen dituen zentzu izkutuak hauexek lirake:

a) Telepatia edo urrutiadimena.
b) Psikokinesia edo gogozko higidura.
d) Aurreigarmena edo geroko jazokizunen jakituria.

Nire iritziz ataltze edo sail bereizte hau ez da bat ere zehatza ez bidezkoa. Geroago esango dut zergatik.

Azter detzagun hiru atalok.

Urrutiadimena —hitz hau gogokoagoa zait telepatia baiño— zenbat pertsonagan gertatzen dan zentzua da, hitzik, hotsik, kiñurik ez adigarririk bat ere egin bage, iñork pentsatzen duena "entzun", ulertu edo aditu (aditz hau egokiago) erazi egiten duena.

Urrutiadimena, beraz, buruzko adierazbide bat da, edo adierazbide bat ematen digun zentzu bat.

Zentzu hau ba dala guztiz probaturik dago gaur. Saio asko egin dira hontaz. Pertsona bi, elkarrengandik urrun ipiñi eta erloju akort bana daroatela, urrutiadimenez bidal detzaiokete elkarri beren ideiak nahiz ta kilometro asko egon bien artean. Erlojuei esker, lekukoek jakin dezakete bidaliriko eta adituriko ideien berdintasuna.

Urrutiadimenez pentsakera molde guztiak bidal leitekezala dirudi, eta baita irudiak ere. Esate baterako, batek txori bat, etxe bat edo biribillune batzuk pentsatu eta besteak har detzake guztiok, buruz, urrundik eta paper batean jarri.

Ameriketan hontaz ihardun sakonak egin dira eta egiten. Hauetako bat azalduko dut, argiena dalako, noski.

Pertsona bi aukeratu ziran (urrutiadimen nabari nabarikoak) eta bata legorrean utzirik, bestea, itsaspeko untzi batean sarturik, hiru milla kilometrotara eroan zuten eta bertan 300 metrotara murgildu.

Aukeratu biek zeduzkaten erlojuak batera. Legorrekoaren aurrean makiña batek nahaspillatzen zituen automatikaki Zener karta batzuk (karta hauetan bost irudiok ikusten dira bakarrik: izar bat, biribillune bat, hiru lerro olatuak, lauko bat eta gurutze bat, eta honelako igarmen saioetarako erabilliak dira).

Egunean birritan, hamasei egunean, karta bana erakusten zion makiñak eta ikusleak pentsatu egin karta hura.

Ordu berean, itsaspekoan zegoanak idatzi behar zuen zein karta zan legorreko lagunak pentsaturikoa. Egunero, untzi kapitaiñak hartzen zituen eta azal sillatu batean gorde.

Geroago, legorrera bihurturik, lagun bien idatziak ikusi zituen ondoan eta argiro probatu nola %ko 70 baiño gehiagotaraiño igarri zuen. Hau da halabeharrez edo kasualitatez askoz baiño gehiago.

Saio hau egin zanetik (1.959'gn urtean) beste aunitz ere egiñak dira, seguru asko. Inglaterran, Errusian, Txiñan eta beste toki askotan ere iharduleku bereziak egin dira zientzi hontaz.

Psikokinesia are zentzu harrigarriagoa dugu. Buru ahalmenez edo gogoz gauzak erabiltea zentzu gaitz eta ipuiñeko dala dirudi.

Ez da pentsatu behar psikokinesia iharroste eta eragite indar hutsa danik. Funtsean, ahalmen honek meneratu eta azpiratu egiten ditu izadiaren beste zenbait indar.

Psikokinesiaren agerpen batzuk hauetxek dirateke. Lebitazioa, hau da, gauzak (mahai edo jesarleku bat adibidez) lurraren erakarte indarretik askatu eta airean kolokan edo jasoten uztea. Honelakoak izpiritizten saio eta ihardukera ixilletan egiten dira.

Beste bat dadoak jaurtitean agertzen da. Hontan, psikokinesidunak berak nahi duen dadoaren aldea agertzen da gehienik (makiñaz botatzen dira eta gogozko aldea aurretik esanik).

Beste psikokinesizko erakuste bat Indietako fakirrena dateke. Noizbait, Reader's Digest'en Selecciones batean —aspaldion ez dut aldizkari hori irakurtzen, darion amerikar indarkerizale-kutsua dala kausa—, ez dakit zenbakarrean, idazle batek egindako turismoazko lantxo bat irakurri nuen. Egilleak berak ikusirikoa omen zan. Hauxe zan.

Erlijio zeremoni batzuetan, hosin bat zegoan ahuntz esne sakratuz beteta. Hosin hartara joateko bidea harrillu goriz orniturik zegoan eta oiñez, ortozik, joan behar zuten hinduista debozionetsuek.

Sua benetakoa zan, ez zegoan dudarik. Amerikar idazleak berak papertxo bat bota zuen harrilluetara eta berau sutan hasi zan harrilluetara heldu baiño lehen. Bestalde, beroa oso nabaria zan ikusle ugariak zegozan alboetan.

ikusle ugariak zegozan alboetan. Gaiñera, gazte zorokillo eta fede

Gaiñera, gazte zorokillo eta fede epeleko asko herreten ziran harrilluetan miñezko deadar izugarri artan.

Baiña fakir saindu eta erlijio berokoak astiro zebiltzen harrillu

gorien gaiñetik aihenik bat ere atera bage eta min antz barik. Andre zahar agurgarri asko ere berdinzki zebiltzen herre bage.

Ez pentsa fakirrek eta andre zaharrek gorde egiten zutenik herreduren miña, ez. Esne hosiñera joanik, han lasaitzen ziran eta etorririk beren oiñek ez zuten herredurarik ttikienik ere agertzen.

Mirari bat ote? "Ba leiteke'. Kristok berak ere esan zuen noizbait: —"Bene benetan diotzuet, egiazko federik bazendute, mendi horreri "hoa hortik!" esanez gero, mendi hori joan egingo litzaizueke".

Ta parapsikologiaren hirugarren arloa aurreigarmena dateke, geroko gertakizunen aurretik jakitea.

Hontan aski entzun dugu guztiok, beronek bizi bizirik diraue-lako. Antziñan, grekoen baitan, geroaren aztertzea oso haintzat hartua zan. Delfosko pitonisak, judu herriko igarleak, erromatarren augurioak (hortik Euskerazko "agur eta zorionak", hau da txori onak opatzea, hegaztien hegalada eta ibillera onetan etorkizunaren kakoa zegoalakoan) eta egungo buhame edo ijitukoen "kartak botatzeak", era bat berdiñak zaizkigu. Guztiek erakusten digute nolako kezka duen gizonak geroaren aurrean.

Bestetik, gaurko aldizkariak hostokatzea besterik ez dago, igarritasun arazoek zelako garrantzi haundia daukaten askorentzako, ikusteko. Horoskopoak hortxe dagoz, milloi askoren eguneroko ogia eta jokabidea baliran.

Berripaperek, noizean behin, oraingo igarleen berri ematen digute. Oso sonatua izan zan J. F. Kennedy presidentearen heriotza igarri zuen andrearen kasua.

Hitlerren garaietan lamak egoten ziran Berlinen, politika gora beherak eta gerla arazoen etorkizuna profetizatzeko.

Nundik datoz ahalmen berriok? Nortzuengan dagoz eta zergatik? Ba dira zenbait jakitun igarmen ahal hau guztiz ontzat hartzen dutenak. Beren eritziz geroa jakin daiteke misterioski. Nik ezin dut horrelako uste merke eta proba bako hori siñets. Azalpen bat eduki behar dute igarmenkiek ere.

Ez noa ni beste munduko eritzi harrigarririk ematen. Hala ere, zenbait alderdi berri konsidera erazi nahi nizkieke irakurleei.

Eguneroko parapsikologizko gertaera batzuk.

Honen urrengo aipatuko dudana sarri gartatu zait niri, eta lagun askorekin mintzatuz gero, aunitz pertsonari jazoten zaiela konturatu, gehienei, noski.

Egun batean, kaletik goazalarik, gehiagoko barik, zergatik ez dakigularik, aspaldian ikusi ez dugun ezagun edo lagun batégan pentsatzen dugu. —Zer egingo ote du Urliak?— diogu kolkorako.

Ta segundu batzuek geroago, kale ertzean edo handik laster, aurkitu egiten dugu pentsaturiko laguna!

—Hau da kasualidadea!!!—, esan ohi dugu, eta irriparrez kontatzen diogu gertaturikoa. Baiñan gero, laster ahaztuten gera hortaz.

Euskeraz ba dugu esaera zahar bat honeri buruz: Otsoa aipatu eta otsoa atean. Espaiñeraz ere ba dago beste bat, nahiko itsusia gaiñera. Ez dakit beste hizkuntzetan antzekoak egongo diran, baiña baiezkoan nago.

Gertaera hauek kasualitatezkoak balira ez lirake hain sarri agertuko eta ez legokez iñola ere esaera zahar bihurturik. Maiz jazoten danak bere hala beharrezko eta kasualitatezko jantzia gal dezake.

Oso entzunak dira bihozkadak ere. Amak igarri egiten oi du beraren semearen arriskua. Seme bat, Ameriketan dagoalarik, itzarri egiten da ikaraz gau erdian Europan bizi zaikon aita hil dalakoan. Honelako bihozkadak edo igartzeak sarri betetzen dira.

Zer esan leiteke hauei buruz? Benetakotasunik ote dute? Niri gertatu zitzaidana kontatuko dizuet:

1966'gneko Jarraillaren 28'an, Iruñako Unibersitatean ikasten hari nintzan. Egun batzuk lehenago gurasoen idazki bat jaso nuen eta hargatik ba nekien egun hartantxe ni ikustera etortekoak zirala, Bilbon harakiñen jaia izaki.

Apupilo nengoan etxera heldurik itxoiten hasi nintzan. Eguerdia zan eta ez ziran oraindik aillegatu.

Aguro pentsatu nuen: —Jakiña, aita, ama eta anai biak etorriko diran bezala ez diote hemengo andreari bazkari nahasterik egin nahi eta Iruña inguruko herrixkaren batean lotuak bide dira bazkaltzen. Geroxeago etorriko dira. Ta ni ere bazkaltzen hasi nintzan.

Bazkaria amaitu gabe nedukala pentsakizun illun eta triste bat etorri zitzaidan gogora. Gitxitan eduki dut holakorik. Gorputzetik hotzikarak zebilzkidan.

Zerbaitek esaten zidan zer edo zer txarren bat gertatu zitzaiela, zetozan automobilla joa zala eta hartan hillak edo zirala. Pentsamentu beltz hark bortizki iharrotsi ninduen. Jateko gogoa ere galdu nuen.

Geroxeago atea jo zuten. Gurasoak ziralakoan arinka joan nintzan, baiña ez, ez ziran nire aitamak. Han gizon argal eta ezezagun bat zegoan, arpegian laztasun nabaria zedukana.

Berak esan zidan telegrama bat aillegatu zitzaikala Unibersitatera, nire gurasoek automobil elkar jote bat eduki zutela Altsasuan esanaz.

Nik, bat batean, eta aurretik bainekien galdetu nion:

—Oso txarto dagoz, ez da?

—Ba... bai, —erantzun zidan beldurrez.

Gero, Gasteizera heldutean dena jakin nuen. Nire aitak errurik bat ere eduki ez zuen auto jote batean, ama hilla zan; aita bera hilteko moduan geratu, anai bat zoratuta, bestea, txikia, mirariz ezertxo ere bage, eta etxeko neskamea anka biak hautsirik zegoan.

Ikaraturik geratu nintzan, baiña nire barruan, zerbaitek eman zidan aurretik berri zorigaiztoko hura.

Nire bizitzan ba dira beste batzuk honelakoak, baiña nabariena, eta mingarriena ere, esandakoa bide da.

Zergatik igarri nuen nik hura? Nundik etorri zitzaidan aurrez jakitea? Luzaroan egon naiz arazo hartaz pentsatzen eta zerbait konklusiotara heldu ere bai.

Ahalmen ezezagunen gertabidea

Nire eritziz seigarren zentzu misterios hori honelakoa litzake.

Pertsonak, pentsatzen duenean, garaunetik baga edo ondak jaurtiten bide ditu. Ba dakit orain arte probatzeke dagoala berau baiña izan daiteke hortarako makiña berezirik egon ez oraindio. Ez ahaztu geure burua elektronikazko makiña bat besterik ez danik, molekulaz, elektroiz eta protoiz osotua funtsez.

Bere funtzionamentuan, beraz, zelanbaiteko ondak sor letzake eta berauek kanpora irten ere bai.

Onda hauek nire teorizkoak dirala esan lezaidakete, oraindik agertuak ez dagozalako, baiña orain probatuta ez egoteak ez duke esan nahi ez diranik. Usaiñaren izatea bera ez da makiñez probatzen, suhurrez baiño, eta hala ere beste aunitz.

Pertsona bakoitzak bere ahotsa, usaiña, eta kolore bereziak dituenez, berdinzki eduki detzake bere onda jatorrak.

Zer da urrutiadimenaz gertatzen dana?

Hona nire hipotesia.

Lagun batekin ibiltean eta egotean, eta zer esanik ez berarekin luzaroan bizi izatean, beraren ahotsa, usaiña, latz biguintasunak eta abar hartzen dira, bost zentzun ezagunek bideraturik. Hala ere bere burutik onda batzuk aillegatzen bide zaizkigu, bere pertsonatasunari dagokiozanak.

Geure garaunek, geu konturatu ere bage, hartzen ditu lagun horren ondak; edo ondarik ez balego, bere garaunaren elektronika xixtimaz dar dar jarten da, durunduz-edo, eta denboraz "ikasten du" ezagutzen norenak edo norengandikoak diran.

Argiago ikusteko hona hemen etsenplu bat:

Etxe batera sartu eta berbaro urrun bat entzunik, nire lagun Tomasen ahotsa ezagutzen dut, bera ikusi ez arren, eta hitzen esangura aditzen ez badut ere. Horrelaxe, kaletik nabillenean, bera hurbil egonez gero edo nire zolitasuna zelakoa dan, zerbaitek, hots, nire garaunetako onda hartzailleak, bera dakarst gogora eta nire lagun horren gomuta piztu.

Geroxeago, ikusi egiten dut hurbilleko kale batean, ta horrela probatzen da onden teori hau. Beste batzuetan, ordea, gehienetan noski, ez dakusat pentsaturiko pertsona hori. Baiña ez ikusteak ez duke ezertxo ere probatzen. Izan daiteke nire laguna ni nabillen kaletik urrundutea eta bion bideak batez izatea.

Onden esana, beraz, egia dateke, nahiz ta esandakoa ikuskizun izan ez. Modu errax bat legoke onden edo hurbiltasun dardar edo durundu egiteen teoria egiztatzeko. Hauxe: Holako uste bat datorkigunean, lekua, eguna eta ordua idatzi eta laguna ikusten ez badugu, urrengo batean, berekin egoteko aukera dadukagunean, galdetu ea halako egunean eta esandako ordutan kale haren inguruetatik ibilli ote zan. Hola proba eta egizta leiteke berau.

Irakurleen datoak baliotsuak izango litzaizkidake eta haintzat hartuko nituke pozik.

Bigarren ezagupidea pentsamentuen adierzea litzake. Hontan gure buruak onda bidaltzaillearen nortasuna ez ezik, baita beren esan gura ere adituko luke. Hurbillago egotean edo zoliago izanaz, berbaro edo hotsa ez eze, baita hotsen esan nahia ere ulertzen dugu.

Aurrerago joan aurretik puntu bateri ikutu nahi nioke: Zolitasunari. Uste behar dugu buru ahalmen hontan ere ezberdintasunak dirala, pertsona batzuengan zabalago eta zoliago dala beste batzuengan baiño ere.

Zentzu ezagunez orobat jazoten da behintzat. Edozeiñek ez du musikalari baten belarri zolia, ez perfumista baten suhurra. Dendari zuhur batek atzamarrez ikutuaz igarten ohi du ongi ehunaren eta ohialen kalitatea; pintalariek begi onak daduzkate koloreetarako ta ardotan adituek erraxki esaten digute ardo baten adiña eta jatorria bera dastatuaz.

Berdinzki gerta daiteke urrutiadimenaz ere. Batzuk besteak baiño zoliagoak izan daitekez.

Nire kasuan, Iruñan nengoaneko aurre igartzez, hauxe uste dut. Izan daiteke, nire amaren heriotzaz, bere onden amaitzean nigan zerbait gertatzea. Ba leiteke bakoitzak urrutizko hartu emanak edukitea bere lagun eta senide maiteaz eta onda bidezko hari hori eten egitea gugan iharroste bat sentitu, onda iturriaren heriotza edo ez beharra adierazten diguna.

Honela azal leitekez Amerikotan dagozanen igarmenak, aita edo ama hilten zaizkienean. "Haria" —onda firu misterios hori— apurtzean, arin pentsatzen dugu berez zer edo zer gerta leikiokela gure senideari. Antzekoa —adibide trauskilla bada ere— pasatzen da Afrikako oihanetan. Gauez zaratots itzalak dagoz, intsektek, txoriek eta piztiek egiñak. Ixilduez gero guztiak itzarri egiten dira aguro, perillen bat dalakoan. Berdin jazo zan Niagarako ur jauzien ondoan bizi ziranekin urte batean, fenomenu bakan bategatik, berauek gau erditan agortu ziranean hotsa itzungiz.

Onda hari hau arrarotu edo bestelakotu ere egin daiteke, eten barik, pertsona bidaltzailleagan zenbait kalte egotean. Onda aldatze horrek ere zerbait adieraziko liguke kasu hortan.

Ta nire igarmenari arrazoiak billatu nahiz beste hau ere topatu dut. Esandakoaz gaiñera, edo batera, etxeko neskameak, konortea galtzeke lotu zan bakarrak, nigan pentsatzen zuela, ta alaxe zan, zelako zoritxarra gertatu zitzaidala, izan daiteke bere ardura niregana etortea, Zener kartak darabiltzanak bere pentsamentuak beste batzuenganatzen dituen bezala.

Izan, onda horiek ez dira zertan izan behar ezagunenak. Ezezagunengandik ere zenbait esan nahi har daitekez.

Mundu osoarekiko hartu emona

Izadi osoa elektrika txatalez sortua dalarik (harri bat, landare bat, pizti bat eta gizon bat enerji xixtima ezberdiñak besterik ez dira, baiña funts berdiñekoak) ez da arrazoirik elkarrekiko hartu emanetan ez egoteko.

Honela pentsa genezake geure inguruek beren egoeraren berri ematen digutela onden bidez, elektroitasun ixurtzez. Pertsona batzuek hartu eta aditu egiten bide dituzte inguruen berriok.

Batek jakin orain susmatzen dugun adimen hau gu baiño aurreratuago izango diran beste gizon batzuengan egongo dan erosoenik, hots, etorkizuneko "Homo sapientissimusen" baitan.

Hauxe litzake geroaren igarmenaren giltza. Inguruak berri asko bidaltzen dizkigu. Berri edo dato hauek kidetzen eta aitzin gibeleratzen dira geure buruan —halako ahalmena dutenengan, noski— eta hortik prebisioak atera. Jar dezadan adibide bat.

Zubi zahar batek bere egoeraren berri bidalten du kanporantz. Laister eroriko dala ez dirudi, baiña hola da. Zubi zahar horren estruktura zedenduta dago eta usteldurik. Hamildu aurretik, barne ekilibrioak apurtzen hari bide dira eta beragandik irteten diran ondetan horixe joan dateke.

Pertsona zoli batek hartu egiten ditu onda horiek eta ondotik haur batzuk jolasean ikusirik, haiengana doa arinzki zubira joan ez daitezan. Hori egiñik, ikuste du pertsona horrek zubia apurtzen eta errekaratzen.

Bihozkada bat, esango luteke askok; kasualitatea, beste batzuentzako, eta bai miraria ere zenbait erlijiotien ustez.

Nik ez dut ez bihozkadarik, ez kasualitaterik siñesten, ez eta noizean behingo mirari arrarorik.

Hortan arrazoiren bat egon behar da.

Oso ezaguna da nolako ahalmen duten pizti batzuk jauskizun dan etxetik ihes egiteko. Horrela, elaiek, saguek eta txiñaurriek anka egiten dute aguro etxea hamildu aurretik. Batean baiño gehiagotan piztiengatik salbatuak izan dira pertsonak, piztitxoei jarraiturik etxetik irten ziralako.

Nire eritziz, aurre igarmenezko profezi guztiak —erlijio kontuak ez dira nire arlokoak— irudiko dira, faltsokeriak eta antzekoak gora behera.

John Kennedyren heriotza aurrez esan zuen andreak berak horrela joka zezakean. Hiltzailleen pentsamentuak, beren ondaz, etorri zitzaizkion eta kezkaz, nun izango zan jakitean, hara ez joateko esan.

Igarmen gertaera bakoitza bakarra da eta horregatik bere aurre atze ta gora behera guztiak konsideratu behar izango litzake, ontsa ezagun eta iturburuak jakiteko.

Psikokinesia azaltzeko gaitzena, zaillena bide da. Nola eragin dezake batek, ikutu bage, gauza bat bere borondatepean?

Nik elektronika estrukturen problema bat dala uste dut hontaz ere. Erabillitakoak erabiltzaillea bera baiño ahulago, errazago eta xumeagoak bide dira.

Giza buru batek, bere barneko elektroitasunaz baliaturik, alda eta eragin letzake beste elektronika talde xinpleagoak.

Harrigarria dateke onda bidezko ahalmen hau, baiña ez ote da egia imanak burdiña erakartzen duenik ikutu bage? Ez ote da egia, baita ere, hipnosiz, pertsonaren ahalak bestelakotzen diranik hipnosi eragillearen buru indarrez?

Parapsikologia bera ere holako zerbait bide da. Ezagutzen hasiak gera oraintsu, baiña nork daki zer argituko dugun etorkizunean?

Xabier KINTANA

Paulo VI eta Camilo Torres

Paulo VI'gnaren Bogota'ko hitzaldiak direla bide zabaldu diran iritzi-emate batzuetan, lerro artean, asmo bat nabaritu bide dut. Nazioen hobekuntza ta aurrerapena nahi dutenak eta biolentzia nahi dutenak bateratzea. Eta baita aurrelari hauek Paulo VI'gnaren beste muturrean ikusi nahi izatea ere, beren jokabideetan. Konkretuan: Camilo Tarres.

Eta aitor dezagun, pertsonak eta prolemak (eta soluzio-bideak, noski) gaingiroki eta axaldiro ikusiaz, hala ematen du. Funtzean, ordea, ez dut uste.

Paulo VI'gnak, prentsak lau aizeetara aldarrikatu baitu, ba dakigu biolentzia kondenatu duela. Garbi asko esan baitu biolentzi hori ez dagoela ados ez Ebanjelioarekin, ez Kristianismuarekin. Xinplekeria honekin utzi digute informazioak Aita Santuaren pentsaera. Berak egin duen planteamentuaren muiña ez dute sakondu.

Eta beste aldetik, Camilo Torres nola presentatu ziguten? Esan beharrik ez. Camilo Torres'ekin eskema bat egin dugu, bandera bat. Ta nahi baduzute, mito bat. Eta Colombia'ko Gonzalo Alfonso Pineda G. jaunaren oharrez, mito bilakatze hori izan da hain zuzen Camilo'ren pentsamentuaren galera nagusia. Izan ere, Camilo'ren pentsamoldea garbi jakiteko ezin gindezke lau informazio merkez konformatu. Mito eta eskema baten informazioak artzen baigabiltza. Bere garaiean, komenientziagaitik (beste zenbait arrazoi aparte utziaz) agintariek topiko bat gaiñeratu zioten, hots, komunista. Hilda gero ere bere izenari ez zaio justiziarik egin, ez agintarien partetik, eta ez (kasu!) Colombia bertako eta kanpoko partidu

interesatu batzuen partetik. Pertsona bakoitzak eta talde bakoitzak nahi duen erara epaitzen du Camilo. Horregatik diot bere pentsamentua "erabillia" dala. Eta hain zuzen alderdikeria honek (nagusiarenak eta talde batzuenak) bihurtu du, gehienik, Camilo Torres biolentziaren supergizona. (Orain ez dut aztertuko zergatik agintariek eta zergatik partidu batzuek egin duten Camilo biolentziaren eragillerik nagusiena. Labur esanda: batzuk bere influentzia desegiteko eta besteek bere eragiñez baliatzeko. Gisa da).

Naturalki, eskeiñi diguten eskema errex hontaz baliaturik, garbi ta argi geratu da guretzat Paulo VI eta Camilo Torres egoera baten soluzioaren bi muturretan zinki finkaturik daudela. Ezetz uste dut. Ez daude hain urruti, baldin egiaren arabera errealitatea ikusi nahi badugu.

Helburua, bera da: lurralde hoien egoera larria (ta negargarria) soluzionatzea. Torres, bere Colombia'z mintzatzen da, eta Paulo VI Ego-Ameriketaz. Bidean da ixtillua, hor letorke eztabaida. Zein jokabide aukeratu behar da, hortarako?

Harritzeko da. Camilo Torres'ek eta Paulo VI'gnak planteamentu bera proposatzen dute: maitasunean finkatua, alegia.

Camilo Torres'ek apaizgoa (samiñez eta dolorez, bere hitzak siñistu nahi baditugu) utzi zuanean, 'Tiempo''n ixkiriatu zuanez (65-VI-25) ikusten dugu nola bere bizitzaren eta ekinbideen xedea maitasuna zan: "Lagunurkoari serbitzeko erarik garbiena zala ustez aukeratu nuen kristianismua. Apaiz betiko izateko Kristok aukeratu ninduan, nere bizikideen maitasunari, denbora guzian, eskeintzeko nahiarekin. Soziologo bezela, teknika ta zientziaren bidez, maitasun hori eragikorra izatea nahi izan dut. (...) Erreboluzio-burruka, kristau eta apaiz-burruka dela uste dut. Bere bidez bakarrik lort dezakegu, gure aberriaren kinka konkretu hontan, gizonek beren lagunurkoeri euki behar dieten maitasuna".

Erreboluzio hitza aditu dugu, baiña ez geitezen hitz borobil honen hotsarekin fidatu. Erreboluzio hitzaren barrunbea aztertu beharra dago Camilo'rengan. Torres'en ideologia (ene ustez) pittin bat sakondu duen Juan Gomis'ek dionez, Camilo'k erreboluzioa dionean, ez du armazko burrukarik ulertzen, egituren aldakuntza sakona baizik.

Aipatu dugun idazki hortan bertan aditzera ematen duanez, pausu hori (apaizgoa uztea, alegia) eman badu, maitasunaren eskabidea dalakoan egin du: "Uste dut lagunurkoarekiko maitasunaren agindua eragikortasunez betetzeko konpromisuak behartzen nauela sakrifizio hori egitera. Gizonen erabakien eta asmoen helbururik nagusiena elkar-maitasunak, goitiko maitasunak behar du izan".

Beraz, alde batetik, kideenganako maitasuna daukagu, eta, bestetik, alkar-maitasun honi benekotasuna emateko, maitasun eragikorra, efikazia daukana. Hots, hitzak eta egintzak.

Paulo VI'gnak ere, Aurrerakuntza gaitzat arturik, Bogotá'n egindako hitzaldian, maitasunean oiñarritu du Ego-Ameriketaren soluzioa, helburu, indar eta bide dan maitasunean.

"Maitasunak behar du izan jende xumea, okerra, tajugabea, sufritua (eta batzuetan maliziatia), herri berri, bizi ta egille baten, herri batu, gihartsu, kontzientzidun, aberats eta zoriontsu baten eraberritzeko lokarria".

Baiña, lehen, Camilo Torres'en garaiean, eta orain, Aita Santua Bogotá'n dagoela, zalantza bera datorkio edozeiñi burura, maitasun honen indarrari ta ahalari dagokiona, alegia.

Camilo Torres'ek, horregatixe, maitasun eragikorra eskatzen zuen.

Eta Paulo VI'gnak ere bai, mintzaera desberdiñarekin bada ere. Hain zuzen, galde-erantzunak berak egin ditu.

"Aski al da alkar-maitasuna? Neiko al da maitasuna mundua jasotzeko eta gizartearen aurrerakuntza aldatzaille ta berritzailleari erasotzen dioten eragozpen kontaeziñak garaitzeko, alegia, historiak, etnografiak, ekonomiak, politikak, alkar-bizitzaren erakundeak, presentatzen dizkigutenak? (...) Erantzun behar da: bai eta ez. Bai; mantasuna beharrezkoa da eta aski da bizi geran mundu makur honen fenomenu berritzaille handiaren printzipio eragille bezela. Ez; ez da aski maitasuna, baldin hitzezko ta sentimentuzko teoria hutsean gelditzen bada eta beste bertute batzuk ez badiote laguntzen; lehenengoa, justizia...".

* * *

Merkantzi merkearen bezero gera. Baietz! Eta hola, Camilo Torres ezagutzen baldin badugu, "el cura gerrillero" bezela eza-

gutzen dugu. Mutur hontatik ari osoa datorkigu. Aise siñisten dugu Camilo dala biolentziaren eragille nagusienetariko bat, handiena ezpada.

Arinkeria asko dago informazio-bideetan. Eta arinkeria bakarrik balitz, gaitz-erdi. Hemen alderdikeria ere ez da falta, lehen aipatu dugunez.

Hala ote da, alegia, Camilo Torres biolentziaren aldezkari ta eusle al da? Nekez da siñistea bere jokabidearen zergatia ikusita.

Egia da Torres mendira joan zala. Jakin behar da, halere, ea igesegite hau eboluzio baten ondorena izan ote zan, edo, bestela, bizi zuen kondizionamentuak bultzatuta (edo itsututa) eman zuen pausu bat. Gizakume bat ezur-mamiz egiña baitago; ez ideiaz ta ez idealez. Haren bizitzan ikasiak direnak ere ez daude akort bere bizitzako gertakizun hau epaitzean, eta ez dakigu arrazoiaren indarrez mendira joan ote zan ala indarraren arrazoiz. Dakiguna da, bere bizitza osoa azterturik, mendiko bizitza honek ez duela batzuk eman nahi izan dioten garrantzirik, uste batzuk soillik izan ziran-eta. Aldiz, beste hau ere ba dakigu: maiz azaldu zala biolentziaren etsai bezela. Mendira igo baiño urte bete lehenago, zera idatzi zuen: "...Biolentziarik ez dugu nahi, indarrik ez dugu nahi, gehienentzako agintaritza nahi dugu".

Ez dut ixtudio sakonik egin, ez da nere asmoa izan. Bateren bat, beharbada, nik diodana ala beste aldizkari batzuetan irakurri duena, bietan zein dan egia ez dakialarik gera liteke. Bidezko danez, gaia sakontzen asi behar du holakook. Eta horrekin, nerea egin dut.

Bukatzeko, hain urruti ez daudela Paulo VI eta Camilo Torres Restrepo azkenekoz frogatu nahi nuke. Harrigarri gerta dakioke irakurleari Paulo VI'gnak Bogota'n esandakoaren laburpen gisa, Camilo Torres'en hitzekin amaitzea. Camilo'k kristaueri egindako Deiaren (65-VIII-26) berbak dira: "Katolizismuan printzipalena lagunnurkoarekiko maitasuna da. 'Lagunurkoa maite duenak legea betetzen du' (S. Paulok, Errom. XIII, 8) Maitasun honek, benetakoa izan dedin, efikazia billatu behar du".

Joan Mari TORREALDAY

AGIRIAK

KATALAN-HIZKUNTZA

Literatur-lantzerik gabe jatorrizko egoeran dagoen hizkuntza bat, hizkelki edo dialekto-multzo batean zatitzen da, hizkera-mota berezietan, ezberdiñetan, baiña, hala ere, gramatika-legeen lokarriak nolabait batuta. Ixtudio-gabeko batek edo-ta edonor presatsuk hizkuntza bereziak, hizkuntza ezberdiñak dakus dialekto hoeri begira: fonetika, lexikoa ta abar ezberdiñak direlako. Filologo-inbestigalariak soillik nabaritzen du, berezitasun guztien barnean, batasun-ari bat. Hizkera-mota guzti hoiek hizkuntza bakar baten dialekto bezela islatzen dituen batasun-aria.

Gizaldiak zehar kultura-gabean datzan hizkuntza bati, bitan bat gertatzen zaio: edo hil egiten da beste hizkuntza baten menpean zapaldua edo-ta berez hiltzen da barne-desegite batek ezereztua, dialektoek deuseztua. Orduan dialektoak gehitzen eta biziagotzen dira, dialekto hoien barnean hizkuntzaren batasunari nolabait eusten zion aria etetzen da ta, noski, dialektoak oro hizkuntza ezberdin bailira agertzen zaizkigu. Horrelaxe gertatu bide-da Ameriketa'ko herri zaharretan ageri dena: enda baten muga-barruan kontaezin haiña hizkuntza, herriak eta fameliak hainbat hizkuntza.

Hizkuntzak literatur-lantzearen bidez irtetzen dira dialekto-anarkitik, enda osatzen duten gizon guztiei heuren arteko kidetasuna sentiarazten dien indar biziaren bidez, ta indar honek heuren sentimen, nahimen ta gizarte-elkartasuna instituzio, ohitura, lege ta hizkuntzan gorputzera bultzatzen die.

Herri baten eginbehar nagusiena literatur-hizkuntza bat sortzea da. Literatur-hizkuntza bat izatea naziotasunaren sagaratzea da. Dialekto-multzotik bat nagusitzen denean, besteen gain jartzen denean, eta endaren literatur, filosofi ta juridiku-arloeri forma ematen dienean, dialekto ezberdiñez desegindako hizkuntza hura beraxe batasun bizi bihurtzen da, endaren linguistika-indar guztien batasun ta koordinazio-gune, dialektoetan datzaten gizaldizko aberastasunen bilduma. Orduan ez, ez da dialektoen eragiña arrixku bat izango. ez du hizkuntzaren deusezte bat sortuko. Hizkuntza hil ez, baizik eta xuxpertu egingo du, mendietako eguratsak urietako odola xuxpertzen duen gisan.

Guk ba dugu literatur-hizkuntza bat, belaunaldi haunitzen nekeekin landua. Baiña Catalunya'k herri izateari utzi zionetik utzi, gure hizkuntza hau literatur-lantzerik gabe gelditu zen gizaldi askotan eta olerka-

ririk eta filosofilaririk eta estadistarik eta gabe. Eta literatur-hizkuntzetara berriz esnatu zenean, ordurako iragana zen "Renacimiento"-ko ordu loretsua, gurearen kideko diren Erdi Aro-ko hizkuntzak, bere lege ta tajuerarekin, indartu, garbitu ta greko-latinar zibilizazioen odolarekin kutsutu zituen ordu loretsua.

Hortik katalan hizkuntzari aurkeztu zaion egoera: bere gramatika zehaztu beharra, bere lexikua txukundu ta osatu beharra, bere ortografia islatu beharra, hots: beste hizkuntzek ordurako amaitua zeukaten lana; ta erantsi honi gaurko politiku-egoeraren giro kaltegarria, gure hizkuntza bi aurkako eragiñen artean biderik gabe uzten duen giroa, eta eskolarik gabe, Unibersidaderik gabe, dinasti ta aristokrazi bererik gabe, Estadurik gabe, eta aurrean beste hizkuntza baten eragin ondatzaillea, eskola, Unibersidadea, prentsa ta Estadua, ta guzi honek herriari eragiteko ta menperatzeko dituen errextasunak.

Beste hizkuntzak pixkanaka ta poliki, presarik gabe egindako lana, guri biziki presazko gertatzen zaigu. Besteen maillara jaso behar dugu gure hizkuntza, burrukarako ta garaille irtetzeko premiazko zaizkion tasun, elemento ta aurreraldi guztiz jantzi behar dugu.

Aurreraldi ta tasun hauetan premiazkoena, aireago gure hizkuntzarentzat eskolatik baztertua dagonez, batasuna da. Batasun iaio bat txertatu behar diogu gure hizkuntzari, batasun sakon ta bizi bat. Gizaldiz zehar indartzen joan den dialekto-zatiketa garaitu dezan batasun bat. Gure endaren indar representatzaillerik-eza garaitu dezan batasun bat. Gure lan-tresnen, irakaspenaren eta gure adimen-ondarearen aultasuna garaitu dezan batasuna. Gure hizkuntza zapaltzailleak, kondaira-patuak hala nahi-ta, bereganatu dituen eragin-indar guztiak garaitu ditzan batasuna.

Katalan hizkuntzaren anarkiari, idazle bakoitzak bere hizkera, gramatika ta ortografi bere-bereak izateak duen anarki tankerako horri azkena jarri behar diogu. Katalan hizkuntzari berezko izan duten billakatze edo eboluzio normal bat tokatu ez zaion ezkero, ez "Renacimiento"-aroan ez gaur egun bere lege zihurrekin batasuna lortu dezakean Estadu bat ez duen ezkero, guk geuk gero, libreki, eman behar dizkiogu arau hoiek, Aberriari zor diogun maitasunagatik, guri edo eskola bateri gogoko zaizkion berezitasunak baztertuaz, katalan denok. batasunean, ezarri behar ditugu arau hoiek.

Hau lortzeko, nahi hau egia bihurtzeko, Institut de la Llengua Catalana sortu zuen Barzelona'ko Diputazioak, ordurako ospetzu zen Institut d'Estudis Catalans'en altzoan. Izan askotarikoa da berari dagokion lana, gure hizkuntzaren bizitza eta zabalera osoari eragiten dio. Baiña Diputazioak ezarri zion lehenengo xedea zera da:katalan-hizkuntza ixtudiatu ta, Institut hori osatzen duten oroen laguntzarekin, orto-

grafi-arauak ematea, arau hoieri jarraiki batasuna lortu dedin, hain gogoko dugun batasuna.

Gaur egun betetzen du, lehenengo aldiz, Institut honek bere eginbehar ahaltsua, eginbehar batzaillea, katalan-hizkuntza idazteko ortografi-arauak zehaztuaz. Ta, lehenengo aldiz, gure erantzuna, katalan guztion planta zera izan behar du: gogo pertsonalak, iritziak, ohiturak, narda,argumentu ta eztabaidak utzi; ta arau hoiek onartu bete-betean, bat-batean eta zintzoki.

Arau hauek eman baidezaioteke eman gure hizkuntza maiteari kultur-hizkuntza batek premiazko duen lehenen-lehenengo batasuna: ortografi-batasuna. Ta gure onartzea, denok bat-batean onartzea, elkartasun ta abertzaletasun-eredu izango da. Ta gaiñera landu ta zaildu egingo gaitu honek beste eginbehar zaillagoetarako.

Batasun hontara irixteko, Institut'a osatzen duten lagunek, bere bizitza guztiko ohitura ta zaletasunak utzi behar izan dituzte; hauek, idazle ospetsu izan askotxo ta, beren idazlanetan erabillitako ortografierak baztertzeko orduan, min hartu dute bere bihotz-barnean, heuren tradizioarekin, heuren lagunen tradizioarekin eta heuren eskolaren tradizioarekin austearen min bizia. Baiña denek, abertzaleki, heuren idazlan ta eskolaren batasuna beste batasun ederrago baten aldarean opaldu dute: nazio guztiko ortografi bakarraren batasuna.

Katalar hizkuntzak biltzen dituen gizonek oro jarrai dezaiotela erakutsi jator honi, ta, orduan, nazio osoaren ortografi bakarra ez da amets bat izango, egia bat baizik.

ENRIC PRAT DE LA RIBA

(1913-ko hilbetzaren 31-n VEU DE CATALUNYA'n argitaratua)

Euskeratzaillea: **Iñaki Beristain**

MOSKERA — BOGOTA'n

BERRI-EMAILLEERI

Prentsa, irrati eta telebixtako jaunak:

Egun hauetan munduko lurralderik aldenduenetara Bogota urbiltzen ari zerate eta hemen egiten diran eukaristi ta eliz bibentziak askok jarrai dezaten errexten duzute. Nola eskertu serbitzu leial eta premiazko hau?

Ondotxo dakizute zuen lanbide-bokazioari dizkiogun itzala eta begiramena. Guztion onaren alde lanegiteko erantzukizun bikaiña daukazute, betiere egiazko eta, justitzia ta alkar-maitasuna gorderik, osoa izan behar duen informazioarekin: gizonaren eskubide jatorrak eta diñatasuna eta moral-legeak errespetaturik, hala notizia jasotzean nola zabaltzean.

Egia da, maiz, iritzi publikoa goibeldu edo griñarazi egin ohi duten gertakizun mingarriak jaulkitzera behartuak zaudetela. Egia da ere, ordea, sarri asko, ona, ederra, barneko balioak, oharkabez pasatzen direla.

Ohartarazi zuek eta deskribittu itzatzute oraindik ere, zorionez, baretasuna, konfiantza eta imitagarritasuna dakarkiguten benetako adibide batzuk ba direla adierazten duten hitzekin. Pakeak, bertuteak, heroismo ixilliak, hauek ere ba dute beren kontakizuna: zaitezte zuek beren kronikari zeatzak eta arnas-emailleak.

Eta Bombay'n egin genuen bezela, hemen ere mensaje bat ematen dizuegu: nazioak armamentu-karrera utz dezatela. Dirutza izugarri hortatik, zati bat bederen, bizi-mailla negargarrira bazterturik dauden hainbeste herri naigabetzen dituzten prolema larriak arintzeko "fondo internacional" delako batera eman dezatela. Aizatu berriro iritzi publikoari dei hau.

Eta baita, esan, gure pentsamentu naigabetuan, gaurko egunotan baitipat, Txekoeslobakia'ko herriak daudela, ta ez gutxiago Asia ta Afrika'ko lurraldeak, gerrak zigorkatuak, eta beuren sufrimentu eta kezkak gure bihotz barru-barruan daramazkigula, gure eskeintza ta otoitzetan. Lurralde maitatu hoien zorian erantzukizuna duten pertsoneri zuzentzen gatzaizkie, etengabe eskatuz, alegia, borondate onenarekin saiatu ditezela eta beren alegin guztiak eskeiñi ditzatela erabakigabeko arazo astun hoiek zuzentzera, giza-pertsonaren eta nazioen eskubideen begirunean.

Zabal itzatzute, ba, zuek, justizia eta pakearen mensaje hauek. Gizonek eskertuko, dizue, eta Jainkoak doaiez beteko. Eta errezatuz, gizakume maiteok, apostolutar bedeinkapen bat ematen dizuegu.

PAULO VI AITA SANTUA

Euskeratzaillea: **Joan Mari Torrealday**

Liburuak

AZALEKOAREN ESKUBIDEAK

Politkologiak —politikaren jakintzak— eta soziologi politikoak bere eskubideak galdu dituztela dirudi. Bataz beste danok onartzen dugu gizarte baten egoera neurtzeko mamira jo behar dugula ta mamia ekonomian dagoela. Gaiñentzeko errealidadeak engaiñatu egiten gaituztela edo engaiñabideak izan ditezkela. Europa'ko parlamentoak, ustutzen dijoaztenean, eta elezioen auziak ezer gutxitan jarri ditzazkegu. Larresoro'k ongi dion bezela: "Gaur Europa'ko parlamentoak hutsik baldin badaude beste zerbaitean billatu behar da giltzarria. Eta erroa oso sakonki aztertu gabe agertzen da: XIX'gn. mendeko demokraziamota hura pasata dago. Gaur ba dakigu demokraziaren kakoa parlamentoan baiño sakonago dagoela; eta ekonomia eta jakintza behetik beretik zuzentzeko aukerarik ez duen "demokrazia", nahiz deputatuek parlamentoan oso hitzaldi onak egin ahal izan, ez dala demokrazia bat. Horrengatik hustutzen dira parlamentoak" (1).

Azalekoek ere, ordea, errealidade bat dira eta ezin diteke, ekonomia dela muiñekoa ta, baztertu. Politikagintzarako soziologi politikoak izugarrizko garrantzia du. Erak, moduek, instituzioek zerbait adierazten digute. Gaiñera ba dute bere autonomia, bere bizitza propioa.

Gure errealidadea, euskaldunena esan nahi dut, diranetik eta izan diranetik asi behar dugu aztertzen, ez behar luketenik. Espaiñia'ko II'gn. Errepublikak euskaldunetan, ots Euskal Herria'n bere biziko ondorenak utzi ditu. Gure gaurko egoera behar bezela ulertzerik ez badago XIX'gn. mendea kontuan artu gabe, beste horrenbeste esan diteke II'gn. Errepublikaz.

(1) "Parlamentoak hutsik", Larresoro'k Z. ARGIA'n, 1968'gnko epaillleko 17'koan.

Azken bolara hontan Madrill'en edo Barcelona'n argitaratuta garal haietako gertaerak aztertzurik liburu bat baiño gehiago ikusi dira. Ala ere zailla da beti elezioen eta soziologi politikoaren estudioa egingo duenik arkitzea. Zaillago oraindikan instituzioen eta errealidadeen arteko desegokitasuna ezaguturik gaiari frente egingo dionik, zeren Jean Bécarud'ek bere liburuan dion bezela: "La España contemporánea ofrece una de las ilustraciones más significativas del abismo que puede mediar entre las estructuras de un estado y la imagen que de él quisiera ofrecer el edificio teórico de la Constitución".

Liburu hontan aztertzen danak, ordea, guretzat aiñ gure aragiko den garai hura berpentsatu erazitzen digu. Egia da bukaeran, José L.L. Aranguren'ek liburuaren itzaurren dioen bezela: "Suele decirse, como fácil crítica de la sociología que solo sirve para reiterarnos, tras mucho trabajo y a veces, grandes gastos, lo que ya sabíamos de antemano. Naturalmente, se puede responder, aparte otras muchas cosas, que entre ambos "saberes" hay una diferencia sustancial: sobre uno de ellos se puede construir ciencia y sobre el otro no".

Behar bada 1.931'gn., 1933'gn. eta 1936'gn. elezioen mapa estadistikoak ikusteak, eskuindarrak, ezkertiarrak eta erdizaleak nun ziran indartsu aztertzeak, abstanezioak nun ziran nagusienak salatzeak etab. itxuraren erreinuan bizi gerala uste erazi dezake. Erru aundia litzake hori, zientziaz aztertu nahi baldin baditugu guretzat ain inportante izan ziran garai haiek iñola ere ezin ditezke baztertu. Gaiñera Bécarud'ek egiten duen estudioan elezioetako numerotan irakurri egin nahi du, numeroak gaiñezkaturik bere muiña ta barrena aztertu. Puntu hontan interesgarria da 1936'gn. otsailleko elezioen ondorean azterturik adierazten duena: "Tendencia de las derechas a concentrarse en la España interior, sobre todo en la parte norte; arraigo de las izquierdas en las grandes ciudades, las zonas de concentración proletaria, las regiones periféricas, especialmente aquellas que aspiran a la autonomía: tales son las grandes líneas de la geografía política de España después de las elecciones de febrero de 1936. Se perfiló la distrubición de las grandes fuerzas políticas en dos bloques. De esta forma se pone de relieve una vez más la "diversidad de niveles mentales regionales" que agudamente subraya Vicens Vives, esa tensión entre aquellas regiones que se han quedado en un estadio teórico-rural y de la vida social y las que han llegado a formas de organización más modernas y más diversificadas".

Instituzioen prolemak, elezioak egiteko modua, zenbaitek ez uste izan arren ez dira batere bigarren maillako prolemak. Ekonomiaren prolemak eta estadu baten estrukturapea zuzendu ta eraberritu ezkero

gaiñontzeko guztiak, ots, konstituzioa, parlamentoa etab. bereala konponduko dirala uste izatea determinismo utsean erortzea litzake. Eta gaur eguneko sozialismogintzak ezer erakusten baldin badigu zera da, askotaz ere indartsuagoak eta gizontiarragoak dirala boluntarismo kutsua duten erreboluzioak determinista kutsua dutenak baiño.

Pazientziarekin eta aurre-iritzirik gabe, Jean Bécarud'ek idatzitako liburuaren (2) irakurketa guretzat aiñ gertu ta aiñ urruti dauden gertaerak behar bezela aztertzeko tresna interesgarri bat izan diteke.

RIKARDO ARREGI

(2) Jean Bécarud, La Deuxiéme République espagnole, 1931-1936, 1962'gn. Fondation Nationales des Sciences Politiques, Parise'n, argitaratua eta españoleraz Madrill'en Taraus etxeak 1967'gn. azaldua.

OHARRAK

EUSKALTZAINDIAK Arantzazun bil ditezela eskatzen die euskaltzaindikoeri, euskal-idazleeri eta euskera erakusten ari diren irakasle ta andereñoeri. Orain da ordua euskera idatziari buruzko geure iritziak adierazi ditzagun.

BILLERA hauek Arantzazun izango dira urrillaren 3-4-5'ean.

PONENTZIAK eta ponentzidunak, hauek dira:

1.—**Manuel Lekuona (Euskaltzaindiaren buru):** «Batasunaren beharra, zergatiak eta zertarako».
2.—**Luis Mitxelena (Batasunaren batzorde teknikoaren buru):** «Ortografia».
3.—**Luis Villasante:** «Hitzen formak».
4.—**Anbrosio Zatarain:** «Hitz berriak».
5.—**Salbador Garmendia:** «Deklinabidea».

ALKARRIZKETA-saioa egingo da ponentziaren ondoren (bakoitza 10 minutuan mintza diteke).

MAHIBURUKOAK: Haritschelhar - Erkiaga - Irigaray - Irigoyen - Labayen - Lafitte - Larzabal - Satrustegi.

Hauetako batek hutsegitea gertatuko balitz, han dauden euskaltzaiñak izanen dira ordezko.

ERABAKIAK batzorde teknikoak eta euskaltzaiñek artuko dituzte. Eta azken erabaki nagusiak, Azaroan, Oñatin, Euskaltzaindiak eratutako jaialdietan agertuko dira.

* * *

Ulerterreza da euskerazko jakintza-aldizkari batek hedadura eskasa izan dezakeala; alde batetik anitz ezjakinkerla dagoelako eta, bestetik, behar aiñako zabalkuntzarik ez diogulako ematen aldizkariari. Bestalde, Euskal Herri osban banandurik dauden kultura-gizonak oro ezagutzea eziña zaigu. Irakurle, zure laguntza nahi dugu, areago, behar dugu. JAKIN zabal zazu ezagutzera eman. Zabalkuntza hortarako behar dituzun zenbaki guziak, eska izkiguzu.

* * *

Gure liburuak edo aldizkaria nahi dituenak eta arpidedun egin nahi danak, JAKIN'en zabalkuntza-arazoa, Arantzazutik eramaten baitugu, Arantzazura jo dezala zuzenean, Zuzenbide hontara: JAKIN aldizkaria - ARANTZAZU - Oñate - Gipuzkoa.

Eta JAKIN aldizkarian argitaratzeko idazlanen bat bialdu nahi duenak, edo zuzendariarekin artuemanik lñork nahi izan ezkero, aurrerantzean Tolosa'ra idatzi beza; ez, lehen bezela, Zarautzera. Zuzenbidea hau da: Joan Mari Torrealday - Convento franciscano - TOLOSA - Gipuzkoa.

LIBURUAK

EUROPA.—Jakinlariek.
10 saiakera interesgarri Europear Alkartasunaren gain.

FILOSOFIAREN KONDAIRA I.—Jakinlariek.
Filosofiaren Kondaira osoa euskeraz eman nahi luken bildumaren lehen zenbakia.

JAINKOA.—Kristau Fedearen Sustraiak.—**L. Villasante.**
Sinismenaren zergaitiak eta oiñarri beharrekoak. Teodizearen argitan.

LAU EBANJELIOAK.—Mendizabal-Goitia.
Goxoki ta herrikoi emanak. Goitia eskritularraren ohar baliotsuekin.

EUSKAL-ADITZA.—Joseba Intxausti.
Euskal Verboari buruz gaurdaiño egin den azterketarik sakonena ta garbiena.

LAS 7 LECCIONES DE EUSKAL-ADITZA.—Joseba Intxausti.
«Euskal-Aditza»-ren osagarri eta laburpen argigarria.

ELORRI.—Bitoriano Gandiaga.
Olerkiak. 1964-ko «Jose Antonio Agirre Saria», azken lau urteetako euskal liburu onena bezela saritua, alegia.

EUSKERA.—Iñazio Omaetxebarria.
Gure hizkuntzaren azterketa bat, euskera irakasteko egiña.

---

10 %-ko deskuentoarekin hartuko dituzte liburuok JAKIN'en arpidedunak.

ESKATU: Dirección de JAKIN - Arantzazu - Oñate (Guipúzcoa)

ICHAROPENA - VICTOR PRADERA, 2 - ZARAUZ 1968 Depósito Legal: S. S. 323-1964